Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontu Orokorra

Cuenta General del Consorcio de Transportes de Bizkaia

2019

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK 7

I. SARRERA 9

II. IRITZIA 11
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad 11
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales 11

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK 13
III.1 Bizkaiko Garraio Partzuergoa 13
III.1.1 Lege araubidea eta estatutuen erreforma 13
III.1.2 Bilboko Hiri Trenbideari lotutako azpiegituren jabetza 14
III.1.3 Aurrekontua 14
III.1.4 Langileria 15
III.1.5 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea 16

III.2 Metro Bilbao S.A. 16
III.2.1 Langileria 16
III.2.2 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea 17

IV. INBERTSIO-PLANA, FINANTZA-PLANA ETA EGOERA FINANTZARIOA 19
IV.1 Inbertsio-plana eta Finantza-plana 19
IV.2 Finantza-egoera 21

V. URTEKO KONTUAK 24
V.1 Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Urteko Kontuak 24
V.2 Bilboko Metroa SAren Urteko Kontuak 29
V.3 Kontu bateratuak 31

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK 33
A.1 Araudi ezargarria 33
A.2 Aurrekontua 34
A.3 Langileen gastuak 36
A.4 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa 37
A.5 Inbertsio errealak eta ibilgetua 38
A.6 Aktibo finantzarioen bariazioa eta ibilgetu finantzarioa 40
A.7 Diruzaintza-kontua 41
A.8 Tasak eta bestelako sarrerak 41
A.9 Transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarrerak 42
A.10 Pasibo finantzarioen bariazioa, zorra eta gastu finantzarioak 43
A.11 Aurrekontuz kanpoko eragiketak 44
A.12 Zorrak eta ordaintzeko kontuak epe motzera 45
A.13 Aurrekontuaren eta ondare emaitzaren arteko kontziliazioa 46
A.14 Kontratazioaren analisia 46
A.15 Metro Bilbao SA 48
A.15.1 Ondare Garbia 48
A.15.2 Ibilgetua 48
A.15.3 Epe luzeko hornidurak 49
A.15.4 Langileen gastuak 49
A.15.5 Kontratazioaren analisia 52

ALEGAZIOAK 55

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS 101

I. INTRODUCCIÓN 103

II. OPINIÓN 105
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad 105
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales 105

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN 107
III.1 Consorcio de Transportes de Bizkaia 107
III.1.1 Régimen legal y reforma estatutaria 107
III.1.2 Titularidad de las infraestructuras vinculadas al Ferrocarril Metropolitano de Bilbao 108
III.1.3 Presupuesto 108
III.1.4 Personal 109
III.1.5 Contratación de bienes y servicios 110

III.2 Metro Bilbao, S.A. 110
III.2.1 Personal 110
III.2.2 Contratación de bienes y servicios 111

IV PLAN DE INVERSIONES, PLAN FINANCIERO, SITUACIÓN FINANCIERA 113
IV.1 Plan de inversiones y Plan financiero 113
IV.2 Situación Financiera 115

V. CUENTAS ANUALES 118
V.1 Cuentas Anuales del Consorcio de Transportes de Bizkaia 118
V.2 Cuentas Anuales de Metro Bilbao, S.A. 123
V.3 Cuentas consolidadas 125

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ANEXOS 127

A.1 Normativa aplicable 127
A.2 Presupuesto 128
A.3 Gastos de personal 130
A.4 Compra de bienes corrientes y servicios 131
A.5 Inversiones reales e inmovilizado 132
A.6 Variación de activos financieros e inmovilizado financiero 134
A.7 Cuenta de tesorería 135
A.8 Tasas y otros ingresos 136
A.9 Ingresos por transferencias corrientes y de capital 136
A.10 Variación de pasivos financieros, deuda y gastos financieros 137
A.11 Operaciones extrapresupuestarias 138
A.12 Deudas y cuentas a pagar a corto plazo 139
A.13 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial 140
A.14 Análisis de contratación 140
A.15 Metro Bilbao, S.A. 142
A.15.1 Patrimonio Neto 142
A.15.2 Inmovilizado 142
A.15.3 Provisiones a largo plazo 143
A.15.4 Gastos de personal 143
A.15.5 Análisis de contratación 146

ALEGACIONES 149

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 19a
Vitoria-Gasteiz 19 de julio de 2021

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

LABURDURAK

128/2018 ELD	128/2018 Errege Lege Dekretua, martxoaren 16koa, Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.
24/2018 ELD	24/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituena.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BGP	Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
BHT	Bilboko Hiri Trenbidea.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EKAB	Europako Kontratazio Agiri Bakarra.
ET	Eusko Trenbideak S.A.
ETS	Euskal Trenbide Sarea.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
IEB	Inbertsioen Europako Bankua.
KPL	31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Uraren, energiaren, garraioen eta posta zerbitzuen sektoreetan kontratatzeko prozedurei buruzkoa.
MBSA	Metro Bilbao S.A.
SPAJL	40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Errege Lege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
XG	Xedapen Gehigarria.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta lanerako programan erabakitakoari jarraikiz, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

HKEEk gauzatutako BGPren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio lana 2016ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontu Orokorra BGP toki erakundearen kontuek, Metro Bilbao S.A. sozietate anonimoaren urteko kontuek (Sozietatearen Batzorde Orokorrak onartutakoak, zeinaren akziodun bakarra BGP baita) eta urteko kontu bateratuek osatzen dute.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu. BGPren kontuetako kontabilitate-arlo esanguratsuenak berrikusteko, kanpoko auditoretza-enpresa batek adostutako prozeduren txosten bat egin du, eta MBSA sozietate publikoaren urteko kontuei finantza-auditoretza egin zaie.
- Egoeraren finantza analisia 2019ko ekitaldi amaieran eta Finantza Planarena, etorkizuneko inbertsioak betearazteko.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Nolanahi dela ere, azaleratutako akatsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

BGP abenduaren 30eko 44/75 Legearen bidez eratu zen, nortasun juridiko propioa duen toki erakunde modura, kontsortzioan bildutako gainerako erakundeekiko askea. Erakunde horien partaidetza 2019ko abenduaren 31n honako hau da: Eusko Jaurlaritza (% 50), Bizkaiko Foru Aldundia (% 25) eta atxikitako udalak (% 25), zeinak ere baitira: Barakaldo, Basauri, Bilbo, Erandio, Etxebarri, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao.

Sozietatearen helburua honakoa da: "Bilboko Hiri Trenbidearen azpiegitura lanen finantzaketan esku hartzea, behin lanak amaitu ondoren obrak hartzea eta dagozkion gainegitura egitasmo eta obrak eta haren ekipamendu orokorra gauzatzea, 44/1975 Legean ezarritakoari jarraikiz" eta "trenak emango duen garraio-zerbitzu publikoa kudeatzea; horretarako, kudeaketa zuzenaren sistema baliatuko da, Bilboko Metroa SA Partzuergoaren kapitalarekin sozietate pribatua eratuta, 44/75 Legearen bosgarren artikuluan erabakitakoaren arabera".

1986az geroztik BGPren finantzaketa EJren eta BFAren artean egiten dute, bakoitzak % 50 jarrita; Aldundiak hartzen du bere gain partzuergoan bildutako udalen finantzaketa.

MBSA sozietatea 1993ko otsailaren 18an eratu zen (BGPk % 100eko partaidetza du bertan) eta bere jarduera nagusia 1995ean inauguratutako BHTko 1. linearen (Basauri-Plentzia) eta 2002an inauguratutako 2. linearen (Basauri-Kabiezes) kudeaketa da. 2017ko

apirilaren 8an inauguratutako 3. linearen kudeaketa, berriz, ET sozietateak egiten du. Hiru lineek zerbitzu bakar modura funtzionatzen dute erabiltzaileentzat.

Nahiz eta Barik txartelaren edozein titulu edo erabilera gehigarri integratzeko eskumena BGPrena baino ez den, 3 lerroen zerbitzuak arautzeko eta tarifak behar bezala koordinatzeko, BGP, MBSA eta ETren arteko hitzarmen arautzailea onartu zen, 2016ko apirilaren 26koa eta 2016ko abenduaren 20ko addendak.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Langileen gastuak

1. 2019an aplikatutako berariazko osagarriak % 0,93 gainditzen du legez legokiokeena, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak onartutako % 1aren aldean aplikatu zen % 1,9ko igoera bidegabearen ondorioz (ikus A.3).

BILBOKO METROA SOZIETATE PUBLIKOA S.A.

Langileen gastuak

2. 2019an, MBSAk 10 langileren aldi baterako lan-kontratuak mugagabe bihurtu ditu, MBSAren hitzarmen kolektiboan aurreikusitako barne-sustapeneko prozeduraren bidez, eta, beraz, ez ditu bete enplegu publikorako sarbidea arautzen duten publikotasun-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak.

Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea

3. ATP/ATO seinaleztapen-ekipoak mantentzeko 1,7 milioi euroan esleitu zen laguntza teknikoaren espedientea (16. espedientea), egikaritzen jarraitu da kontratuaren epea 2018ko abenduaren 31n amaitu zela. Kontratu berria indarrean jarri arte, hau da, 2019ko azaroaren 1era arte, 332.968 euroren gastua erregistratu da 2019ko ekitaldian (ikus A.15.5).

Epaitegi honen iritzira, Bizkaiko Garraio Partzuergoak eta Bilboko Metroa S.A. Sozietate Publikoak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete dute 2019ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. BGPren aurrekontuaren likidazioan ez da sartzen abenduko kargaldiei dagozkien Barik txartelen kargaldien ondoriozko diru-sarrerarik, ezta aldi horretako baliozkotzeen gastuak ere, 11,1 eta 9,7 milioi eurorenak, hurrenez hurren (A.4 eta A.8). Gainera, aipatutako diru-sarreretatik 629.472 euro ez dira ondare-kontabilitatean erregistratu.

   Bestalde, ez da erregistratu Barik txartelaren gainerako operadoreen aldeko 2017ko eta 2018ko ekitaldietako garraio-txartelen likidazioa (2019ko azaroaren 29an onartu zena), 1,6 milioi eurorena, ez aurrekontuaren likidazioan, ez ondare-kontabilitatean ere (A.8).

   Aurreko bi lerrokaden baterako eraginak 2019ko abenduaren 31ko diruzaintzako geldikina eta ondare garbia 200.000 eta 945.000 eurotan murriztea dakar, hurrenez hurren.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2. 2019ko abenduaren 31ko BGPren diruzaintzako geldikinak 19,4 milioi euroren zenbatekoa barne hartzen du (20,7 milioi euro, aurreko paragrafoko doikuntzak kontuan hartuta), baliozkotzeko dauden garraio-txartelen saldo metatuei eta 2019ko abenduaren 31n likidatu eta operadoreen artean banatu gabe dauden Barik sistemaren mozkinei dagozkienak. Zenbateko hori zerbitzua emateari lotuta dago, eta, beraz, ez da erabilera librekoa. Doikuntza horrek ondare-kontabilitatean duen eraginak funts propioak zenbateko horretan murriztea dakar (ikus A.7).

   Gainera, 2019ko azaroaren 29an onartutako likidazioan jasotakoaren arabera, Metro Bilbao SAri dagokion 4,1 milioi euroren zenbatekoa Barik sistemaren 2020ko eta 2023ko ekitaldien arteko etorkizuneko garapenen gastu eta inbertsioetara bideratu behar da (ikus A.7). BGPren 2019ko abenduaren 31ko memoriak ez du konpromiso horren berri ematen.

3. BGPk ez dauka ibilgetu materialeko ondasunen inbentario banakakotu eta eguneraturik 2019ko abenduaren 31n, eta, beraz, ezin da egiaztatu bere jardueran erabilitako ondasunen egiazkotasuna eta jabetza, ez eta, beraz, data horretako kontabilitate-erregistro egokia ere.

4. BMSA sozietateak BHT ustiatzeko jardueraren garapenean bere jabetzakoak ez dituen hainbat ondasun baliatzen ditu, BGPrenak edo beste erakunde publiko batzuenak direnak eta egoeraren balantzeko aktiboan jasoak ez daudenak. Horiek erabiltzeak ez dio inolako kosturik eragiten sozietateari.

   Berebat, sozietateak ez du BHT eraikitzeko finantzaketa kontzeptuan inongo kargurik jaso eta bere estatutu sozialen arabera, bere gain hartu behar luke .

   Txosten hau idatzi dugun datan, ezin da zehaztu, hala badagokio, lehen aipatutako kontzeptuengatik sozietateari jasanaraz dakiokeen kostua, ez eta aipatutako ondasunen jabetzaren forma juridikoari eta erabilera-eskubideari dagokionez azkenean hartzen den erabakiak zein eragin izan lezakeen erantsitako urteko kontuetan.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, BGPren, MBSAren eta BGPren Finantza-egoera Bateratuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

III.1.1 LEGE ARAUBIDEA ETA ESTATUTUEN ERREFORMA

BGP sortzen duen abenduaren 30eko 44/1975 Legeak toki-erakunde izaera aitortu zion, eta erakunde mota horiei aplikatu beharreko legezkotasuna egotzi. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen eta Sektore Publikoa Arrazionalizatu eta Administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurriri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legearen lege-aldaketak bateratzen ditu, eta partzuergoak arautzen ditu 118. artikulutik 127. artikulura bitartean.

Lehen aipatutako arau-aldaketek ezartzen dute partzuergo bakoitzaren estatutuetan zehaztuko dela zein administrazio publikori atxikiko zaizkion, araudi horretan ezarritako lehentasun-irizpideei jarraikiz; halaber, agintzen dute partzuergoak atxikita dauden administrazioaren aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidearen mende egongo direla.

40/2015 Legea 2016ko urriaren 2an jarri zen indarrean, eta azken xedapen 17.ean, 1. paragrafoan, urtebeteko epea ezarri zuen lege horrekin bateragarri ez diren estatuko arauak edo autonomikoak egokitzeko. Nolanahi ere, aipatutako azken xedapenak 2. paragrafoan ezartzen du 40/2015 Legea baino lehenagoko lege berezi bidez sortutako partzuergoak euren lege bereziak arautuko dituela harik eta aipatutako araudira egokitzen diren arte.

Hornitzaileei ordaintzeko finantza-tutoretzari, egonkortasunari eta berankortasunari dagokienez, BGP EAEra atxikita dago, eta hala dago jasoa Estatuko Administrazioko Kontu-hartzailetza Nagusiko erakundeen inbentarioan.

Txosten hau idatzi dugun datan, epea 2017ko urriaren 2az geroztik dago amaitua, eta ez da haren sorrera-legearen erreformarik egin, ez eta estatutuen aldaketarik ere, eta, beraz, ez da erabaki zein administraziori atxikiko zaion.

Partzuergoen araubidearen erregulazio berriak oinarrizko araudi izaera du, 40/2015 Legearen azken xedapenetako 14.aren arabera, eta esparru horretan garatu beharko da egokitzapen-legeria berria. Ondorioz, ahalik eta lasterren aldatu behar da BGPren Legea eta haren estatutuak egokitu.

Aldaketarik esanguratsuenek ordainsarien eta langileen kudeaketaren araubideari eragingo liokete; izan ere, muga kuantitatiboak eta kualitatiboak ezartzen dituzte, eta horiek kontuan hartu beharko lirateke arestian aipatutako lege-erreforma egin eta estatutuak egokitu arte. Horri dagokionez, BGPko lanpostu batzuen berariazko osagarriagatiko ordainsariak handiagoak dira beren jarduera finantzatzen eta/edo haien mende dauden administrazioetako antzeko lanpostuei dagozkienak baino.

2016ko urriaren 2az geroztik indarrean dagoen 40/2015 Legearen 121. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioz, BGPren araubide juridikoa atxikitako administrazio publikoak duena izango da, eta haren ordainsariek ezin izango dituzte inola ere gainditu administrazio horretako lanpostu baliokideetarako ezarritakoak. Hori dela eta, gomendatzen da ordainsariak atxikitzen zaion administrazioko lanpostu baliokideetara egokitzea. Era berean, partzuergoen zerbitzuko langileak partaide diren administrazioetatik soilik datozen funtzionarioak edo lan-kontratudunak izan daitezke.

III.1.2 BILBOKO HIRI TRENBIDEARI LOTUTAKO AZPIEGITUREN JABETZA

BGP sortu zuen 44/1975 Legeak, abenduaren 30ekoak, 4.3 artikuluan ezartzen du BHTren sareko azpiegitura lanak amaitu ahala, onetsitako proiektu bakoitzari dagozkionak, horiek BGPri entregatuko zaizkiola eta honen betebeharra izango dela bidea, material mugikorra, elektrifikazioa, osagarriak eta zerbitzua ustiatzeko beharrezkoak diren gainerako gaiak hornitzea, eta horretarako dagozkion proiektuak idatziko dituela.

BGPren Estatutuen 46. artikuluak agintzen du azpiegitura lanak amaitu ahala entregatu egingo direla. Harrera aktak horretarako behar bezala baimendutako bi erakundeetako funtzionarioek izenpetuko dituzte.

Txosten hau jaulki dugun datan gauzatzeke dago BHTri atxikitako ondasunen jabetza juridikoaren eskualdaketa, nahiz BGPren esku utzi diren eta jada bere ibilgetuaren atal diren (ikus A.5 eranskina).

III.1.3 AURREKONTUA

Aurrekontu arrunta eta egikaritza

- Inbertsio errealen kapituluaren exekuzioa, azken aurrekontua 32,9 milioi eurorena izanik, 12,4 milioi eurorena izan da, eta horrek esan nahi du kapitulu honek exekuzio eskasa izan duela (% 37,6), azken urteetakoaren ildotik (ikus A.5). Gainera, azken aurrekontuaren % 58,1 ez da esleitu, eta azpimarratzekoak dira lurreko garraioaren programa (% 48,7) eta garraio-txartelena (% 77,5).

  Aurreikusitako proiektuak behar bezala berrikusi eta presupuestatu behar dira, urteko zenbatekoak aurreikusitako beharren eta benetako jardueren arabera kuantifikatuz, aurrekontua ez desitxuratzeko eta partzuergoko erakundeen baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzeko.

- 2019rako onartutako aurrekontuak korrelazio arrazoizkoa izan beharko luke BGPk 2018an egindako aurrekontu-likidazioarekin eta jarduerarekin, batez ere garraio-txartelen diru-sarreretan eta pertsonaleko, funtzionamenduko, inbertsioetako eta aktibo finantzarioen bariazioko gastuetan (MBSAren galeretarako ekarpenak).

  Honela, bada, onartu beharreko aurrekontua berrikustea gomendatzen da, BGPren benetako behar eta gaitasunetara egokitzeko, batez ere lehen aipatutako kontzeptuei dagokienez, 2019an izandako exekuzio txikia eragin baitute (ikus A.2).

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.4 LANGILERIA

Izendapena

- Diruzainaren lanpostuaren behin-behineko izendapena, titularraren eszedentziagatik, ez dator bat 128/2018 Errege Lege Dekretuaren 52. artikuluan aurreikusitakoarekin, izendatutako funtzionarioa ez baita A1 azpitaldekoa; ELD horrek, gainera, funtzionarioa A1 azpitaldekoa ez bada, aukera ematen du izendapena EAEri eskatzeko, behin-behineko izaeraz, betiere A1 azpitaldekoa bada; halaber, 6. xedapen gehigarrian jasotzen denez, aukera dago BFAren lankidetza-postu bat izatekoa edo lanpostua azkentzeko.

Aurrekontu plantila eta LZ

- 2010. urteaz geroztik, 28 funtzionario-lanpostuko plantilla bat jaso da aurrekontuan; lanpostu horiek bat datoz onartutako lanpostuen zerrendarekin, baina 2019ko abenduaren 31n bete gabeko 5 lanpostu barne hartzen ditu. Aldaketa esanguratsuak gertatu dira BGPren jardueran 2011n BHTren 2. linea abian jartzeko lanak amaitzearekin eta BHTren 3. linea eraikitzeko 2004an ETS sortzearekin; baita 2012an Bizkaiko garraio publikoan Barik kontakturik gabeko txartela eta txartelen modalitate berriak ezartzearekin ere; aldaketa horien guztien ondorioz, gomendagarria da egungo eta epe ertaineko benetako beharrak aztertzea eta aurrekontu-plantilla egokitzea.

Ordainsariak

- BGPko funtzionario batek, duela 17 urte BGPn sartu zenetik, bidegabeki jasotzen ditu hirurtekoak, lehenago administrazio publikoaren mendeko merkataritza-sozietate batean betetako zerbitzuetan oinarrituta; sozietate hori, baina, ez da administrazio instituzionaleko atal, Administrazio Publikoan aldez aurreko zerbitzuak aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legearen 1.2 artikuluaren ondorioetarako, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera.

III.1.5. ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Kontratazio espedienteak

SPKL berria indarrean sartu zenetik 2019an lizitatutako espedienteak ez dira baliabide elektroniko bidez izapidetu eta ez da egin hori justifikatuko duen txostenik (SPKL/ 15.3 XG, 2 eta 3 atalak). Espedienteak berrikustean honako akats hauek azaleratu dira (ikus A.14):

- Guztira 6,7 milioi euroan esleitutako 9 espedientetan ez da formalizatu Europako Kontratazio Agiri Bakarra, eta, horren ordez, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu da, haren baldintzetara egokitzen ez dena (SPKL /140. eta 141. artikuluak).
- BHTren komunikaziorako eta kokapenerako plataforma bateratuaren 2. fasearen hornidura-espedientean (654.000 euroan esleitua), adituen batzordeak ez ditu baldintzak betetzen, proposamena egin duen zerbitzuko teknikari bat barne hartu baitu bere osaeran (SPKLTB / 150.2 artikulua).

III.2 METRO BILBAO S.A.

III.2.1 LANGILERIA

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- Aldi baterako langileak kontratatzeko, oro har, lan-poltsak baliatzen dira eta 2019an aldi baterako 196 kontratazio gauzatu dira (42 pertsona); horietatik 188, 2016an Bezeroentzako orientazioko eta arlo teknikoko lanpostuetarako deitutako aldi baterako lan-poltsakoak ziren, eta 8, 2019an Eremu teknikoko lanpostuetarako aldi baterako kontratazioetarako deitutako lan-poltsa batekoak, etorkizunean mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Poltsa horiek osatzeko, MBSAk enpresa espezializatu bat kontratatzen du egin beharreko proben publikotasuna eta garapena gauzatzeko, eta hautagaien azken zerrenda jasotzen du. Ondoren, MBSAk proba gehigarriak egiten ditu, poltsa barematu bat eratu gabe, eta ez ditu dokumentuetan jasotzen kanpoko enpresak emandako hautagaien artean egindako azken aukeraketaren emaitza arrazoitzen duten haztapenak eta puntuazioak.
- 2019ko abenduaren 31n, plantillak hitzarmenetik kanpoko 5 zuzendari eta 22 burutza barne hartzen ditu eta erdi-mailako 31 agintari eta 52 teknikari, hitzarmenekoak. Zuzendarien, buruzagitzen eta erdi-mailako agintarien lanpostuak izendapen askearen bidez betetzen dira, eta lanpostu teknikoak, berriz, izendapen askearen eta oposizio-lehiaketaren bidez % 50ean, 6 urteko denbora-muga erreferentziatzat hartuta.

  Hitzarmenak hala aurreikusten badu ere, gomendagarria litzateke salbuespenezko izaera aitortzen dieten ezaugarriak eta erantzukizun bereziak berariaz zehaztea lanpostuak betetzeko sistema izendapen askekoa izan dadin, eta ez hitzarmenean ezarritako lehiaketa-sistema orokorra, eta lanpostua betetzeko langilea aukeratu izana justifikatzeko txosten bat egitea. 2019an, hiru langile-izendapen egin dira barne-sustapenaren bidez, izendapen askearen bidez hornitzen diren mailetan.

- 2019ko helburuen araberako ordainsari aldakor ez-finkagarria (277.316 euro) banatzeko Zuzendaritzak finkatutako helburuak BHTren ohiko jardueraren helburu orokorrak dira, eta ez dute loturarik banakako helburuekin.

  Gainera, hitzarmenetik kanpoko mailetarako ez da banakako helbururik ezarri, "Soldata-egitura berria" dokumentuan jasotzen den moduan. Burutzei 14.312 euro ordaindu zaizkie.

III.2.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Espedienteak berrikustean honako akats orokor hauek azaleratu dira:

- Esleipenaren jakinarazpenean ez da zehazten lizitatzaileek erreklamazioak jartzeko aukera (KPLren 101. artikulua eta hurrengoak eta SPKLren 151. artikulua).

Kontratazio-espedienteak (ikus A.15.5)

Kontratazioko 22 espediente aztertu ditugu, guztira 66,2 milioi euroan esleitutakoak, eta honako alderdi hauek nabarmendu ditugu:

- Guztira 28,6 milioi euroan esleitutako 12 espedientetan (2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 15, 19, 20 eta 21 espedienteak), administrazio-klausula partikularren agiriek ez dituzte xehatzen kostu zuzenak, zeharkakoak, bestelako behin-behineko gastuak eta kasua bada, soldaten kostua; honenbestez, ez da justifikatzen lizitazioko oinarrizko aurrekontua merkatuko prezioetara egokitzen denik.
- Guztira 20,6 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (15 eta 20 espedienteak), balio zenbatetsiak ez ditu aintzat hartzen pleguetan jasotako aldaketa balizkoak.
- Guztira 11,1 milioi euroan esleitutako goi-tentsioko energia-horniduraren espedientean 2018-2019 (13. espedientea), ez dago jasota esleipendunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentaziorik aurkeztu duenik.
- Bidearen mantentze-lanetarako espedientean (12. espedientea), kontratu berria esleitzean izandako atzerapenaren ondorioz, aurrekoa iraungi aurretik abiarazi bazen ere, 2019an iraungitako kontratuagatik 232.088 euroren gastuak aitortu behar izan dira.
- 4,7 milioi euroan esleitutako garbiketa-kontratuaren lagapen-espedientean (5. espedientea), ez da egiaztatu enpresa lagapen-hartzailearen kaudimena. Gainera, lagapen-erabakia dokumentazio jakin bat aurkezteari baldintzapetzen zaio, eta espedientean ez dira agertzen ISO 9001 eta 14001 ziurtagiriak, ez eta erantzukizun zibileko poliza ere.
- MBSAren publizitate-espazioak ustiatzeko espedientean, fakturazio garbiaren % 68,5eko kanonarekin esleitutakoan (22. espedientea), kontratazioen salmentaren eta bilakaeraren datu globalei buruzko hiru hilean behingo txostena eskatzen da, euskarri motaren eta iragarlearen arabera, egindako egiaztapenak espedientean jasota utzi gabe; halaber, kontratuak iraun bitartean ere ez da kanpo-auditoretzarik eskatu kontratatutako fakturazioa eta jarduera erreala baliozkotzeko.

Administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastua

- 2019ko ekitaldian zehar, izaera bertsuko ondasun- eta zerbitzu-erosketak egin dira guztira 2,7 milioi euroren zenbatekoan; gure iritzira, aztertu egin behar lirateke horiek, berdindu daitezkeen hornigaiak eta aurreikusgarriak diren zerbitzuak bereiziz, kontratazioa prozedura bakar batean egiteko moduan (ikus A.15.5). Administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastua

IV. INBERTSIO-PLANA, FINANTZA-PLANA ETA EGOERA FINANTZARIOA

IV.1 INBERTSIO-PLANA ETA FINANTZA-PLANA

Inbertsio plana

BGPk Inbertsio-plan bat eta Finantza-plan bat berrikusten eta onartzen du urtero, inbertsio horiei aurre egin ahal izateko. Bai BHTren 1. eta 2. lineetako gainegiturako eta ekipamendu orokorreko proiektuak eta obrak, zeinak BGPren eskumenekoak baitira, bai BHTren azpiegitura-obren kontratazioa eta zuzendaritza, zeinak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eskumenekoak baitira, BGPren aurrekontuaren kontura gauzatzen dira, salbu eta sail horrek ETS erakunde publikoari egindako gomendioz gauzatzen diren azpiegiturako zuzendaritza-obrak, Ibarbengoa aparkalekua esate batera.

2019ko azaroaren 29an, inbertsio- eta finantza-planak eguneratu ziren, eta jarduketa bereziak guztira 171,3 milioi euroren zenbateko metatura aldatu ziren; baita 2020tik 2023ra bitarteko aldirako gauzatzeko zeuden inbertsioak 48,4 milioi euroren zenbatekora.

Hona hemen Inbertsio-planaren xehakapena, 2019ko abenduan metatutakoa eta jada amaitua dagoena, eta 2023 arte egiteke dagoena:

INBERTSIO-PLANA	Euroak milakotan
AMAITUTA	2019KO ABENDUA
I. FASEA San Inazio-Urbinaga eta Bolueta-Etxebarri	268.514
II. FASEA Urbinaga-Portugalete eta Etxebarri-ariz	177.014
III. FASEA Portugalete-Kabiezes eta Ariz-Basauri (indarreko euroak)	412.720
2. LINEA GUZTIRA	**858.248**
2020-2023RAKO AURREIKUSPENA	
III. FASEA Portugalete-Kabiezes eta Ariz-Basauri (indarreko euroak)	10.183
Gaurkotuta (*)	10.594
JARDUERA BEREZIAK (indarreko euroak)	36.350
Gaurkotuta (*)	37.818
EGITEKOA GUZTIRA 2020-2023	**46.533**
Gaurkotuta (*)	**48.412**

(*) Etorkizuneko inbertsioak gaurkotzeko indize bat aplikatzen da, 2020tik 2023ko aldirako % 2 eta % 11 bitartekoa dena.

Egiteke daude 2. linearen III. fasean 10,6 milioi euroren jarduketak eta 37,8 milioi euroren jarduketa bereziak, besteak beste, honako hauek: Barik txartela ezarri eta garatzea, 12,3 milioi euro; aginte-postu zentralizatua Boluetako bidezubia berritzeko, 4 milioi euro; zuntz optikoaren kanalizazioko komunikazioak, 3 milioi euro; eta txarteletan inbertsioak, 2,1 milioi euro.

Finantza-plana

BGPren 2019ko abenduaren 31ko finantza-plana 2019ko azaroaren 29ko Kontseilu Orokorrak onartu zuen eta 2027. urtera bitarteko aurreikuspena barne hartzen du.

BGP sortzeko legeak honako partaidetza hau ezartzen du finantzaketan parte hartzeko: EJ (% 50), BFA (% 25) eta partzuergoko udalek (% 25); alabaina, praktikan, eta BFAren eta EJren artean izenpetutako hitzarmenen arabera, bazkideetako bakoitzak % 50eko finantza-obligazioa hartu behar du bere gain.

Hona hemen Finantza-planaren baliabideak, eragin orokor neutroa duten partzuergoko tituluen sarrerak eta gastuak aintzat hartu gabe, ezta beste sarrera eta gastu txiki batzuk ere:

- Eusko Jaurlaritzaren eta BFAren ekarpenak: 39 milioi euroren ekarpen paritarioak ezarri dira 2020rako, 46 milioi eurorenak 2021erako eta 59 milioi eurorenak 2022rako. 2027ra arteko gainerako epea, 2023rako 34 milioi eurotik 2027rako 9 milioi eurora artekoa da.
- EJk eta BFAk egindako ekarpenak ez dira behar hainbatekoak BGPren jardueratik eratorritako obligazioak finantzatzeko eta honenbestez, beharrezkoa da zorpetze-bidea baliatzea. Zorpetzeko aurreikusi den azken ekitaldia 2020 da -18 milioi euroren zorra-, eta zorpetzearen ondorioak Finantza Plana amaitu bitartera arte luzatuko dira.

  2019rako, 2018ko abenduaren 14ko Kontseilu Nagusiak baimena eman zuen gehienera 24,8 milioi euroren mailegu-eragiketak formalizatzeko, baina ez da inolako zenbatekorik formalizatu.

  2019ko abenduaren 31n Finantza plan metatuaren egoera, partzuergoko tituluak eta bestelako kontu-sail txikiak aintzat hartu gabe honakoa da:

FINANTZA-PLANA 2019KO ABENDUAREN 31N — Euroak milakotan

SARRERAK	PLANA GUZTIRA 2027 ARTE	PLANA 19.12.31 ARTE	PLANA 2020-2027
EJren ekarpena	1.292.780	1.042.470	250.310
BFAren ekarpena	1.292.720	1.042.410	250.310
Zorpetzea	985.880	985.862	18.000
ITURRIAK GUZTIRA	**3.571.380**	**3.070.742**	**518.620**
1. linea	614.200	614.200	-
2. linea	868.842	858.247	10.595
Jarduera bereziak	171.270	133.450	37.820
Zorraren amortizazioa	1.049.730	750.110	299.620
Zorraren interesak	494.590	472.250	22.340
MBSAren transferentziak	383.140	263.140	120.000
BGPren ustiapen gastuak	158.070	117.070	41.000
DESTINOAK GUZTIRA	**3.739.842**	**3.208.467**	**531.375**

2020tik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren eta BFAren ekarpenen xedea finantza-karga, inbertsio-planean aipatutako jarduera bereziak eta inbertsioak finantzatzea, MBSA

mantentzea (15 milioi euro urtean) eta BGP kudeatzeko gastuak (5 milioi euro urtean, gutxi gorabehera) dira.

Berriz egindako zorpetzeak eta BGPren berezko sarrerek osatuko dute 2027ra arte aurreikusitako finantzaketa.

IV.2 FINANTZA-EGOERA

Hona hemen BGPren Aurrekontu Kontuetatik eratorri diren finantza magnitude nagusiak:

Euroak milakotan

	2019	2018
Tasak eta bestelako sarrerak	118.767	104.422
Transferentzia arruntak	58.414	58.299
Ondare-sarrerak	-	-
Langileen gastuak	(1.611)	(1.695)
Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	(117.641)	(104.841)
Gastu finantzarioak	(6.182)	(6.970)
Transferentzia arruntak	(7)	(7)
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA	**51.740**	**49.208**
Kapitalezko dirulaguntzek eragindako sarrerak	19.586	19.870
Inbertsio errealak	(12.401)	(7.900)
Inbertsio errealen besterentzea	-	320
Emandako kapital dirulaguntzak	-	-
KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA	**7.185**	**12.290**
Aktibo finantzarioen bariazio garbia	(14.498)	(12.998)
Pasibo finantzarioen bariazio garbia	(47.455)	(45.142)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	**(61.953)**	**(58.140)**
AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA	**(3.028)**	**3.358**
EKITALDI ITXIEN EMAITZA	-	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	**(3.028)**	**3.358**
DIRUZAINTZA GELDIKINA	**26.876**	**29.904**
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza Geldikina	-	(918)
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak	(2)	(2)
DOITUTAKO GELDIKINA, DIRUZAINTZA LIKIDOA KENDUTA	**26.874**	**28.984**
ZORPETZEA EKITALDI ITXIERAN	**281.656**	**329.111**

Eragiketa arrunten emaitzan gertatu diren aldaketak lotuta daude zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerekin eta zorraren interesen murrizketarekin, zorraren amortizazioarekin bat etorriz.

2018aren aldean kapital-eragiketengatiko emaitzaren murrizketa zor zaio inbertsioak 2019an % 56,9 hazi izanari , nahiz eta egikaritza-ehunekoa oso txikia izan oraindik ere (% 37,6).

Finantziazio-eragiketengatiko emaitzak, nagusiki, 14,5 milioi euroren ekarpena jasotzen du finantza-aktiboen bariazio gisa, MBSAren kapitala handitzeagatik, eta finantza-pasiboen bariazio gisa, 47,5 milioi euroren amortizazioak.

Diruzaintzako geldikina murriztu egin da 2019an, eta 26,9 milioi euro da, nahiz kontuan hartu behar diren Epaitegi honek proposatutako doikuntzak, erabilgarritasunean eragina dutenak.

MBSA sozietateak 11,9 milioi euroren emaitza negatiboa izan du 2019an, aurreko ekitaldian baino % 3,7 handiagoa. Bilakaera hori, funtsean, langile-gastuak % 6,5 handitzearen ondorio da, negozio-zifraren zenbateko garbia % 3,5 handitu arren.

MBSAren 2019ko ekitaldiko urteko kontuen memorian adierazten den bezala, COVID-19 koronabirusak eragindako epidemiak Bizkaian izan duen eraginak MBSAren 2020ko kontuetan izan du eragina. Ildo horretan, 2020ko ekitaldiaren itxierako estimazioaren arabera, eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak % 34,9 murriztu dira 2019ko ekitaldiaren aldean, izan ere % 38,9 murriztu da egindako bidaien kopurua eta eragiketa arruntengatiko gastuak ere % 0,9 murriztu dira aurreko ekitaldiarekin aldean. 2020ko ekitaldirako aurreikusitako emaitzak 34,8 milioi euroren galerak izatea aurreikusi da.

ONDORIOA

BGP Eusko Jaurlaritzaren eta BFAren mende dago, gastu arruntaren, inbertsioaren eta zorpetzearen finantza-kargaren jarduera finantzatzeko. Finantza Planak 2027ra arteko ekarpenak aurreikusten ditu eta urte horretan zorra amortizatzen amaituko dela aurreikusi da.

2019ko azaroaren 29an onartutako 2019ko itxieran indarrean dagoen inbertsio-planak aurreikusten du 2021ean amaituko direla inbertsio-planean jasotako jarduera bereziak.

2020tik aurrera, apenas geratzen den gauzatu beharreko inbertsiorik, eta Eusko Jaurlaritzaren eta BFAren ekarpenak finantza-karga finantzatzera, Inbertsio-planean aipatutako jarduera berezietara, MBSAren mantentze-lanetara (15 milioi euro urtean) eta CTBren kudeaketa-gastuetara bideratzen dira, batez ere partzuergoko tituluen sistemara (5 milioi euro urtean).

Hurrengo urteetan ez da aurrekontuan BGPn egiteko inbertsio esanguratsurik jaso, eta Barik Txartelaren jardun-eremu eta laguntza teknikoen azpi-kontratazio bidezko garapena dira zeregin nagusiak.

EAEko trenbide-azpiegituren eskumenak ETS erakundeari dagozkio. ETS Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari atxikia dago, eta 6/2004 Legeak berariaz sortu zuen. Gainera, bere sorrera-legearen 2. xedapen gehigarriarekin bat etorriz, bere gain hartzen du BHTren linea berriak eraikitzea eta haren ondasun guztiak kudeatzea, zeinak BGP titularra den trenbide-azpiegitura osatzen baitute.

Bestalde, 2017an Bizkaiko Mugikortasun Agintaritza sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren, BFAren, BGPren eta Bilboko Udalaren ordezkaritzarekin, Bizkaiko garraio publikoa antolatzeko, hurrengo hamarkadan lurraldeko garraio-sarea optimizatuko duen plan estrategiko baten bidez. Halaber, BGPk 2018-2028 aldirako Bizkaiko garraio publikoaren Plan Estrategikoa eskatu dio aholkularitza enpresa independente bati 2019an.

Kontuan hartuta garraioak azken urteotan izan duen bilakaera eta antolaketa aldakorra, BGPk sortu zenean izan zuen helburuari dagokionez egungo jarduerak izan duen aldaketa eta estatutuak nahitaez egokitu beharra, 2017az geroztik iraungia baitago, beharrezkoa da BGPren egungo egoera eta Bizkaiko garraio publikoaren sistemaren antolaketan izango duen etorkizuna aztertzea.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK 2019

V.1 BGP-REN URTEKO KONTUAK

V.1.1 BGP-REN AURREKONTUKO KONTUAK

A. 2019KO AURREKONTU ARRUNTAREN LIKIDAZIOA — Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	Eranskina	AURREKONTUA HASIERAKOA	ALDAK. (*)	BEHIN BET.	ESKUBIDE KITATUAK	KOBRAN.	KOBR. GABEA
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.8	126.638	-	126.638	118.767	118.560	207
4.- Transferentzia arruntak	A.9	58.579	-	58.579	58.414	58.414	-
5.- Ondare sarrerak		-	-	-	-	-	-
6.- Inbertsioen besterentzeak		-	-	-	-	-	-
7.- Kapitalezko transferentziak	A.9	19.687	-	19.687	19.586	19.586	-
8.- Aktibo finantzarioen aldak.		60	6.171	6.231	2	2	-
9.- Pasibo finantzarioen bariazioa	A.10	24.750	-	24.750	-	-	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		**229.714**	**6.171**	**235.885**	**196.769**	**196.562**	**207**

(*) Ikus A.2

GASTUAK	Eranskina	AURREKONTUA HASIERAKOA	ALDAK. (*)	BEHIN BET.	OBLIGAZIO ZORPETUAK	ORDAINKETAK	ORDAIN. GABEA
1.- Langileria-gastuak	A.3	2.118	2	2.120	1.611	1.586	25
2.- Ondasun arrunt. eta zerb. erosk.	A.4	128.508	620	129.128	117.641	116.707	934
3.- Gastu finantzarioak	A.10	7.042	-	7.042	6.182	4.928	1.254
4.- Transferentzia arruntak		8	-	8	7	7	-
5.- Kreditu globala		71	-	71	-	-	-
6.- Inbertsio errealak	A.5	27.437	5.549	32.986	12.401	12.021	380
8.- Aktibo finantzarioen aldak.	A.6	17.060	-	17.060	14.500	12.325	2.175
9.- Pasibo finantzarioen bariazioa	A.10	47.470	-	47.470	47.455	47.455	-
GASTUAK GUZTIRA		**229.714**	**6.171**	**235.885**	**199.797**	**195.029**	**4.768**

(*) Ikus A.2

B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA — Euroak milakotan

	ZORRA HASIERAKOA	BALIOG.	KOBR./ ORDAINKETAK	AZKEN ZORRA
Zordunak	2.165	-	2.163	2
Hartzekodunak	9.872	-	9.872	-

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2019	Eranskina	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak		196.769
Obligazio aitortuak		(199.797)
EKITALDI ARRUNTAREN EMAITZA		**(3.028)**
Ekitaldi itxien bariazioa		-
EKITALDI ITXIEN BARIAZIOA		-
AURREKONTUAREN EMAITZA	A.13	**(3.028)**
AURREKONTU EMAITZARI DOIKETAK		
Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako oblig.		3.617
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA		**589**

D. DIRUZAINTZA GELDIKINA 2019		Euroak milakotan
Aurrekontu arruntetik kobratzeko dauden eskubideak		207
Aurrekontu itxietatik kobratzeko dauden eskubideak		2
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik kobratzeko dauden eskubideak	A.11	158
Indarrean den ekitaldiko ordaintzeke dauden obligazioak		(4.768)
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik ordaintzeko dauden obligazioak	A.11	(344)
Ekitaldi itxieran Diruzaintza funts likidoak	A.7	32.250
Aplikatzeko dauden kontu-sailak (eskudiruzko sarrerak banku-kontuetan, aplikatu gabeak)	A.12	(629)
DIRUZAINTZA GELDIKINA 19.12.31n		**26.876**
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza Geldikina		-
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak		(2)
DOITUTAKO GELDIKINA, DIRUZAINTZA LIKIDOA KENDUTA 2019.12.31N		**26.874**

E. ZORRAREN EGOERA 2019		Euroak milakotan
Maileguak eta kredituak	A.10	281.656
INDARREKO ZORRA 2019.12.31N		**281.656**

F. KONPROMISO KREDITUAK 2019.12.31N					Euroak milakotan
	2020	2021	2022	2023	GUZTIRA
Inbertsio errealak	9.809	438	72	12	10.331
Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	3.406	2.036	1.092	306	6.840
Langileen gastuak	50	10	-	-	60
GUZTIRA	**13.265**	**2.484**	**1.164**	**318**	**17.231**

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

V.1.2 BGP-REN ONDARE-KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEA 2019 eta 2018ko abenduaren 31n — Euroak milakotan

AKTIBOA	Eranskina	2019	2018	PASIBOA	Eranskina	2019	2018
IBILGETUA		**722.313**	**752.589**	**ONDARE GARBIA**		**462.676**	**451.297**
Ukiezina	A.5	1.567	1.848	ONDAREA		24.080	24.080
Materiala	A.5	686.260	723.461	Ekitaldi itxien ondorioak		429.562	414.414
Abian dagoen materiala	A.5	9.824	5.183	EKITALDIKO EMAITZA		14.751	15.148
Inbertsio finantz. taldeko enpr.	A.6	24.662	22.095	Balio aldaketagatiko doiketak	A.10	(5.828)	(2.477)
Finantza Inbertsioak		-	2	Emaitzetara egozteko dirulag.		111	132
				PASIBO EZ-ARRUNTA		**237.842**	**284.133**
				Epe luzeko zorrak	A.10	237.842	284.133
AKTIBO ARRUNTA		**43.458**	**50.988**	**PASIBO ARRUNTA**		**65.253**	**68.147**
Kudeaketa eragiketeng. zord.		207	2.163	Kreditu entitateekiko zorrak	A.10	49.643	47.455
Kobratzeko bst. kontu btz.		10.662	10.127	Epe motzeko bestel. zorrak	A.12	1.373	1.550
Administrazio publikoak		50	292	Kudeaketa eragik. hartzekod.	A.12	11.163	16.065
Aldi bateko finan. inberts.		1	2	Ordaintzeko bst. kontu batz.	A.12	2.939	2.983
Aldizkatzeagatiko doikun.		288	127	Erak. publiko hartzekodunak	A.12	135	94
Diruzaintza	A.7	32.250	38.277				
AKTIBOA, GUZTIRA		**765.771**	**803.577**	**PASIBOA, GUZTIRA**		**765.771**	**803.577**

B. 2019 eta 2018ko ekitaldien GALERA-IRABAZIEN KONTUA — Euroak milakotan

	Eranskina	2019	2018
Jasotako transf. eta dirulaguntzak	A.9	78.096	78.163
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa		119.310	114.306
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.		32	10
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		**197.438**	**192.479**
Langileen gastuak		(1.613)	(1.764)
Hornikuntzak		(115.178)	(109.325)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.		(4.033)	(2.871)
Ibilgetua amortizatzea	A.5	(43.736)	(44.892)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		**(164.560)**	**(158.852)**
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA		**32.878**	**33.627**
Ibilgetu ez finantzarioaren balio-narriadura eta besterengan. emaitza		(11)	(9)
Arruntak ez diren beste partida batzuk		-	11
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA		**32.867**	**33.629**
Sarrera finantzarioak		-	-
Gastu finantzarioak	A.10	(6.182)	(6.970)
Balioaren narriadura, bajak eta aktibo eta pasibo finantzarioen bester.	A.6	(11.934)	(11.511)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		**(18.116)**	**(18.481)**
EKITALDIKO EMAITZA		**14.751**	**15.148**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2019	2018
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	**14.751**	**15.148**
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERAK ETA GASTUAK		
Gastuen kontularitzako estaldurak.....	(3.351)	6.982
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	**(3.351)**	**6.982**
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURA TRANSFERENTZIAK GUZTIRA		
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	(21)	(20)
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	**(21)**	**(20)**
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	**11.379**	**22.110**

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA					Euroak milakotan
	ONDAREA	ONDAREA SORTUTAKO	DOIKETAK BALIO K.	DIRULAG. DOH. ETA LEGATUAK JASOAK	GUZTIRA
2018KO EKIT. AZKEN SALDOA	**24.080**	**429.562**	**(2.477)**	**132**	**451.297**
Diru-sarr. eta gastu aitortuak guztira	-	14.751	(3.351)	(21)	11.379
2019KO EKIT. AZKEN SALDOA	**24.080**	**444.313**	**(5.828)**	**111**	**462.676**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA — Euroak milakotan

	2019		2018	
KUDEAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK		**69.410**		**71.588**
A) KOBRANTZAK		224.859		206.762
Jasotako transf. eta dirulaguntzak	78.000		78.169	
Zerbitzu-emakida	120.723		106.216	
Interesak eta dibidenduak	-		-	
Bestelako kobrantzak	26.136		22.377	
B) ORDAINKETAK		155.449		135.174
Langileen gastuak	1.612		1.692	
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	7		7	
Bestelako kudeaketa gastuak	121.462		103.887	
Ordaindutako interesak	6.273		7.140	
Beste ordainketa batzuk	26.095		22.448	
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK		**(28.090)**		**(19.478)**
C) KOBRANTZAK		2		322
Inbertsio errealen salmenta	-		320	
Aktibo finantzarioen salmenta	2		2	
D) ORDAINKETAK		28.092		19.800
Inbertsio errealen erosketa	13.817		6.875	
Aktibo finantzarioen erosketa	14.275		12.925	
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK		**(47.455)**		**(45.928)**
E) PASIBO FINANTZAR. JAULKITZEAGATIKO KOBRANTZAK		-		-
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	-		-	
F) PASIBO FINANTZARIOAK ITZULTZEAGATIKO ORDAINKETAK		47.455		45.928
Jasotako maileguak	47.455		45.928	
SAILKATZEKO DAUDEN ESKUDIRUZKO FLUXU GARBIAK		**108**		**521**
G) APLIKATZEKO DAUDEN KOBRANTZAK		209.874		197.022
H) APLIKATZEKO DAUDEN ORDAINKETAK		209.766		196.501
ESKUDIRUEN EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA		**(6.027)**		**6.703**
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran		38.277		31.574
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran		32.250		38.277

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

V.2 MBSA-REN URTEKO KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEA 2019 eta 2018ko abenduaren 31n — Euroak milakotan

AKTIBOA	Eranskina	2019	2018	PASIBOA	Eranskina	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA		**16.941**	**16.935**	**ONDARE GARBIA**	A.15.1	**22.487**	**20.145**
Ibilgetu ez-materiala	A.15.2	405	509	Eskrituran jasotako kapitala		35.073	32.398
Ibilgetu materiala	A.15.2	16.135	15.978	Jaulkipen prima		117.036	105.436
Finantza inbertsioak epe luzera		401	448	Erreserbak		12.717	12.717
				Aurreko ekitaldietako emaitzak		(130.406)	(118.895)
				Ekitaldiko emaitza		(11.933)	(11.511)
				PASIBO EZ-ARRUNTA	A.15.3	**1.293**	**1.215**
				Epe luzeko hornidurak		1.293	1.215
AKTIBO ARRUNTA		**25.267**	**21.563**	**PASIBO ARRUNTA**		**18.428**	**17.138**
Izakinak		2.393	2.324	Epe motzeko zorrak		1.633	2.144
Merkataritzako zord. eta beste kontu batzuk		2.058	2.475	Taldeko eta elkart. enpr. zorrak		754	652
Finantza inbertsioak epe motzera		4.001	12.000	Merkatar. hartz. eta beste		14.531	12.850
Aldizkatzeak epe motzera		100	102	Aldizkatzeak epe motzera		1.510	1.492
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.		16.715	4.662				
AKTIBOA, GUZTIRA		**42.208**	**38.498**	**ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA**		**42.208**	**38.498**

B. 2019 eta 2018ko ekitaldien GALERA-IRABAZIEN KONTUA — Euroak milakotan

	Eranskina	2019	2018
Negozio zifraren zenbateko garbia		65.145	62.941
Bestelako ustiaketa-sarrerak		1.940	1.914
Langileen gastuak	A.15.4	(40.205)	(37.721)
Hornikuntzak		(2.137)	(2.024)
Ustiapeneko beste gastu batzuk		(34.652)	(34.823)
Ibilgetua amortizatzea		(2.052)	(1.897)
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza		(59)	(14)
Beste emaitza batzuk		70	87
USTIAPENAREN EMAITZA		**(11.950)**	**(11.537)**
Sarrera finantzarioak		17	26
EMAITZA FINANTZARIOA		**17**	**26**
EMAITZA ZERGA AURRETIK		**(11.933)**	**(11.511)**
Mozkinen gaineko zerga		-	-
EKITALDIKO EMAITZA		**(11.933)**	**(11.511)**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2019	2018
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	**(11.933)**	**(11.511)**
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERAK ETA GASTUAK	-	-
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURA TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	-	-
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	**(11.933)**	**(11.511)**

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA	Euroak milakotan
	GUZTIRA
2018KO EKITALDIKO AZKEN SALDOA	**20.145**
> *"Artikulu honetako aurreikuspenak urratzeari dagokionez: 2006ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 19. artikuluaren arabera, alde batetik, ohartarazi behar da,* ***Auzitegi Gorenaren doktrina errepikatuaren arabera,*** *ordainsari-mugak* ***globalki haztatu behar direla,*** *talde bakoitzaren ordainsarien guztizko bolumenaren arabera, eta ez banaka, eta, nolanahi ere, 2. zenbakiak gehieneko muga kuantitatiboa ezartzen badie korporazioaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei, 4. zenbakiak eskatzen du* ***muga hori salbuespenezko homogeneotasun-baldintza batzuen arabera gainditzearen aukera, eta salbuespenezko homogeneotasun-baldintza gisa ezartzea, ildo horretan, jurisprudentziak eskatu izan du aipatutako manuan jasotako homogeneotasuna*** *balioesteko arrazoia eta egitatea zehaztu behar direla, bertan ezartzen den ordainsari-muga bete dadin eta ordainsari-igoera izan duten lanpostuak daudela egiaztatu ahal izateko, nahiz eta haien egoera ez den aldatu (Auzitegi Gorenaren 20/2003 epaia, oro har).* "

Horregatik, aurrekontu-mugek alderdi kuantitatiboari ez ezik, alderdi kualitatiboari ere egin beharko diote erreferentzia; bestela, ezingo litzateke egin arauak eskatzen duen homogeneotasuna egiaztatzeko judizioa. Muga langile-taldeari dagokion kredituaren zenbateko orokorrari buruzkoa izango da, eta lehendik dauden lanpostuak kontuan hartuta, horien arabera egin beharko da dagokion konparazioa, ordainsari-aldaketarik egon den ala ez identifikatuz, eta zein diren hori justifikatzen duten arrazoiak; bestela, Auzitegi Gorenak adierazten duen bezala, ezingo litzateke epaiketa/konparazio hori egin, antzekotasunak sistematikoki bilatzeko prozesu logiko hori ez baita kontuan hartu beharko, eta gertakaria ez baita aintzat hartu beharko.

2017an **lanpostu guztien gutxieneko ordainsari berezien egokitzapenak egin ziren** (Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren -aurrerantzean, HKEE- txosteneko aldakuntza ehunekoa batez bestekoa da) eta Bizkaiko Garraio Partzuergoko (aurrerantzean, BGP) ez-ohiko egoera bati lotuta daude.

Data horiek garrantzi handiko gertaerak izan ziren BGPn, eta Partzuergoko lanpostuen eginkizunen edukia handitzea ekarri zuten: Gipuzkoako MUGI eta Arabako BAT txartelak EAEko modu guztietan erabiltzeko interoperabilitate-proiektuari ekin zitzaion, Barik txartelaren birtualizazioa hainbat modutan telefono mugikorretan egiteko plangintza egin zen, Urdulizen trenbidearen trazadura lurperatzen ari zen, eta Bizkaiko Mugikortasun Agintaritza eratu zen (BGPren barruan), Metroaren trazaduran zaraten eta bibrazioen aurkako ekintza-planari ekin zitzaion (gaur egun amaitzen ari diren lanak), Metroren 3. linea

martxan jarri zen (2017ko apirilaren 8an). Linea hori jarduten du sozietate berri batekin (lehengo 2 linea beste sozietate desberdin batek jarduten ditu), baina BGPk jarduketa guztiak egin behar ditu herritarrak Metro sistema hori (L1, L2 eta L3) har dezaten sistema bakar gisa bi sozietaterekin (Euskotrenbideak, S.A. eta Metro Bilbao, S.A.). Gainera, 2017ko martxoan, BGPk BIDAI 50, BIDAI 70 eta GAZTE 70 aldi baterako txarte multimodal berriak kaleratu zituen, bidai mugatuetan; eta BIDAI ORO eta GAZTE ORO, mugagabeetan. 2017ko apirilean, Urdulizko metro-geltokia berriro ireki zen, trenbide-pasagunea behin betiko kendu ondoren. Uztailean 2018-2028 aldirako Bizkaiko Mugikortasunaren Plan Estrategikoa kontratazioa hasi zen, Bizkaiko garraioaren jarduerak planifikatzeko etorkizun hurbilerako. 2017ko azaroan, Garraio Publikoaren Bulegoen Sare Integrala jarri zen martxan. Bezeroari arreta emateko hamaika bulego ditu, leihatila bakarreko gisa. Bertan, BGPk Bizkaiko lurraldean garraioari buruz aurkezten duen oinarrizko informazio guztia antolatzeko, prestatzeko eta zentralizatzeko. Hala, lehen garraiobide bakoitzak bere informazio partikularra aurkezteari uzten dio, eta horren ordez informazio integralera aurkezten da, BGPK koordinatzen baitu, dauden garraio mota guztien gainean.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da jarduketa horiek bat datozela Aurrekontuen Legearen aurreikuspenekin; izan ere, homogeneotasunari dagokionez (Legeak eskatzen duen bezala), ordainsarien guztiak murriztu egin ziren, eta horrela dokumentatu da aurreko ataletan egindako oharrekin. Urte hartako langileen berariazko osagarria egokitu egin zen, lanpostuen balorazio bat egin zelako eta, ondorioz, lanpostuen zerrenda eta plantilla berri bat onartu zelako. Zerrenda horretan, balorazio horri egokitutako zenbateko berriak sartu ziren. 2017an egindako berariazko osagarriaren egokitzapenak 5.066,88 euroko guztizko zenbatekoa ordaintzea ekarri zuen, adierazitako **murrizketen barne geratu zena,** beraz, ez da nabaria materialtasuna kontuan hartzerakoan.

HKEEk egiten duen iruzkinaren oinarriak ez du arrazoirik ezta justifikaziorik ere. Ez daki, beraz, ordainsari-igoera aipatutako ehunekoaren gainetik ezarri zela, eta araudiak nahiz eta mugak ezarri, administrazio guztiek aukera dutela egoera zehatzei erantzuteko; izan ere, horrek LPZ berrikustea ekarri zuen BGPren kudeaketa-egoera berrira egokitzeko. Ahalmen hori ez zen indargabetu, ezta salbuetsi ere, % 1eko ordainsari-igoeraren muga ezartzeagatik. Gainera muga hori BGPk ez zuen gainditu modu global batean.

Egokitzapen horiek ezinbestekoak izan ziren, izan ere, **lanpostuetako edukia etengabe gehitzen ari zen eta langile kopurua eta partzuergoaren helburuen lorpena etengabe gutxitzen ari ziren** (txostenean justifikatu den moduan eta aurrekoan adierazi diren moduan); hori guztia ezin hobeto egokitzen da 2017rako Estatuaren aurrekontu orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legean, zeinak 18 zazpi artikuluan hauxe xedatzen duen: *aurreko apartatuetan xedatutakoa* (apartatu horretan arautzen dira kontuan hartu beharreko alorra, ordainsariak, pentsio planetarako ekarpenak, soldata masa, lansariak, hirurtekoak eta ez-ohiko ordainketak edo titulazio taldeak) *kontuan hartu behar da albo batera utzi gabe modu berezi eta salbuespenezkoan lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzean esleitutako langile kopuruen aldakuntzagatik edo programaren helburuen lorpen mailagatik ezinbestekoak diren ordainsari egokitzapenak.*

Adierazi behar da 2018an ez dela ordainsari-egokitzapenik egon, ezta 2019an ere (aurrerago zehazten den 2 BGPren sailen berregitura izan ezik), 2020an eta 2021eko daramagun urtean ere ez direla egin.

2019an zorroztasunez betetzen hasi ziren alor horretako araudia eta, modu horretan, urteko gehikuntza %2,25ekoa izan zen eta uztailetik aurrera % 0,25 gehitu zen, **24/2018 Legegintza Errege Dekretuan**, 2019rako ordainsarien larrialdiko aurrekontu neurriei buruzko Eusko Legebiltzarraren 2/2019 Legean eta 2019ko ekainaren 21eko Ministroen Kontseiluaren erabakian ezarrita dagoen moduan; azken horretan, uztailetik aurrera % 0,25eko gehikuntza osagarria ezartzea onetsi zen sektore publikoko langileen ordainsarietan, izan ere, EINek ziurtatu zuen 2018ko BPGd-aren aldakuntza tasak **24/2018 Legegintza Errege Dekretuan** xedatutako % 2,5eko kopurua gainditu zuela. Hori guztia Eusko Legebiltzarrak irailaren 10eko 74/2019 Ebazpena onetsi ondoren gauzatu zen. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Batzordeak erabakitako % 0,25eko gehikuntza osagarria argitaratzea xedatu zen.

Partzuergo honetan EZ da aplikatu aipatutako araudiak baimendutako soldata masaren % 0,25eko gehikuntza osagarria; gehikuntza hori, era berean, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko planak edo proiektuak ezartzeko, zeregin bateragarriak zituzten lanpostuen arteko berariazko osagarriak berrikusteko, lanpostu mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio planetarako ekarpenak egiteko zen.

Erakunde honetan izapideturiko espedientea eta horren balorazio txikia lanpostuen zerrendan jarrita, zegokion justifikazioarekin batera, Kontseilu Nagusiak onetsi zuen, inguruko beste erakunde batzuetan egiten den moduan eta 2006ko urriaren 19an Iruñean bildu ziren kontuen autonomia erkidegoetako epaitegietako **OCEXen presidenteen deklarazioan** ezarritako irizpideak betez. Bilera horretan, funts publikoen kontrol egoerari buruzko agiri bat eta **"Iruñeko Deklarazioa"** izeneko dokumentua sortu zuten. Bertan jaso zen "langileen kudeaketan eragin nahi zutela erakundeen aktibo garrantzitsuena direlako" eta "kudeaketa hori garai berrietara egokitu behar dela uste dutela" adierazi zuten eta horretarako, **"langile publikoen motibazioa eta prestakuntza sustatu behar direla eta ordainsariei lotutako helburuak ezarri behar direla.** Azken finean, administrazioetan ere lan ona eta gogo hobea saritzea zen xedea eta, horrela, erakunde publikoen ezaugarria izan behar den lan onarekiko estimulua gehitzea".

Gainera, kontuan hartu behar da BGPko langileen jarduerak Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioen enplegu-baldintzak arautzen dituen akordioan ezarritakoaren arabera egin zirela. Akordio hori Partzuergoko langileei aplikatu behar zaie, Kontseilu Nagusiak 2016ko abenduaren 19an hartutako erabakiarengatik (5. puntua).

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostena jaso ondoren, eta egungo eta epe ertaineko *benetako beharrak aztertzeko gomendioa kontuan hartuta, eta LPZ eta aurrekontu-plantilla horien arabera egokitzeko* gomendioa aintzat hartuta, Partzuergo honek jarraian adierazten diren jarduerak egin ditu 2015etik hona erakunde honetan egiten ari den eraldaketari erantzuteko:

- Alde batetik, BGPko antolamendu analisiarekin eta lanpostuen balorazioarekin osatutako katalogo luzea egin zen (2018/39 espedientea), eta bertan jasota daude baita ere

lanpostuen ebaluazioa eta ordainsarien balorazioa, ordainsari-igoera bakar bat ere ekarri gabe. Jarduketa horren espedientearen onarpenaren zehaztasuna gehitu da justifikazioa egiteko.

- Bestalde, BGPren jarduketetarako ezinbestekoak diren bi sailetako (zerbitzu orokorrak ez diren hiruetatik bi) egitura guztiz aldatu zen. Aldaketa hori 2019ko apirilaren 9ko Kontseilu Nagusiaren bileran onetsi zen (12. puntua). Horren bitartez, aurretik 2 zerbitzu zirenak zerbitzu bakarrean batu ziren, hau da, **Ekonomia eta Finantza Planifikazio eta Azterketa Zerbitzua eta Tarifen Kudeaketa eta Koordinazio Zerbitzua** Finantza Planifikazio eta Tarifa Integrazioko Zerbitzuan batu ziren. Horrez gain, hiru lanpostu amortizatu ziren, lanpostu berri bat sortu zen eta beste lanpostu bateko zereginak aldatu ziren zegokion balorazioarekin. Balorazio hori enpresa kualifikatu independente batek egin zuen, horrelako lanak egiten aditua denak. Hala, **hiru lanpostu hauek** amortizatu ziren: EKKren kudeaketa buruzagitza (LPZko 20. zk), EKKren goi-mailako teknikaria (LPZko 21.zk) eta EKKren erdi-mailako teknikaria (LPZko 27. zk). Lanpostu berri bat sortu zen (alegazio hauek egin zirenean bete gabe zegoena), Komunikazioko eta IKTetako goi-mailako teknikaria izenekoa (A1 taldea, administrazio bereziko eskala eta azpieskala teknikoa), erabaki horretako lanpostuen zerrendan xedatutako atxikipenarekin, mailarekin, hornidura sistemarekin, titulazio betekizunekin, hizkuntz profilarekin eta berariazko osagarriarekin, eta azkenik, Planifikazio eta Ekonomia eta Finantza Azterketen Zerbitzuko buruaren zereginak aldatu ziren erabaki horren dagokion lanpostuen zerrendan zehaztutako terminoetan eta zegokion balorazioarekin.
- Gainera, tokiko sektore publikoko erakundeen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen araudi berriarekin, 2019rako finantza kontroleko urteko planean aurreikusi zen moduan, beharrezko auditoretza lanak egin ziren elkarte independente baten bitartez. Elkarte horrek, adostutako prozesuaren bidez BGPko langileen gastuen espedienteak eta ordainsarien politika berrikusi zituen. Bertan, bete beharreko auditoretzan jasotako iritzia agertzen da: 2019ko berrikuspenaren emaitzaren arabera, *ez zegoen aipatu beharreko gorabeherarik.*
- Bukatzeko, produktibitatea neurtzeko espedienteetan egin beharreko prozeduretarako laguntza kontratatu zen (2019/107 espedientea), **baina ez zen erabili.**

BGPn kontuen berri ematen da oso-osorik eta epeak betez (osasun krisiaren ondoriozko alarma egoerako itxialdian baita ere) eta HKEEren gomendioak zorroztasunez betetzen dira, jakina, Bizkaiko Garraio Partzuergoari ez, baizik eta beste erakunde batzuei dagozkien gomendioak izan ezik.

Partzuergo honetan eredu egokia ematen ari gara Giza Baliabideen Plana **urteko ordainsarien zenbatekoa gutxitzeko** erabiltzen dugulako, Balorazio Batzordea aktibatu dugulako eta neurriak ezarri ditugulako plantilla gaztetzeko eta gutxitzeko. Deigarria da 2019ko ekitaldiko ordainsarietan aldakuntzak bilatzeko erabilitako erreferentzian 3 urteko kopuruak atzeratu behar izana berrikusitako ekitaldiarekin alderatuz (2017ra arte). 2018an argitaratu zen BGPren egindako azken fiskalizazioan (langileen ordainsarien aldakuntza zehazteko egin zena), analisian fiskalizatutako urtea (2016) aurreko urtekoarekin alderatu zen (2015).

Hala ere, aurretik adierazitako langileen gastuen gutxitzeetan oinarrituta eta aipatutako jarduketekin egindako fiskalizazioko emaitzen jarraipena gauzatu ondoren egiaztatu da BGPk HKEEk 2018an aipatutako gomendioak bete dituela.

HKEEren oharretan berariazko osagarria soilik aipatzen den arren, **bestelako ordainsari kontzeptu batzuetan ere gutxitu egin dira 2019ko BGPko ordainsariak 2018koekin alderatuz** ikusi erantsitako oinarrizko ordainsariak edo langileen antzinakotasun osagarriak kontabilitateko egiaztagiriekin.

2018an gutxitu egin ziren baita ere berariazko osagarriaren ordainsariak 2017koekin alderatuz (gainera, gutxitu egin ziren oinarrizko ordainsariak, lanpostu mailako osagarria, eta abar.).

Era berean, **2019ko lansari eta soldaten I. KAPITULUAN onartutako betebeharren zenbateko guztia** (1.610.356,31 euro) **2018koa baino gutxiagokoa da (1.694.420,99 euro). Hau da, 84.064,68 euroko GUTXITZE nabarmena** egon da BGPko aurreko urteko lansariekin eta soldatekin alderatuz (urte bakoitzeko langileen gastuen kapituluan onartutako betebeharrak jasotzen dituzten kontabilitate agiriak atxiki dira).

2018. urtea, I. kap.: 1.694.420,99 euro.

2019. urtea, I. kap.: 1.610.356,31 euro.

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEN IRITZIA

1. BGPren aurrekontuaren likidazioan ez daude abenduko Barik txartelen kargatzeen diru-sarrerak ezta aldi horretako balidazioen gastuak jasota, hurrenez hurren, 11,1 eta 9,7 milioi eurokoak (A4 eta A8).

ALEGAZIOA

Gure ustez, HKEEk adierazi behar du **zuzentasunez ikuskatutako KONTABILITATE DATUEN** 12 hilabeteei dagokien diru-zaintza gordekinaren kalkuluarekin batera, BGPren **2019ko aurrekontuaren likidazio dokumentazioan** zuzentasunez adostutako BGPren agiri bat dagoela diru-zaintza gordekinari eta aurrekontu emaitzari buruz 2019ko 12 hilabeteetako Barik tituluen datuekin eta, beraz, 2019ko abenduko jarduketen datuak (diru-sarrerak eta gastuak) fiskalizatutako urteko likidazioaren espedientean 2019ko datu guztiekin jakinarazi direla (2019ko likidazio espedienteko agiria atxiki da orrialdearen erreferentziarekin aurkitzeko espedientean-155. orrialdean).

Agiri hori eta bere bateragarritasuna erakunde fiskalizatzaileak berrikusi ditu BGPren lankidetzarekin, izan ere, BGPk gehitutako eta ezabatutako zenbatekoak, eragiketen zeinuak, eta abar jakinarazi dizkio, eta agiri hori sortu da ekitaldiko datu propioen azalpen hobea izateko (HKEEk egindako jarduketen kopia eta excell artxiboa gehitu dira).

Gainera, BGPren likidazioan eta aurrekontu kontabilitateko erregistroetan 12 hilabeteko diru-sarrerak eta gastuak daude jasota, 2018ko abendutik (datu horiek ere ezin izan ziren ekitaldi horretan kontabilizatu) 2019ko azarora artekoak. Argi azaldu behar da BGPren

kontuetan 12 hilabeteak jaso direla, partzuergoko tituluak sortu zirenetik (1997an) kontuetan erregistratzen diren moduan. Jarraikortasun printzipioaren arabera, lan egiteko modu hori gaur egunera arte mantendu da inolako iritzirik jaso gabe, HKEErena salbu.

Abenduko diru-sarreren eta gastuen kontabilitate jarduketa partzuergoko tituluen mekanikagatik eta Barik sistemaren ekonomia eta finantza esparruaren **garraio operatzaileekin dagoen operatiboaren (hileko likidaziokoa) 2.1.1 apartatuan** xedatutakoagatik gertatzen da. Arau horretan Barik araubide ekonomikoa arautzen da, BGPren Kontseilu Nagusiak onartu zuen, eta organo horretan, garraiobideen administrazio titularrak ordezkatuta daude, eta hor bertan jasota dagoenaren arabera, garraio erabiltzeek hilabetean zehar operadoreetan egindako ezeztatzeekin, BGPk ezeztatzeen hilabeteko baterako likidazioa egin behar du eta operadore bakoitzak faktura bat egiten du dagozkion ezeztatutako bidaien likidazioari dagokion zenbatekoan, azkenik, BGPra bidaltzeko.

Abenduan (eta urte bakoitzeko abenduaren 31ko 23:59:59ra arte) diru-sarrerak eta gastuak sortzen dira, nagusiki, egindako bidaiengatik, txartelak erosteagatik, garraio aldaketengatik, eta abarrengatik. Hilabetea bukatzean, operadoreen sail teknikoek/informatikoek datu baseetako informazioa biltzen dute eta BGPra bidaltzen dute, bertan egiaztatu eta zuzenketak analizatu ditzaten. Lurraldean 20 enpresek/erakundek lan egiten dute eta BGPn beraien datuak eta operadoreen eta moduen arteko garraio aldaketak kontrastatzen dira (hobariekin edo deskontuekin) eta partzuergoak bakarrik dokumentuetan idatziz jasotako egiaztaketak egiten direnean egiten ditu likidazioak. Une horretatik aurrera, fakturak bidaltzen dira eta hornitzaileen fakturak jasotzen hasten gara. Jarduketa horiek gauzatu daitezkeen hilabeteko datarekin egiten dira (normalean hurrengo hilabetea, izan ere, denbora behar da izapide guztiak egiteko eta Ogasuneko Berehalako Informazio Sistemak -SII- bakarrik 16 egun ematen ditu aurreko hilabetean sortutako fakturako erregistroak bidaltzeko). Fakturazio-erregistroak bidaltzeko epeari buruzko AEATren oharra erantsita dago.

Epearen aurreko hilabetearen egiaztagiri horiek (likidazioak eta fakturak) eskuragarri ez daudenean, BGPk aldizkakotasunak erabiltzen ditu diru-sarrerak eta gastuak sortzen diren ekitaldira atxikitzeko, eta horri esker, hartzekodunen kontabilitate irizpidea (urtean faktura bat egin eta kontabilizatzen dutenak n+1) BGPren berdina da (urte berean jaso eta kontabilizatzen duena n+1). Aldizkakotasunak eta sortzapenak kontrol eta auditoretza berrikuspeneko ezinbesteko alorrak dira, eta behar bezala erregistratuta daudenean ez da salbuespenezko iritzirik sortzen.

BGPren kontuetan Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren (aurrerantzean, IGAE) irizpidea jarraitzen da, eta bat dator kontuen zinpeko aditu aztertzaileen iritziarekin, urtero BGPren eta Metro Bilbao SAren kontuak aztertzean adierazitakoarekin, hain zuzen ere. Orain arte ez dugu kontrako oharrik jaso eta, beraz, uste dugu irizpide hori dela enpresa/erakunde operatzaileen auditoretzetan jarraitzen dena.

Harritzekoa da HKEEk esatea abenduko aurrekontuko eragiketak FAKTURARIK IZAN GABE kontabilizatu behar direla. Faktura jasotzen denera arte ez da egoten zerbitzuari, hirugarrenei, zenbatekoei eta abarrei buruzko ziurtasunik. Behar bezala egiaztatutako eta onetsitako fakturarik gabe ez da betetzen 2018ko uztailaren 25ean IGAEk kontu-

hartzailetzaren oinarrizko betekizunei buruz ezarritakoa, hau da, emateetan **faktura aurkezteko** eskatzea fakturazio betebeharra arautzen duen araudia betez (1619/2012 Errege Dekretua eta Faktura elektronikoak sustatzeko 25/2013 Legea).

Faktura merkataritzako agiri bat da eta ondasun edo zerbitzu baten salerosketaren egiaztagiria da eta beste gauza batzuen artean, dagokion eragiketari buruzko informazio guztia jaso behar da bertan. Fakturak egiaztatzen du produktu baten edo produktu bat erosi ondorengo zerbitzu baten transferentzia, eta bakarrik faktura eskuragarri dagoenean jaso daiteke kontabilitate erregistroetan.

Fakturen emate datari buruzko erabakia operadoreek hartzen dute (trenen sozietateak, autobus konpainiak, zubi esekiak, bi funikularrek, udal batek, eta abarrek). Bakoitzak barneko arau, izapide, formalitate, segurtasun sistema, lan egiteko modu eta abarrak ditu. **BGPk fakturak kontabilizatzen** ditu beharrezko balorazioarekin, betiere horiek jaso ondoren eta datuak zuzenak baldin badira. Operadoreen fakturak dagokion hilabetearen (abendua) **ondorengo hilabeteko (urtarrila)** datarekin jasotzen direnean, ezin dira abenduko aurrekontuetan kontabilizatu. Kontrakoa eginez gero, merkataritza agiri horietako urteko kopuruak ez lirateke beteko eta n urteko abenduko aurrekontuan n+1 urteko urtarrileko datarekin egindako faktura bat kontabilizatuko litzateke.

Abenduan egindako jarduketen fakturak erregistratzeko modu hori -ematen diren hilabetean, urtarrilean, kontabilizatzen direnak- baimenduta dago **Bizkaiko tokiko erakundeen kontabilitatearen araubide esparrua onesten duen uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuan. Dekretuak apartatu jakin bat du (Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 19.451. orrialdean), eta bertan zehaztuta dago memorian jaso ahal izateko, nola erregistratu behar diren aldizkakotasun idazpenak urteko kontuak sortzeko arauak eta berariazko memoriaren edukia ezarrita. BGPk idazpen horiek erregistratu ditu kontabilitatean eta memorian eta, beraz, kontabilitatean jasota daude.**

Jarduteko modu hori IGAEren 1/2019 informazio oharrean jasotakoa da eta horren arabera, **abenduan egindako obrei buruz urtarrilean emandako ziurtagiria EZ da obrak egin ziren ekitaldiko gastuen aurrekontuan aplikatu behar, baizik eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuan** (IGAEren informazio oharraren kopia gehitu da eta bertan zehazten da abenduan egindako obrengatik urtarrilean egindako ziurtagiriak hurrengo ekitaldiko aurrekontuan aplikatzen direla).

Alor horretan kontuan hartu behar da 117/2018 Foru Dekretuak kontabilitate erregistro edo azterketa irizpidea aldatu zuela eta itxi beharreko aurrekontuaren kargura hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arteko gastuak jasotzeko baimena eman zuela. **Aukera** hori erabiltzeko Foru Aldundiak atxikitako idazkian ezarritako jarraibidea betez, 2 baldintza hauek bete behar dira: 1- Fakturak aurreko ekitaldian sortutako gastuenak izan behar dira eta 2- **FAKTURA HORIEN DATAK ITXI BEHARREKO EKITALDIKOAK IZAN BEHAR DIRA** (Bizkaiko Foru Aldundiaren idazkia gehitu dago, ohar horiekin Bizkaiko tokiko administrazio publikoei bidalitakoa).

Araudian jasotako legezko betebeharrez gain, irizpide informatikoak ere kontuan hartu behar dira. Bizkaiko Foru Aldundiak (BiscayTIK fundazioaren bidez) tokiko erakundeentzat eskuragarri jartzen duen eta Bizkaiko tokiko erakunde gehienek erabiltzen dugun

kontabilitate aplikazioan, ez dago baimenduta eta **ez da onartzen** n urtean n+1 urtean jasotako faktura elektroniko bat kontabilizatzea edo ordaintzea, denboraren logika nabarmena dela-eta: **ezinezkoa da erregistro kontabilitatearen unean existitzen ez zen gauza bat kontabilitatean jasotzea.**

Lan kargari dagokionez, erosoagoa litzateke faktura horiek kontabilizatzea eta datuak gehitzeko prozedura neketsuak ekidingo lirateke, fakturak ordaintzeko epeak laburtuko lirateke eta abar, baina, egun erabiltzen dugun kontabilitate aplikazioan ezin dugu horrelakorik egin.

Araudi hori (ixten den urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arte gastuak onartzeko **aukera** ematen duena), fakturak dagokion urtean (bidali ziren ekitaldian) egoztea baimentzeko eskumen gisa sortu da eta ez betebehar gisa, eta, horrez gain, kontabilitate datuak **fakturak jasotzean gerta litezkeen atzerapenen ondorioak** jasan ez ditzaten. Hau da, **n urtean** egotzi ahal izateko (dagokion urtean) aukera egoteko pixka bat beranduago jaso arren (**n+1 urteko** urtarrilean), EZ N+1 URTEAN EGINDAKO FAKTURA BAT N URTEKO AURREKONTUAN EGOZTEKO.

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEN IRITZIA

2. BGPren aurrekontuaren likidazioak ez ditu jasotzen… Gainera, aipatutako diru-sarreren 629.472 euro ez dira ondare kontabilitatean erregistratu ezta ere (A.8).

ALEGAZIOA

BGPko urteko kontuak finantza kontrola egiteko kontratatutako auditoreek azterketa egin dituzte eta ez dute horren inguruko kontabilitate irregulartasunik adierazi. HKEEren iritzi hori berriz hausnartu beharko dute, izan ere, entregatutako dokumentuetan egiaztatu daiteke zenbateko hori ondare kontabilitatean eta BGPren likidazioan berariaz erregistratuta dagoela.

Zenbateko horiek 2019ko abenduan sortu ziren eta aurrekontukoa ez den 30002 aplikatzeko dauden kontuetarako diru-sarrerak kontzeptuan jasota daude eta horregatik, *Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren 5542 kontuaren saldoan ere erregistratuta daude*, egiaztatu arte zeri dagozkien haren kontzeptua, hirugarrena, zerga tratamendua, kuantifikazioaren baliozkotasuna eta abar, eta likidazioa eginda eta jarduketa horiek egiaztatzen dituen zerbitzuak baliozkotuta egon arte. 10/2003 Foru Arauaren 47-3 artikuluan ezarrita dago *Aurrekontutik kanpoko zordunen eta hartzekodunen saldoen orria, aplikatu gabeko ordainketak eta sarrerak barne direla,* LIKIDAZIOAREN DOKUMENTAZIOAREN BARNE DAGOELA.

Kontabilitate publikoko plan orokorraren (aurrerantzean, KPPO) **5542 kontabilitate** kontuko laburpena jaso da eta bertan ikusten da itxierako saldoa 629.472,05 eurokoa dela eta aurrekontutik kanpoko kontzeptuen orriaren kontsultaren/laburpenaren agirian zenbateko hau dago azpimarratuta.

5542 kontuaren kontabilitate kontsultaren agiria jaso da eta bertan ZOR eremuan 2019ko itxierako zenbatekoen kopuruak jasota daude (kontabilitate kontu horretako handienaren 4060/63 zenbakidun IDAZPENAREKIN), berrikusteko ONDAREARI DAGOKIONEZ KPPOREN 5542 kontuan ZUZEN KONTABILIZATUTA DAUDELA, entregatutako datuetatik ondorioztatu den moduan.

Horrez gain, atxikitako agiria gehitu zen **KONTABILITATE OHARREN ZERRENDA OSAGARRIAREKIN**; bertan, aipatutako 629.472,05 euroen BGPko ondare kontabilitateko erregistroa dago jasota (HKEEren ohar horri erreferentzia egiten dion 4060/63 idazpenaren 4. orrialdea dago bertan adierazita). BGPren kontabilitatea berrikusita egiaztatu daiteke modu frogagarrian idatzita daudela eta, beraz, ezin da baieztatu ez daudela kontabilitatean erregistratuta:

Gainera, 2019ko ekitaldiko **BATUREN ETA SALDOEN** xehetasunen agiria gehitu da, eta bertan jasota dago zenbateko horren kontabilitatea zein zen 2019ko ekitaldia ixtean. ZOR eremuaren zenbatekoa, HARTZEKOAREN zenbatekoa eta saldo hartzekoduna egiaztatu daitezke.

10/2003 Foru Arauaren 47-3 artikuluko orrialdea, likidazioaren edukia ezartzen duena (aurrekontutik kanpoko zordunen eta hartzekodunen saldoen orrialdea).

BGPn ez da diru-sarrerarik aplikatzen aurretiaz egiaztapenik egin gabe eta hori egin aurretik, bidaltzea ahalbidetzen duten jarduketak berrikusten dira eta aplikazioetan jasotzen dira bidalitako fakturekin bat eginez. Aurrekontutik kanpoko kontzeptuetan behin-behinean agertzen diren zenbatekoak aztertuak diren bitartean, ez dira aplikatzen aurrekontuan egiaztatzen direnera arte, jatorria identifikatzen denera arte eta zuzentzen direnera arte eta dagokion zerga tasa zein den jakin arte eta abar, hala, aplikazioan onartu daitezen edo itzuli daitezen. Diru-sarrerak berrikusten diren bitartean, **aplikatzeke dauden zenbateko horiek KPPOren 5542 kontuan dagokien modura agertzen dira.** Egokiak direla egiaztatu ondoren eta faktura bidali eta gero, aurrekontuko diru-sarrera onartzen da eta, hala, zenbateko horren aurrekontutik kanpoko kontzeptuan deuseztatu egiten da. Modu horretan, kontabilitate erregistroak fidagarriak eta osoak dira eta akatsak egitea ekiditen da.

Diru-sarreren berrikuspena aurreko urteetako ekitaldietan egin da, eta zehazki, 2019an 112.094.075,77 euroko zenbatekoa izan zen; horietatik 111.464.603,72 euro onartu eta diru-sarreren aurrekontuan aplikatu ziren, eta modu horretan, abenduaren 31n diferentzia aplikatzeko geratu zen (629.472,05 euro). Hauxe da xehetasuna.

Noski, aurrekontutik kanpoko kontzeptu horren mugimendu guztiak **KPPOren aplikatzeko dauden kobrantzen kontuan (5542) jasota daude.** Ondoren, hurrengo ekitaldian aplikazioa gauzatzean egindako kontabilitate **IDAZPENAK** jaso dira **ondare kontabilitateko aurreko ekitaldiko zenbatekoak likidatzeko** erabilitako kontuekin eta kontabilitate erregistroekin. 5542 kontua ezin izango zen likidatu saldorik izango ez balu.

Zor zenbatekoaren, hartzeko zenbatekoaren, deskribapenaren, idazpen zenbakiaren, eragiketa zenbakiaren eta abarren xehetasunak jaso dira. Zenbatekoa guztira ***614.411,35 eurokoa*** (=54.027,90 + 560.383,45) gehi ***15.060,70 eurokoa*** da. Horien KONTABILITATE

aplikazioak zordunetan eta BEZean jasota daude (285, 286 eta 548 zenbakidun ondare kontabilitateko idazpenak).

Zenbateko horiek 2020-01-15ean **diru-sarreren aurrekontuan** aplikatu ziren 614.411,35 euroko zenbatekoan eta 2020-03-30ean 15.060,70 euroko zenbatekoan (guztira 629.472,05 euro), 2020an zuzen emandako fakturaren aurka. Honako zenbatekoen arabera aplikatu beharreko zenbateko guztia ezeztatzen duten eta aurretik aipatu diren eskubide onartuen xehetasuna gehitu da:

614.411,35
(=54.027,90+560.383,45)
15.060,70
629.472,05

Hurrengo urteko lehenengo hilabeteetan egindako kontabilitate aurrekontua egiaztatzeko agiriak atxiki dira baita ere.

HKEEk adierazitako diru-sarrera **horiek 5710** -"Bankuak eta kreditu erakundeak. Kontu operatiboak" KPPOren kontuan ere kontabilizatu ziren kobratu zirenean (2019an). Likidazioan gehituko ez balira, datuek ez lukete bat egingo BGPren kontuetako funtsak egiaztatzeko kontaketa aktarekin, 10/2003 Foru Arauaren 47-6 artikuluan (VII. kapituluan) aipatzen denarekin, hain zuzen ere; bertan xedatuta dago aurrekontuen likidazioa osatzen duten agirietako bat horixe dela. Diru-zaintzako zenbatekoak balantzean (ondare kontabilitatean) erregistratuko ez balira, ez lirateke bat etorriko auditoreek egindako zirkularizazioei banku erakundeek emandako erantzunekin. BGPren eragiketa ekonomikoak zehatz-mehatz daude jasota kontuetan eta liburuetan eta gainerako dokumentuetan argi eta garbi ikusi daitezke.

Gainera, 139/2015 Foru Dekretuaren I. kapituluko (tokiko kontabilitateko printzipio orokorrak) I. tituluko 47-1-f arauan jasota dago MEMORIA urteko kontuen barneko elementua dela, eta 2019ko BGPren memorian zenbateko horien informazioa betetzat jotzen da. Diru-sarrera horiek memoriaren araubidez ezarritako apartatuan jasota daude beharrezko xehetasunarekin, eta kontabilitatearen idazpenak adierazita daude gainera.

Errazago ulertzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 19.448 orrialdea atxiki da; bertan argitaratuta dago 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena urteko kontuak sortzeko arauekin eta memoriaren edukiarekin eta, horrez gain, abenduaren 15ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen 10/2003 Foru Arauaren 47-3 artikuluaren kopia ere atxiki da; bertan, ekitaldi bakoitzeko AURREKONTU LIKIDAZIOAREN EDUKIA adierazten da eta, horrez gain, beste gauza batzuen artean zehaztuta dago AURREKONTUTIK KANPOKO SALDOEN ORRIA sortzen dela, APLIKATZEKO DAUDEN DIRU-SARRERAK BARNE.

Beraz, ondorioztatu da diru-sarrera horiek kontuetan adierazita daudela oso-osorik: 2 kontabilitateetan (likidazioan eta ondare kontabilitatean) idazpenak jasota daude eta, horrez gain, ekitaldi bereko memorian ere azalduta daude.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEN IRITZIA

1. *Bestalde, Barik txartelaren gainerako operadoreen alde 2019ko azaroaren 29an onetsitako 2017ko eta 2018ko ekitaldiei dagokien partzuergoko tituluen likidazioa ez da erregistratu 1,6 milioi euroko zenbatekoan, ezta ere aurrekontuaren likidazioan eta ondare kontabilitatean (A.8).*

ALEGAZIOA

Alegazio honekin nahiko informazio eta dokumentazio ematen ditugu HKEEren txostenean jasotako iritziaren ez dagoela errealitatearekin bat. Horren gainean, 2017ko eta 2018ko partzuergoko tituluak likidatzeko egindako txostena atxiki dugu, 2019ko azaroaren 29an Kontseilu Nagusiak onetsi zuena (egun horretako Kontseilu Nagusiaren bilerako 23. puntua). Plangintza Finatzarioa eta Integrazio Tarifariaren Saileko txostenaren kopia erantsita dago eta gai horren gaineko Kontseilu Nagusiaren erabakia ere bai.

Txosten horretan 2017ko eta 2018ko ekitaldietan eskuratutako azken emaitza/banaketa jasotzen da 11 erakundeen/operadoreen emaitzekin, batzuk saldo positiboarekin eta besteak negatiboarekin, ondoren azalduko den moduan:

-BGP	4.161.022
-Bizkaiko Foru Aldundia-BFA	+889.526
-Bilboko Udala	-29.187
-Eusko Jaurlaritza	+599.995
-Etxebarriko Udala	-2.116
-Getxoko Udala	-876
-Erandioko Udala	-810
-Barakaldoko Udala	-6.062
-Uribe Kostako Amankomunazgoa	-11
-FEVE	-9.033
-RENFE	-35.907

Aipatutako txostenean datu berberak daude jasota.

Agiri horrekin ondorioztatu da 11 erakundeak/operadoreak hiru egoera hauetakoren batean egon daitezkeela:

Lehenengo kasua BGPrena da, ez diona bere buruari ordainketarik ezta kobrantzarik egiten.

Bigarren kasuan **zeinu positiboa** duten erakundeak daude (BFA eta Eusko Jaurlaritza); horien jarduketak 2019ko azaroaren 29ko erabakiaren hirugarren apartatuan garatzen dira eta zehaztuta dago adierazitako gastu guztien zenbatekoa onetsi, xedatu eta onartu behar dela (gastuen aurrekontuko aurrekontu aplikazioaren berariazko aipamenarekin) eta diru-sarreren aurrekontura bideratu behar direla (aurrekontu aplikazioa adierazita baita ere) formalizazioan oharra jasoz. Jarduketa horiek 1.489.521,00 euroko kopurua dute. 2019-11-

29ko Kontseilu Nagusiaren erabakiaren hirugarren apartatuaren 23. puntua jaso dugu. Bertan, egindakoa azaltzeko hauxe adierazten da

Hirugarren kasuan **zeinu negatiboa** duten gainerako 8 erakundeak/operadoreak daude, (Etxebarriko, Getxoko, Erandioko eta Barakaldoko Udalak, Uribe Kostako Amankomunazgoa, FEVE eta RENFE). Horien garapena 2019ko azaroaren 29ko erabakiaren laugarren apartatuan gauzatzen da eta bertan zehaztuta dago BGPri eskatu beharko zaiola apartatu honetan jasotako taularekin bat eginez emaitza defizitarioa izan duten operadoreei dagozkien zenbatekoak ordaintzeko (guztira -84.002 euro); horren kopia atxikita da hobeto ulertu dadin (atxikitako erabakiaren 4. apartatua).

Uste dugu HKEEk behin-behineko txostenean adierazten duen 1,6 milioiko zenbatekoa BIGARREN KASUAN adierazitako jarduketen metatzearen kopurua dela (guztira 1.489.521,00 euro dira eta BGPrentzako sarrerak eta gastuak barne hartzen dira) gehi BGPrentzako sarrerak diren 84.002 euro (1.489.521,00 + 84.002 = 1.573.523 euro).

Zenbateko horretatik (1.573.523 euro) partzuergoak kontabilitate adierazpen zorrotz eta xehea egin du bai aurrekontuaren likidazioan bai ondare kontabilitatean, alor bietako kontabilitate erregistroetan egiaztatu daitekeen moduan, eta Kontseilu Nagusiaren jarraibideak bete ditu, hau da, **GASTUAREN** 1.489.521,00 euroko zenbatekoa onestea (A fasea), xedatzea (D fasea) eta onartzea (O fasea), beste modu batera esanda, ADO (faseen metatzea dela-eta), 0050 44000 2279914 aplikazioaren karguarekin. Horrez gain, saldo positiboen kopurua **DIRU-SARREREN AURREKONTURA** (00500 39903 aplikazioa) gehitu zen formalizazioko ordainketen eta kobratzeen bidez eta, beraz, 1.489.521,00 euroak BGPn sartu ziren. BGPren onartutako diru-sarreretan aurretiaz adierazitako udalen, amankomunazgoaren, FEVEren eta RENFEren 84.002 euroak agertzen dira baita ere.

BGPren aurrekontu kontabilitatean eta ondare kontuetan erregistratuta daude 1.489.521,00 euroko GASTUAK ETA DIRU-SARRERAK, erabakian jasotakoarekin bat eginez. Gastu eta diru-sarrera horiek formalizazioan egin ziren gastuen aurrekontu eragiketen bidez eta diru-sarreretan deskontuak eginez eta, gainera, DIRU-SARREREN aurrekontuan 84.002 euroen eskubideak onartu ziren eta ondare kontabilitatean jaso ziren.

GASTUEN eta DIRU-SARREREN AURREKONTUAN egindako kontabilitate agiriak ondorengo partidetan xehatu dira eta ondare kontabilitatera eraman dira idazpenetan. Handienak emandako kopietan jaso dira:

GASTUAK:

Gastuak-1: Alde batetik, ADOren 220190004221 kopia jaso da, 2019-11-29koa eta 889.526,00 eurokoa Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean, 00500 44000 2279914 aurrekontu aplikaziokoa eta kontabilitate publikoko plan orokorraren 6020 kontuan erregistratutakoa. Zenbateko eta kontzeptu horren (3980 – 1 idazpena) ondare kontabilitateko kontuaren xehetasuna eta aurrekontu likidazioaren aurrekontu aplikazioarena jaso dira.

Gastuak-2: Beste alde batetik, ADOren 220190004222 kopia jaso da, 2019-11-29koa eta 599.995,00 eurokoa Eusko Jaurlaritzaren izenean, 00500 44000 2279914 aurrekontu aplikaziokoa eta kontabilitate publikoko plan orokorraren 6020 kontuan erregistratutakoa.

Zenbateko eta kontzeptu horren (3981 – 1 idazpena) ondare kontabilitateko kontuaren xehetasuna eta aurrekontu likidazioaren aurrekontu aplikazioarena jaso dira.

DIRU-SARRERAK:

Diru-sarrerak-1: Alde batetik, ADOren 120190000851 kopia jaso da, 2019-11-29koa eta 889.526,00 eurokoa Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean, 00500 44000 39903 aurrekontu aplikaziokoa eta kontabilitate publikoko plan orokorraren 7050 kontuan erregistratutakoa. Zenbateko eta kontzeptu horren (3978 – 2 idazpena) ondare kontabilitateko kontuaren xehetasuna eta aurrekontu likidazioaren aurrekontu aplikazioarena jaso dira.

Diru-sarrerak-2: Beste alde batetik, uneko 120190000852 aurrekontuaren kopia jaso da, 2019-11-29koa eta 599.995,00 eurokoa Eusko Jaurlaritzaren izenean, 00500 39903 aurrekontu aplikaziokoa eta kontabilitate publikoko plan orokorraren 7050 kontuan erregistratutakoa. Zenbateko eta kontzeptu horren (3979 – 2 idazpena) ondare kontabilitateko kontuaren xehetasuna eta aurrekontu likidazioaren aurrekontu aplikazioarena jaso dira.

Diru-sarrerak-3: Gainera, 00500 39903 aurrekontu aplikazioaren xehetasun osoa gehitu da eta bertan egiaztatu daiteke 2019ko onartutako eskubide guztiak 1.573.523,00 eurokoak izan zirela, hau da, BGPren (Kontseilu Nagusiaren erabakiaren laugarren apartatua) aldeko saldoa duten bi operadoreen 84.002 euro gehi aurreko paragrafoetan aipatutako Gastuak-1 eta Gastuak-2 (Kontseilu Nagusiaren erabakiaren hirugarren apartatua) ataletako formalizazio ordainketetako 1.489.521,00 euro, izan ere, BGPri entregatzea erabaki zen (eta, beraz, BGPrentzako diru-sarrerak dira baita ere). Aplikazio horretako mugimenduen kopia eta egindako eragiketa guztien xehetasunak jaso dira (2 orrialde):

Eragiketa horiek guztiak berriro azter daitezke, ondoren agertzen diren dokumentuen kopien bitartez.

Laburbilduz, gastuen aurrekontuaren bi agiri (diru-sarreren aplikazioan deskontua dutenak), diru-sarreren aurrekontuko beste bi agiri eta BGPri ordainduko dioten gainerako erakundeen/operadoreen xehetasun bat -gastu hori deskontatzean (gehi BFAko eta Eusko Jaurlaritzako sortutakoak deskontuak egin direlako).

GASTUEN 2 eragiketak (eragiketa bat hirugarren bakoitzeko dagokion zenbatekoarekin) ADOak dira 00500 44000 2279914 aplikazioan partzuergoko tituluen likidazioa onesten den erabakian jasotako zenbatekoekin eta hirugarrenekin. 2 eragiketek erakunde bakoitzaren **zenbateko guztiagatiko deskontua dute** diru-sarreren aurrekontuko 00500 39903 aplikazioan (BGPren gastuen aurrekontuaren formalizazioan ordaintzen dira eta BGPren diru-sarreren aurrekontuan sartzen dira). Diru-sarreren aurrekontura “iristen” den zifra hori eta BGPri ordaindu behar dioten erakundeetatik/operadoreetatik datozenak aurrekontu horretan erregistratzen dira eta bakoitzak bere oharrak ditu ondare kontabilitatean.

Partzuergoko tituluen banaketari dagokion DIRU-SARREREN aurrekontu aplikazioaren xehetasuna (2 orrialde).

Partzuergoko tituluen likidazio banaketari dagokion GASTUEN aurrekontu aplikazioaren xehetasuna (2 orrialde).

BGPk bananduta ditu likidazio horien emaitzak jasotzeko aurrekontu aplikazioak, gastuen partida espezifikoa (00500 44000 2279914) eta diru-sarreren beste partida espezifiko bat (00500 39903); horiek, gainera, aipatutako erabakian aipatzen dira eta, beraz, bertan oso erraz egiaztatu daitezke egindako erregistroak eta kontabilitate oharren zuzenketak 1,6 milioi euroen xehetasun askorekin.

Kontuan hartzea errazteko, partida bien mugimenduen kopiak atxiki ditugu berriro.

Eragiketa horiek guztiak, BiscayTIK fundazioak (Bizkaiko Foru Aldundikoak) partzuergo honi (Bizkaiko lurralde historikoko tokiko erakunde gehienei bezala) ematen dion kontabilitate sisteman egiten dira eta aurrekontu likidazioan adierazten den guzti-guztia ondare kontabilitatean jasotzen da zuzentasunez. Hala ere, aurrekontuko diru-sarrera eta gastu horiek erakunde honen ondare kontabilitatean dituzten xehetasunen kopiak gehitu dira baita ere.

Halaber, berresten dugu eragiketa horiek guztiak auditoretzan berrikusi direla eta auditore pribatuek ekitaldi honetako BGPren erabakiak aztertu dituztela (beraz, 2019ko azaroaren 29koa baita ere) eta diru-sarreren mugimenduak eta formalizazioan egindako gastu horienak berrikusi dituztela baita ere (horien bolumena handia delako) diru-sarreren aplikazioko deskontuarekin.

Formalizazioan ordainduta dauden GASTUEN aurrekontuko kontabilitate agiriak, BGPren kontabilitatean egiaztatu daitekeen moduan, honakoak dira (kontabilitate aplikazioaren kopia atxiki da).

Formalizazioan kobratuta dauden DIRU-SARREREN aurrekontuko kontabilitate agiriak hauek dira BGPren kontabilitatean egiaztatu daitekeenaren arabera (kontabilitate aplikazioan eskuratutako 10 agiri: zordunketa agiriak, egindako kontabilizazioaren pantaila irudiak, kontabilitate idazpenak, eta abar).

Kontuan hartu behar da 2019ko **memorian ere** berariaz aipatzen dela 2019ko azaroaren 29ko Kontseilu Nagusiaren erabakia -23. puntua- non azaltzen diren argi eta garbi egindako eragiketak. Memoriaren orrialdearen kopia atxiki da; bertan azaltzen da HKEEren iritziaren II.2 apartatuan aipatutako likidazio horretako gastuen eta diru-sarreren egoera zein den. Horrek, era berean, aurrekontu agirietan (diru-sarrerenak eta gastuenak) jasotako informazioa, kontabilitate idazpenak, kontuen handienak eta aldizkariak gehitzen eta aipatzen ditu.

Aurrekontu likidaziotik eta ondare kontabilitatetik ateratako agiri horiek guztiak berrikusten direnean eta aipatutako iritzia aztertu ondoren, txosteneko 89. orrialdeko berariazko oharra berraztertu beharko da baita ere DIRU-ZAINTZAREN KONTUAREN A.7 apartatuan aipatzen dena: *gainerako operadoreen zenbatekoa (nagusiki BFA eta GOVA) ez dela erregistratu ez aurrekontu likidazioan ez ondare kontabilitatean.*

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEN IRITZIA

1. *Aurreko paragrafo bietako ondorio guztiekin, 2019ko abenduaren 31ko diru-zaintzako soberakina eta ondare garbia gutxitu behar dira, hurrenez hurren 200.000 eta 945.000 euroko zenbatekoetan.*

ALEGAZIOA

Aurreko alegazioetan zalantzarik gabe justifikatu dira 629.472 euroko kontabilitate diru-sarreren eta HKEEk aipatutako 1,6 milioi euroen erregistroak.

Lehenik eta behin, 1,6 milioi euroei dagokionez, BGPk onartutako eskubide gisa erregistratuta ditu eta 1.573.523 euro daude diru-sarreren 00500 39903 partidan eta onartutako betebeharretan 1.489.521 euro daude gastuen 00500 44000 2279914 partidan. BGPri formalizazioan ordaindutako 1.489.521 euroak gehi BGPk jasotako diru-sarreren 84.002 euroak batuta 1.573.523 euroko zenbatekoa ateratzen da, **bai aurrekontuaren likidazioan bai horren ondoriozko ondare kontabilitatean** eta, beraz, EZ DA GERTATU BEHAR HKEEk aipatzen duen efektua.

Egindako kobrantzak ordaindu dituzten udalekin, erakundeekin eta operadoreekin kontrastatu daitezke eta bankuko laburpenekin eta BGPko kobrantza ziurtagiriekin baita ere, eta horregatik agertzen dira BGPko diru-zaintzan. HKEEk adierazi moduan, zati horretan eskuratutako soberakina gutxitzen bada, BGPren diru-zaintzako errealitate materiala eta kontabilitatea faltsutuko lirateke.

Bigarrenik, eta 629.472 euroei dagokienez, modu frogagarrian egiaztatu da baita ere BGPk ondare kontabilitatean erregistratuta dituela, eta nahiz eta **HKEEk bere iritzi paragrafoan diru-zaintzako soberakina gutxitzeko proposatu duen**, kontuan hartu behar da BGPk horien izaera kontuan hartuz eta emaitza kalkulatzeko ezarritako modua erabiliz egindako kalkuluan jada kenduta daudela eta, beraz, zuzendu egin behar da bikoizketarik egon ez dadin. Egindako kalkuluaren xehetasuna atxiki da eta bertan azpimarratuta agertzen da 629.472,05 euroengatik aplikatzeko dauden partidak **jada kentzen ari direla**. Kontabilitate aplikazioan jasotako kalkulua gehitu da. Bertan, zenbateko hori diru-zaintzako soberakinetik kenduta dago:

Ez da zuzena HKEEk diru-zaintzako soberakina egokitzeko egindako proposamen hau: Aplikatu beharreko zenbatekoa **kenduta dago jada** eta BGPren funts likidoak urteko kontaketa aktan ziurtatuta daude eta bankuko laburpenekin eta auditoretzan egindako zirkularizazioekin egiaztatuta daude.

Likidazioaren/banaketaren emaitza formalizazioko bi gasturekin kontabilizatu da, diru-sarreretako deskontuak barne. Horrek **ez du funts mugimendurik** (formalizazioko oharrak dira) eta **ez dago kobratzeko zordunik ezta ordaintzeko hartzekodunik** (izan ere, formalizazio oharretan ordainketak eta kobrantzak jasota daude funtsen materialen sarrera eta irteerarik gabe) eta, horregatik, ez du ondoriorik diru-zaintza soberakinean (**ez dago ezta ere funts likidoen mugimendurik, kobratzeke dagoen eskubiderik ezta ordaintzeke dagoen**

betebeharrik). 10/2003 Foru Arauaren 48-6 artikuluan ezarritako diru-zaintzaren soberakinaren definizioa atxiki dugu.

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEN IRITZIA

1. *BGPren 2019ko abenduaren 31ko diru-zaintza soberakinean 19,4 milioi euro zeuden (20,7 milioi euro, aurreko paragrafoko doikuntzak aplikatuta); horiek balidatzeko dauden partzuergoko tituluen metatutako saldoei eta likidatzeko eta operadoreen artean 2019ko abenduaren 31n banatzeko dauden Barik sistemaren irabaziei dagozkie. Zenbateko hori zerbitzu prestazioari atxikita dagoenez, ez dago eskuragarri. Ondare kontabilitatean doikuntza horrek duen ondorioekin, zenbateko horren funts propioak gutxitu behar dira (ikus A.7).*

ALEGAZIOA

Iritzi paragrafo horretan salbuespenez adierazten da diru-zaintzako soberakinen 19,4 milioi euro ez daudela eskuragarri, baina BGP-K EZ DITU erabili. Partzuergo honen kudeaketa arautzen duen zuhurtzia printzipioa betez, 2019 bukatzean **ESKURAGARRI dagoen diru-zaintzako soberakina** 20.702.253,19 eurokoa da.

Aurrekontu egonkortasuneko eta finantza jasangarritasuneko 2/2012 Lege Organikoa indarrean jarri zenetik, BGPk **ez du diru-zaintzako soberakin likidorik erabili** aurrekontu aldaketak finantzatzeko -2017an zorra gutxitzeko izan ezik-, eta urtero aurreko ekitaldietan betebeharrak onartu gabe xedatutako edo baimendutako krediduengatik gehikuntzak egiteko, aurreko ekitaldietako xede bera erabili zen (1463/07 EDren 21-1 artikulua).

2019ko zenbateko hauetan egiaztatu daiteke BGPren soberakina ez zela erabili:

2019an gastu orokorretarako eskuratutako diru-zaintzako soberakina: ..	26.873.854,29 euro
1/2019 zenbakidun krediduak gehitzea:	149.983,40 euro
2/2019 zenbakidun krediduak gehitzea:.....	6.021.617,70 euro
2019an ERABILI GABEKO diru-zaintza soberakina:.....	20.702.253,19 euro

Argi eta garbi egiaztatu da erabili gabeko zenbatekoa iritziaren II.2-2 apartatuan adierazitako 19,4 milioi euro baino gehiagokoa dela eta, beraz, balidatzeko dauden partzuergoko tituluen eta likidatzeko eta operadoreen artean banatzeko dauden Barik sistemaren irabazien metatutako saldoek, alegazio hauek egin ziren unean, bankuko kontuetan jarraitzen dutela. Ezin da salbuespena izan HKEEk eskuraezintzat jotako zenbatekoa erabili ez izatea.

Finantza zuhurtasuna BGPren kudeaketaren ezaugarria da eta oso zorrotza eta zehatza da. Hala, 241,5 milioi euroko aurrekontuarekin, gaur egun partzuergoak hainbat kontuetan 60 milioi euro baino gehiago ditu erabili gabe (txosten hau jaso aurretik egindako azken

kontaketan -2021eko apirilean-, bankuko kontuetan 60.846.033,15 euro zeuden). Arkeo akta eransten da. Hau da, BGPn HKEEk adierazitakoa baino zenbateko handiagoa dago erabili gabe.

Ez da zuzena esatea zerbitzu prestazioari atxikitako zenbateko bat dagoela. HKEEri adierazi behar diogu araudiak EZ duela arautzen diruaren edo saldoen atxikitzea. Atxikitzea dutenak DIRU-SARRERAK eta GASTUAK dira, ez banku kontuetako edo eskudiruzko saldoak.

HKEEren A.7 eranskinean adierazi zen *Barik sistemaren kontuetako gainerako 19,4 milioi euroko saldoa 2019ko abenduaren 31n eskuragarri dagoen diru-zaintza soberakinetik kendu behar dela zerbitzu prestazioari atxikita dagoelako edo zerbitzu operadoreei dagokielako*, baina ez dago iritzi hori oinarritzeko baliozko frogarik. Atxikitzea kontuetako zenbatekoen ERRESERBAREKIN edo mantentzearekin nahastu da.

2010eko uztailaren 22ko Kontseilu Nagusiaren bilerako 7. puntua partzuergoko tituluen urteko metatutako likidazioaren kalkuluaren ondorioz partzuergoaren jarduera orokorrean partzuergoko tituluen kontu korronteetako funtsak erabiltzeari buruzkoa zen, eta bileran gai hori jorratu zuten eta erabaki zuten partzuergoko tituluak kudeatzeko **kontuetan** 6.302.831 euro **erreserbatzea** -2010eko urriaren 31ko partzuergoko tituluen likidazioaren kalkulukoak- eta ZENBATEKO HORRETAKO SOBERAKINA BGP-REN BESTE HELBURU BATZUETARAKO ERABILTZEA BAIMENTZEA.

Ondoren, 2012ko urriaren 4ko Kontseilu Nagusiaren bilerako 12. puntuan Barik sistemaren ekonomia eta finantza esparrua ezarri zuten, eta beste gai batzuen artean adierazi zuten Barik txartelaren ezarpenak ez duela eraginik 1997an ezarritako baldintza juridikoetan.

2017ko urriaren 31ko Kontseilu Nagusiaren bileraren 9. puntuan ere Bariken ekonomia eta finantza esparrua aldatu zen Bizkaiko garraio publikoko Bezeroen Arretarako Bulegoak (aurrerantzean, BAB) ezarri, martxan jarri eta kudeatu zirelako; bertan, aurretik aipatutako 2010eko urriaren 31ko tituluen likidazioaren kalkuluaren kontuen erreserba aipatu zen eta horri esker, zenbateko horren soberakinak beste helburu batzuetarako erabiltzea baimendu zen.

Erabaki horietaz gain, ez da egon orain HKEEk Bariken zenbateko batzuenganako, saldoenganako (bitxia da, lehen esan dugun moduan) ezta partzuergoko tituluen sistemaren diru-sarrerenganako edo gastuenganako **atxikipenik** ezartzen duen bestelako administrazioko erabaki edo ekimenik. 2019ko azaroaren 29an onetsitako likidazioaren erabakian ere ez dago ezarrita bat-batean HKEEk adierazi duen atxikipen hori, eta BGPren kontuetako saldoen eskuragarritasun librea ez da gordetzen edo mugatzen eta ez da ezartzen kontuetako zenbatekoen mantentzea.

Alderantziz, 2020ko azaroaren 20ko Kontseilu Nagusian 2. puntuko hamaikagarren apartatuan bere irizpidea azaldu zuen organo horrek, beste gauza batzuen artean jaso gaitzen ***BGP-RA ENTREGATZEN DIREN ZENBATEKOAK PARTZUERGO HONETAKO BETEBEHARRAK BETETZEKO ESKURAGARRITASUN OSOAREKIN EMATEN DIRELA KONTAKTURIK GABEKO BARIK TXARTELAREN ESKUMENEN ESPARRUAN.*** Adierazi

behar da Kontseilu Nagusian ordezkatuta daudela Bizkaian jarduten duten garraiobideen gaineko Erakunde titularrak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Bilboko Udala, etab.), eta, hor, erakundeek sistemaren baldintzak ezartzen dituztela, erabaki horietako bakoitzean adierazitako moduan ezarrita.

Erabaki horren kopia gehitu da, eskuragarritasun osoa jasotzen duena.

BGPk baliabideak guztiz eskuragarri dituela kontuan hartzen du, ez baitago horri buruz ezarritako ezer indarrean. Horixe ulertu du baita ere HKEEk 1997an partzuergoko tituluak sortu zirenetik egindako txosten guztietan (**urte horretan sortu ziren eskuragarritasun guztiarekin eta atxikita egon gabe**), baita orain dela gutxiko BGPren 2016ko fiskalizazioari buruz egindako 2018ko txostenean ere, unean-uneko datuekin Bariken mekanismoa zein zen zuzen adierazi zuenean. Hori epaimahai berak berrikusi du BGP fiskalizatu duen bakoitzean eta gaur egunera arte ez da zalantzan jarri. Ustekabean, 2019. urteko berrikuspena egitean, HKEEk iritzia aldatu du eta Partzuergo honetan ez dugu ulertzen zergatik irizpide aldaketa horrek ondare kontabilitatean ondorioak dituen BGPren funts propioak gutxituz.

2019an ez da aldatu funtzionamendu sistema 2016koarekin alderatuz eta ez da ezta ere 1997ko tarifa koordinazioko esparru akordioa aldatu adierazitako erabakiak ezarri ondoren (kartoizko tituluak kontakturik gabeko Barik txartelera egokitu ondoren eta Bezeroen Arretarako Bulegoen kudeaketa modu berriarekin) eta, beraz, 2012ko urritik aurrera, aldatutako esparru akordioa ez da moldatu alor horretan.

Fiskalizatutako ekitaldian aldatu dena ez da izan Barik sistemaren funtzionamendua, baizik eta egin beharreko ordainketen norakoa. 2019tik aldundiarentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat eskuratzen diren zenbatekoak BGPri entregatzen zaizkio eta partzuergo honek zenbateko batzuk gordetzen ditu **bere gastuen aurrekontuan** etorkizuneko ekitaldietan Bariken jarduketetan erabiltzeko, **ETA EZ DU INOLAKO MUGARIK EZARTZEN GASTUEN ESKURAGARRITASUN OSOAREN INGURUAN ETA BGP-REN DIRU-ZAINTZARI BURUZ**, zeina 10/2003 Foru Arauaren 5-3 artikuluan xedatutako atxikipen ezaren kontabilitate printzipioarekin bat eginez kudeatzen den. Gainera, baliabideak betebehar guztiak betetzeko erabiltzen dira eta bakarrik **xede jakinetara** atxikitako diru-sarrera **espezifikoak** daude atxikita; gainera, partzuergo honek zehaztu egiten ditu ekitaldi bakoitzeko atxikitako finantzaketako gastuen eranskinean aurretiaz dagokion erabakia hartu ondoren (Eusko Jaurlaritzaren ekarpena EAEko txartelen elkarreragingarritasunerako, erakundeen ekarpenak Metro Bilbao, SAren kapitala gehitzeko, Leioako Udalaren zenbatekoak Lamiakon FMBrekin interkonexioa egiteko, eta abar).

Zuzendu egin behar da HKEEk bere A.7 eranskinean kontabilitate erregistroari buruz jasotakoa: *1997ko ekainaren 11ko Tarifen koordinaziorako esparru akordioaren 3.3 apartatuan xedatzen da partzuergoko tituluen kudeaketatik eratorritako emaitza ekonomikoa erakunde parte-hartzaileei egotziko zaiela ziurtatutako baliogabetze baliozkoen arabera. 2019ko azaroaren 29ko Kontseilu Nagusian onetsitako azken likidazioa 2017ko eta 2018ko ekitaldietakoa zen eta CTB-MBSAren eta gainerako operadoreen aldeko 5,7 milioi euroko saldo bateratua jasota zegoen, hurrenez hurren 4,1 eta 1,6 milioi eurotan. Gainerako operadoreen aldeko zenbatekoa (nagusiki BFA*

eta GOVA) ez da erregistratu aurrekontu likidazioan ezta ondare kontabilitatean (azpimarratutakoa geurea da).

Aurreko alegazioko dokumentazioarekin legezko egiaztapena eta azalpen eztabaidaezinak eman dira eta kontabilitate erregistro asko eskaini dira aurrekontu likidazioan eta ondare kontabilitatean eta horiek guztiak berrikusi egin behar dira. Beraz, kontabilitate erregistroen egiaztapen dosier horiek berresten ditugu eranskinekin, idazpenekin, handienekin, kontuen egunerokoekin, diru-sarreren (00500 39903) eta gastuen (00500 44000 2279914) aurrekontu aplikazioetako kontsultekin eta abarrekin. Eskatzen dugu Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiazta dezala emandako dokumentazio handia, okerreko iritzirik eman ez sortzeko. Bi aurrekontu aplikazio daude xehetasun zuzenekin eta likidazio horiek jorratzeko erreferentziatuta daude bakar-bakarrik. Diru-sarreren eta gastuen aurrekontu aplikazio horietan bakarrik 2019an egindako partzuergoko tituluen likidazioaren emaitza ekonomikoa jasotzen da (diru-sarreren eta gastuen aurrekontuak) eta mugimenduak zuzen jaso dira ondare kontabilitatean (kontuan hartu ondare kontabilitatearen eta aurrekontu kontabilitatearen arteko egokitzapena ere aztertu dela).

Funts propioak gutxitzeko doikuntzak **ondare kontabilitatean** duen ondorioari dagokionez aipatu behar da horrek BGPren egungo diru-zaintzako kontuen irudia faltsutzen duela eta saldo horien itxura okerra eskaintzen duela. Bankuko laburpenek BGPk bakoitzean dituen zenbatekoak jasotzen dituzte eta ez dago horiek erabiltzeko mugarik, eta informazio hori egindako auditoretzetan aztertu da eta hala jasota dago 2019ko abenduaren 31ko kontaketa aktan. Beste zenbateko bat adieraztea BGPren diru-zaintzaren benetako egoera ezkutatzea litzateke.

Epaimahaiaren iritzia ez dator bat aurretik adierazitakoekin. 1997tik BGPren baliabide propioak betebehar guztiak betetzeko erabiltzen dira. Partzuergo honek diru-zaintzako soberakinak erabili zituen aurrekontu aldaketak finantzatzeko -toki ogasunen araudian jasota dagoen moduan-, Aurrekontu egonkortasuneko Lege Organikoa indarrean jarri zenean zorra gutxitzeko erabiltzera mugatu zenera arte. Horixe egin zuen BGPk 2017an diru-zaintzako soberakineko 9.500.000,02 euro zorra gutxitzeko erabili zituenean, eta sekula ez da horren aurkako iritzirik egon.

Txostenean jasota dago operadoreentzako eskuragarritasun librerik ez duten saldoak daudela. Eskuragarritasunik ezaren ezarpena osoko bilkuraren (Kontseilu Nagusia) erabakiaren bidez egiten da gastuen inguruan (ez eskudiruzko saldoen inguruan, zeinak forma ezberdinak izan ditzakeen, ordinal ezberdinetan egon daitekeen, eta abar). Esan behar da BGPren Kontseilu Nagusian garraio moduen titularren ordezkariak daudela.

Partzuergoak 1997tik lan egiteko modu bera erabili du alor horretan (urte horretan sortu ziren baterako txartelak edo partzuergokoak) eta ordutik ez dira aldatu tituluak kudeatzeko mekanismoak. Bizkaiko Garraio Partzuergoak jakin behar du zergatik HKEEk irizpidez aldatu duen, etorkizunean nola jardun jakiteko, orain Partzuergoak ez dakielako funts horiek noiz erabilgarriak izango diren operadoreen eta gainerako kontratisten fakturak ordaindu ahal izateko, eta zein den egungo edo etorkizuneko eskuragarritasun libreko kopurua.

Gure ustez, organo eskudunak erabakiak/ebazpenak/administrazio ekimenak edo antzekoak eman behar ditu eta horietan zehaztu behar du zein DIRU-SARRERA eta/edo

GASTU espezifiko ez dagoen eskuragarri eta noiz egongo den eskuragarri, zein xedetarako, zein baldintzetan, eta abar. Gaur egun ez dago indarreko administrazio ekimen batik adierazten duenik zein diru-sarrera espezifiko diren xededunak eta zein helburu espezifikotarako eta ez dago kontabilitatean erregistratutako mugez gaindiko bestelako mugarik ere.

Ondoren, HKEEk 2018ko behin betiko txostenean 2016ko ekitaldia fiskalizatzean adierazitakoak jasoko ditugu jarraian (eta horren kopia alegazio hauetan gehitu dugu), izan ere, adierazi zuten *BGPren diru-zaintzak partzuergoko tituluen kudeaketaren bankuko kontuen saldoak gehitzen dituela 8,7 milioi euroko zenbatekoan 2016ko ekitaldia ixtean ezeztatzeko dauden tituluen kargatzeengatik eta 2016ko abenduaren 31n metatutako emaitzengatik; horien likidazioa, era berean, 2017ko maiatzaren 3an onetsi zen 1997ko ekainaren 11ko Tarifen koordinaziorako esparru akordioan aurreikusitakoarekin bat eginez, erakunde parte-hartzaileen arteko kudeaketatik eratorritako emaitza ekonomikoa banatzeko ziurtatutako ezeztatze baliozkoen arabera.* Iritzi horretan ez zen ezarri zerbitzu prestazioan **saldoek zuten eragina zein zen** eta ez zen adierazi **EZ zeudela eskuragarri.** Tarifen koordinaziorako esparru akordioa ez da aldatu, beraz, ez da ulertzen HKEEren iritzia aldaketa, baina argi dago egungo txostenean adierazitako iritziarekin etorkizunean ziurgabetasuna izango dugula eta jarduteko modua zein izango den.

Atxikipena zehaztu behar da organo eskudun baten administrazio ekintzaren bidez. HKEEk adierazitako iritzi hori irizpide berria da, eta ez du administrazio edo araudi oinarri ezta sostengu espezifikorik ere. Aipatu behar da diru-sarrerak erabiltzaileek egiten dituztela eta, logikoki, ezinezkoa da jakitea zein den hiritarren nahia karga bakoitzean diru-sarrera horiekin finantzatuko beharko diren gastuak, BGPn egiten den gastu batera edo batzuetara atxikitzeko (kopurua, noiz egingo den, zein garraiobideetan, zein kontratuetan, zein makina ezeztatzaile edo saltzaileetan, zein nominetarako, zein ekipo edo aplikazio informatikoetan inbertitzeko, zein mantentze egiteko, beraiekin zein material erabiltzeko, bezeroen arretarako zein bulegotarako, zein aparkaleku disuasorioetarako, eta abarrerako. Diru-sarrerak xede jakin baterako ematen badira (lehen esan den moduan ez dago finkatuta), horiek egingo ez balira diru-sarrera bakoitza egin zuenari itzuli beharko litzaioke, eta kasu gehienetan, hori egitea bideragarria ez izateaz gain, ezinezkoa da.

HKEEren behin-behineko txostenean adierazten da 2017-2018 urteetako (BI URTE) onetsitako azken likidazioan 5,7 milioi euroko baterako saldoa dagoela BGP-MBSAren eta gainerako operadoreen alde, hurrenez hurren 4,1 eta 1,6 milioi euroan. **Likidazio horrekin 1,6 milioi euroko diru-sarrerak egon dira BFArekin eta GOVArekin nagusiki** (gainerako erakundeen/operadoreen likidazioa bakarrik 84.002 eurokoa da). **Hori ikusirik, ez da zentzuzkoa BGPren bankuko saldoetan 19,4 milioi euro geldiaraztea**. Egiaz, 2019ko likidazioa eta banaketa onetsita daude (2020ko ekainaren 23ko Kontseilu Nagusian -5. puntua-). Bertan dago jasota urteko emaitzen zerrenda eta organo fiskalak egiaztatzeko eman da. Kontuan hartu behar da kasu honetan urtebete bakarrik dela, 2019ko ekitaldia (aurreko likidazioa 2 urteko metatutako emaitzen likidazioa zen), **eta 00500 44000 2279914 aurrekontu partidan erregistratutako gastua izan da hartutako erabakiarekin bat eginez, hain zuzen ere, gastuko 745.419 euro** (formalizazioan baita ere), kasu honetan BFArekin,

Bilboko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin; bestalde, **00500 39903 partidan erregistratutako diru-sarrerak 759.557,00 eurokoak** izan dira (gainerako 1.382.079 euroak BGPri dagozkiolako).

2019ko likidazioaren xehetasuna gehitu da HKEEk eman duen iritzia berriro hausnartzeko.

Formalizazioan egindako ordainketa gastuaren aurrekontu aplikazioan kopia duten erakundeei dagokie eta honakoak kontabilizatu dira.

Diru-sarrerak taulan adierazitakoak dira eta diru-sarreraren aurrekontu aplikazioan kopia duten adierazitako erakundeei dagokie eta honakoak kontabilizatu dira.

HKEEk A.7 eranskinean baieztatu du 2019ko azaroaren 29ko Kontseilu Nagusiaren bileran onetsitakoaren arabera, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako likidazioaren zenbatekoa etorkizuneko inbertsioetarako eta 2020tik 2023ra Barik sistema garatzeko erabili behar dela eta, beraz, *ez dagoela operadoreentzako eskuragarritasun librearekin* (azpimarratutakoa geurea da).

Berriz ere, HKEEri berretsi behar zaio eskuraezin gisa ezarri daitezkeenak aurrekontu kredituak direla (Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen 10/2003 Foru Arauaren 40-1-c artikulua) eta ez BGPren bankuko kontuetan eskuragarri dagoen likidezia (orain arte mugarik gabe erabiltzen zena), betiere finantza zuhurtzia aplikatuz eta BGPren hartzekodunen fakturak betez.

Kredituaren eskuragarritasun eza AURREKONTU PARTIDA BATEN **kredituaren saldo** guztia edo horren zati bat geldiarazten duen ekintzatik sortzen da eta erabiltezin deklaratzen da horren bitartez. Eskuragarritasunik eza deklaratuko balitz, kreditua ez litzateke ezeztatuko, baina eskuragarritasunik gabekotzat deklaratutako saldoaren kontura ezingo litzateke gastu baimenik ezta transferentziarik egin eta horien zenbatekoa ezingo litzateke hurrengo ekitaldiko aurrekontuan gehitu. Krediduen eskuragarritasunik eza deklaratzea eta eskuragarri bihurtzea erakundearen osoko bilkurari dagokio (gure kasuan, Kontseilu Nagusiari). Partzuergo honetan ez dugu eskuragarritasunik ezeko akordio batik eta horregatik ez da kontuan hartu, eta 2019ko azaroaren 29ko Kontseilu Nagusiaren onespenak **ez du horrelakorik zehazten** (araudiak ezarri bezala ez aurrekontu krediduena, ez zenbatekoena, ez zuhurtzia irizpidearekin mugitzen egon direnena, eta finantza erakunde batek ere ez digu inolako oztoporik jarri eskuragarritasun osoaren inguruan).

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEN IRITZIA

2. *Gainera, 2019ko azaroaren 29an onetsitako likidazioan jasotakoaren arabera, Metro Bilbao, SAri dagozkion 4,1 milioi euroak 2020tik 2023ra arteko ekitaldietan Barik sistemaren etorkizuneko gastuak eta inbertsioak egiteko erabili behar dira (ikus A.7). BGPren 2019ko abenduaren 31ko memoriak ez du konpromiso horren berri ematen.*

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

2019ko azaroaren 29ko Kontseilu Nagusiaren akordioan jasota dago **KREDITUA ERRESERBATU BEHAR DELA partida honentzat:** 00500 44000 6260001, (2020tik 2023ra arteko urteko kopuruekin, guztira, 5.734.000,00 euro) Bariken jarduerak eta garapenak betetzeko zenbatekoekin, eta BGPk horrelaxe egin du. **Kreditu erreserba horiek** egin dira eta BGPren aurrekontu likidazioko eta ondare kontabilitateko erregistroetan jasota daude.

HKEEk erabakia hobeto ulertu ahal izateko, alegazioekin batera erabakia errepikatu dugu. Bigarren apartatuan azaltzen da Barik sistemaren etorkizuneko garapenetarako gastuen eta inbertsioen norakoa:

BGPn hartutako erabakia eta egindako eragiketak gauzatzeko, alegazio hauekin erregistratutako kontabilitate eragiketak azaltzen ditugu dagozkien zenbatekoekin, urteko kopuruekin, datekin, eragiketa zenbakiekin eta aurrekontu aplikazioekin:

Kontabilitate ohar horietaz gain, ondoren BGPren 2019ko kontu orokorraren **memoriaren apartatuen** xehetasuna jaso dugu. Bertan, onetsitako likidazioan adierazitakoa horri buruz aipatzen da eta horiek zein orrialdeetan dauden zehazten da, onetsitako memoria errazago lokalizatu ahal izateko.

HKEEk adierazi zuen *Metro Bilbao, SAri dagozkion 4,1 milioi euroak 2020tik 2023ra arteko ekitaldietan Barik sistemaren etorkizuneko gastuak eta inbertsioak egiteko erabili behar direla.*

Likidazioaren zenbatekoak eskuratzeko datuen taularen kopia gehitu dugu. BGP agertzen da, Metro Bilbao, SAren % 100aren jabea den tokiko erakundea baita; BGPren eta Metro Bilbaoren urteko kontuen memorietan argi eta garbi ikusi daiteke hori. Gainera, esparru akordioan jasota dago emaitzak erakundeei edo haiek izendatutako operadoreari egotziko zaizkiela. Gogoratu behar da Metro Bilbao, S.A. sozietate publiko bat dela eta BGPk duela horren titulartasuna.

Aurrekontu kontabilitatean, ondare kontabilitatean egindako kreditu erreserbak 5.566.542 euroan egin dira -memorian identifikatuta daude eta jasota dago BGPk dagokion kreditua erreserbatu duela- eta horren barne dago BGP agertzen den taulako 4.161.022 euroen zenbatekoa. Espero dugu orrialdeak zehaztuta xehetasun horiek modu eraginkorrean eta nahasterik gabe lokalizatu ahal izango direla.

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEN IRITZIA

3. *BGPk ez dauka 2019ko abenduaren 31ko ibilgetu materialaren banakako inbentario fisiko eguneraturik; horrenbestez, ez da posible egiaztatzea haren jardueran erabilitako ondasunen egiazkotasuna eta jabetza eta, ondorioz, ezta egun horretan kontabilitatearen erregistroa egokia den ere.*

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

BGPk erabilitako ondasunen egiazkotasuna eta **kontabilitate** erregistro egokia ez daude inbentario bat izatearen menpe. Inbentario bat erakunde baten ondasunak eta eskubideak aurkezteko modu bat da eta ondasun horien kontabilizazioa beste gauza bat da.

BGPren kontuen memorietan adierazi moduan, azken urteetan eta noski, 2019koan (59. orrialdean): 1999tik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txosteneko jarraibideak betez, BGPn Bilbo Metropoliko Trenbidearen I. linearen azpiegituran egindako inbertsioak aktibatu ziren eta aktibo horiek II. lineakoekin batera ustiatzen jarri zirenetik aurrera amortizatu ziren. Ordutik aurrera, BGPko kontabilitatean erregistratzen dira inbertsio guztiak, altak, bajak, transferentziak, amortizazioen kalkuluak, eta abar egiten dira eta aurrekontu datuekin kontrastatzen dira eta urtero berariaz kontratatutako auditoreek egiaztatzen dituzte prozedura berrikuspenetan. Horregatik, BGPren eta Metro Bilbao, SAren katalogatu beharreko ondasunen informazioa edo kontrola ez da galdu, izan ere, ibilgetuaren kontrol sistematiko eta xehearen erregistroa dago ondasunekin eta kontuekin eta Metro Bilbao, SAk erabiltzen dituenak bereizten dira, urtero inbertsioekin eta mugimenduekin eguneratzen direnak.

Horrela, partzuergo honetan egiaztatu egiten da eta bateratu egiten da kontabilitateko, hirigintzako eta gainerako datu administratibo eskuragarriarekin, kudeaketaren informazio guztia emanez. Memorian jasota dago haren egoeraren informazioa, mendeko entitatearekiko harremanena eta baliabide horien kudeaketarena; administratutako ondasun guztiei dagozkien eragiketak kontabilizatu egiten dira, eta horien berri ematen da urteko kontuetako 120 orrialde baino gehiagotan. BGPren ibilgetua jarduketa xehatuen xede da, eta horiek aintzatesteko, baloratzeko eta abarrerako araudiari jarraitzen diote, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorreko araudietan eta definizioetan xedatutakoarekin bat. Alor horretan BGP guztiz gardena da, eta ahalik eta informazio gehien ematen saiatzen da.

Memoriaren laburpenaren kopia gehitu da HKEEren oharrekin.

Inbentario horren beharra aurretik azaldu da eta, horregatik, BGPk hori egiteko prozesuak hasi ditu: 2019ko azaroaren 6an, aurretiaz lizitazioa egin ondoren, aktiboen kudeaketako prozesuen definizioko fasea eta **BGPren ondasunen inbentarioa egiteko** laguntza teknikoa kontratatu ziren. Espediente hori 2020ko azaroaren 9an likidatu zen.

Gaur egun, kontratazio berri bat ateratzeko zain gaude eta prestatuta eta BGPren aurrekontuetan aurreikusita dagoen arren, zuhurtziagatik eta lanen kostu handia ikusirik, 2021eko otsailaren 18ko Batzorde Betearazlean gai hori landu zen eta zuhur jokatzea eta pandemiaren krisiaren bilakaera eta urte honetan garraioan sortutako inpaktua aztertu arte itxarotea erabaki zen. Egungo osasun eta ekonomia krisi egoeran, lan hori garrantzitsua da baina ez da premiazkoa.

Kontratu horren likidazioaren laburpenaren kopia jaso da.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEN IRITZIA

3. Txosten hau egin den unean ezin da jakin zein izango litzatekeen sozietateak aurretik aipatutako kontzeptuengatik jasango lukeen kostua ezta atxikitako urteko kontuetan jabetzaren izaera juridikoari eta ondasunen erabilera eskubideari buruz hartu ahal izango den erabakiak izango lituzkeen ondorioak.

ALEGAZIOA

Kasu honetan, eta aurreko alegazioan adierazitakoarekin jarraituz -BGPren urteko kontuetan 120 orrialde baino gehiagoko urteko kontu xeheak jasotzen dira eta balantzean erregistratutako ibilgetuaren datuak zehazten dira-, BGPren kontu orokorraren espedientean dagoen dokumentazio guztiaz gain, eskuragarri jartzen dizuegu 2019ko kontu orokorra onesten duen 2020ko ekainaren 23ko Kontseilu Nagusiaren bileraren 2. puntua; bertan, BGPk ibilgetuaren inguruan kudeatzen duen informazio kopuru handia dela-eta, Metro Bilbao, SAk erabiltzen dituen ondasun guztien xehetasunak jaso ditugu eta eraikuntzaren kostuak zenbatzeko beharrezko informazio guztia baita ere.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN INGURUKO OHARRAK

III.1.1 LEGE ERREGIMENA ETA ESTATUTUEN ERREFORMA

- *BGP sortzeko abenduaren 30eko 44/1975 Legean tokiko erakundearen izaera ezarri zen eta horrelako erakundeetan aplikatu beharreko legezkotasuna egiaztatu zen. Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak Toki administrazioaren arrazionalizazioko eta jasangarritasuneko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen eta Sektore publikoaren arrazionalizazioaren irailaren 16ko 15/2014 Legearen aldaketak eta bestelako administrazio berritzeen neurriak moldatzen ditu eta partzuergoak arautzen ditu 118tik 127ra arteko artikuluetan.*

  Aurretik aipatutako araudi aldaketek ezartzen dute partzuergo bakoitzaren estatutuek zehaztuko dutela atxikita egongo diren administrazio publikoa zein izango den, betiere araudi horretan zehaztutako lehentasun irizpideak betez, eta partzuergoak atxikitzen diren aurrekontu, kontabilitate eta administrazio kontroleko araubideari atxikita egongo direla xedatzen dute baita ere.

  40/2015 Legea indarrean jarri zen 2016ko urriaren 2an eta 17. azken xedapeneko 1. paragrafoan urtebeteko epea zehaztu zen berarekin bateragarriak ez diren estatuko edo autonomia erkidegoetako arauak egokitzeko. Hala ere, azken xedapen horren 2. paragrafoan ezarrita dago 40/2015 Legearen aurreko lege bereziaren bitartez sortutako partzuergoek legeria berezia izaten jarraituko dutela araudi egokitzapena gertatu arte.

  Finantza tutoretzaren, egonkortasunaren eta hornitzaileei ordaintzeko berankortasunaren alorrean, BGP EAEri atxikita dago eta halaxe dago jasota

estatuko administrazioaren kontu-hartzailetza orokorraren erakundeen inbentarioan.

Txostena egin den egunean epea iraungita dago 2017ko urriaren 2tik, eta ez dira aldatu hura sortzeko legea ezta estatutuak eta, ondorioz, ez da zehaztu atxikitzeko administrazioa

Aldaketa esanguratsuenek ordainsari erregimenari eta langileen kudeaketari eragingo liekete. Azken horiek ezartzen dituzte muga kuantitatibo eta kualitatiboak, eta kontuan hartu beharko lirateke aurretik aipatu den bezala legea aldatu arte eta estatutuak moldatu arte. Zentzu horretan, BGPko lanpostu batzuetako osagarri espezifikoagatiko ordainketak handiagoak dira antzeko lanpostu batzuetan haien ardura duten eta/edo beren jarduera finantzatzen duten administrazioetatik jasotzen dutena baino.

ALEGAZIOA

Ohar hori bera dago 2018an egindako BGPren fiskalizazio-txostenean (2016ri buruzkoa). Txosten horretan adierazi genuen BGPk formalki eskatu zuela atxikipena egiteko epearen barruan, baina EAEk EZ zuela halakorik egin. HKEEri dagokion justifikazio-dokumentazioa eman zitzaion, EAEk horretarako egindako gogoetekin. Berriz ere, gogorarazi behar da BGPk ez duela eskumenik atxikipen hori egiteko, aldez aurretik abenduaren 30eko 44/1975 Legea aldatu behar delako.

Horregatik, partzuergo honi ezin zaizkio menpekoa den eta/edo bere jarduera finantzatzen duten administrazioetako antzeko lanpostuetako berariazko osagarriarengatiko ordainsariak aplikatu, ez baitakigu zen den adskripzio administrazioa ezta zeintzuk diren antzeko lanpostuak. Jaso dugun oharrean *lanpostu batzuk* aipatzen dira, eta badirudi horrek esan nahi duela antzeko lanpostuen ordainsariak partzuergoa menpekoa den eta/edo bere jarduera finantzatzen duten administrazioetako antzeko lanpostuetakoak baino gutxiagokoak liratekeela eta, horregatik, gehitu egin beharko liratekeela.

Adskripzioa egiteko administrazio posiblea zein den jakin gabe ia ezinezkoa da lanpostu baliokideetako ordainsarien egokitzapen erreferente bat izatea.

Edonola ere, EAEn ez dago administrazio batik ere (eta uste dugu estatu osoan ezta ere) BGPren funtzio berak egiten dituenik eta horrelako eragiketa bolumena kudeatzen duenik eta ez dago lanpostu baliokiderik EAEko udaletxeetan, Bizkaiko Foru Aldundian ezta Euskal Autonomia Erkidegoan BGPko espezialitate eta espezifikotasunarekin, izan ere, ez dago beste administrazio batik BGPren eskumen eta funtzio hauek dituenik: Bizkaiko garraio publikoa antolatzea, Metro Bilbao, SAren bitartez Bilbo Metropoliko Trenbidearen ustiapena kudeatzea -Bizkaiko Garraio Partzuergoarena dena guztiz- eta Metro zerbitzua koordinatzea -lan hori 2 operadorek egiten dute, partzuergo honetako Metro Bilbao, SA sozietateak eta EAEko Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, SA sozietateak-, Bizkaiko tarifak integratzea, garraio tituluak birtualizatzea, garraio moten elkarreragingarritasuna, Bilboko metroaren azpiegitura administratzea dagozkion eguneraketekin eta hobekuntzekin mantenduz eta, azkenik, lurralde historikoko garraio agintaritza lanak egitea.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak garraio publikoko erabiltzaileentzat lau aparkaleku ditu garraio moduekin konektatuta eta garraio publikoko erabiltzaileentzako tarifekin. BGPk txartel adimenduna du kolektibo eta garraio modu guztietarako (Barik deitzen dena) eta 2019ko ekitaldian 155,8 milioi bidaia baino gehiago egin ziren Bizkaian BGPk emandako garraio tituluekin. Horrek esan nahi du Bizkaiko Lurralde Historikoko bidaia guztiak kontuan hartuz, merkatu kuota % 86,60koa izan zela.

Gainera, 2017ko azarotik, Barik Bizkaiko garraio publikoan hedatu eta orokortu zelako eta titulu komun multimodalak martxan jarri zirelako, BGPk Bizkaiko garraio publikoaren bulegoen sarea kudeatzen du eta operadore bakarreko ikuspegi tradizionala ezartzearen ordez, lurraldeko garraioa modu orokorrean jorratzen du eta Bizkaiko garraio publikoko sistemaren operadore guztientzat bateratasun zuzentarauak eskaintzen ditu. 2019an bulegoen sarean 11 bulego zeuden.

EAEn gaur egun martxan dagoen metro bakarra Bilbon kokatuta dago eta Bizkaiko garraio sarea ezin da alderatu beste lurralde historiko batzuetakoekin. Bizkaian Renfek (antzinako FEVEz gain, gaur egun Renferen barne dagoena), Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascosek (zenbait trenbide lineekin, metroko linearekin, tranbia batekin eta funikular batekin [Reineta]) Bilboko metroak (2 linea), Bilboko Udalaren funikular batek (Artxanda), zubi eseki batek, Bilboko itsasadarreko *boteroek*, BFAk kudeatzen dituen Bizkaibus autobus lineek, Sopela, Leioa eta Erandioko udaletako autobus lineek, Bilboko Udalak kudeatutako Bilbobus lineek, Getxoko Ereagako igogailuak eta abarrek jarduten dute. Autonomia-erkidegoan ez dago beste partzuergo edo administraziorik BGPk egiten dituen eginkizunak betetzen dituenik.

Hala ere, partzuergo honek, HKEEk 2016ko txostenean adierazitakoen arabera eta ohar horiek kontuan hartuz, lanpostuen balorazioa egin zuen auditoretzako enpresa pribatu baten bidez eta aditu independenteekin, eta atera zituzten ondorioetan ez zituzten zalantzan jarri ordainsariak eta ez zuten zehaztu betetako lanpostuetarako ordainsariak gutxitu behar direnik. 2019ko langileen gastuak (I. kapitulua) GUTXITU egin ziren 2018koekin alderatuz (2018an 1.694.420,79 euroko betebeharrak onartu ziren kapitulu horretan eta 2019an, aldiz, 1.610.356,31 eurokoak) eta ez dira funtzioak, eskumenak eta antzekoak gutxitu edo ezeztatu. Alderantziz, geroz eta jarduketa gehiago egiten dira txikitzen doan plantilla batekin eta kalitatea galdu gabe.

Gainera, erakunde honetan, eta 40/2015 Legearen hitzaurrean xedatutakoa kontuan hartuz -bertan adierazten da araudi horren xedea atxikita dauden administrazio publikoaren aurrekontu, kontabilitate eta kontrol araubideari lotuta egongo diren partzuergoen aurrekontu zorroztasunean aurrera egitea dela-, BGPK urtero informazio ekonomikoa bidaltzen du:

- Urtean behin, BFAren Ogasun eta Finantza Sailak ekonomia eta finantza informazioa eskatzen duenean (BFA erakunde parte-hartzailea delako), BGPk eskatutako ekonomia eta finantza informazioa ematen du (auditoretza txostenak, kudeaketa txostenak, balantzea, ekonomia ondareko emaitzen kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, eskudiruzko fluxuaren egoera, memoria eta partzuergoko kideei buruzko informazioa).

- Hilean behin Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Kontroleko bulegora aldi bakoitzeko informazio ekonomikoa bidaltzen da. Urtean behin bulego horri finantza aktiboen stockaren aldakuntza garbia bidaltzen zaio eta kontuak egiten direnean urte bakoitzeko azken itxiera baita ere, egindako auditoretza lanekin.

  Egindako eskarietako bat gehitu da.

Gainera, BGPn kontrol alorreko jarduketa egokiak gauzatzen dira eta ohiko moduan alor ezberdinetako auditoretzako kontratazio ugari egiten dira konfiantza maila handiarekin, hala, informazio ekonomikoa jasotzen dutenei fidagarritasuna eta arrazoizko segurtasuna emateko. 2019ko ekitaldia zenbait auditoretzek berrikusi dute eta BGPren URTEKO KONTUAK berrikusi dira 2019ko kontu orokorraren dokumentazioarekin. Horrez gain, BETETZE eta ERAGIKETA auditoretzak egin dira 2019an hasitako kontratazio espedienteak berrikusiz (100.000 euro baino gehiagoko espediente guztiak eta ausaz aukeratutako 100.000,00 euro baino gutxiagoko 10 espediente kontratu txikiak barne, langileen gastu guztiak eta BGPren ordainsari politika, gutxienez 2019an sinatutako eta ausaz aukeratutako 2 hitzarmen BGPren gastu jarduketarekin eta 50.000 euro baino gehiagoko egiaztaketa materialak).

Gainera, 25/2013 Legearen 12-3 artikuluan xedatutako fakturen kontabilitate erregistroaren auditoretza ere egin da.

Era berean, enpresa garrantzitsu bateko auditoreek partzuergo honek gorabeherekiko duen esposizioa kudeatzeko hitzartuta dituen Cross Currency Swaps-en estalduraren balorazioa eta kontabilizazioa berrikusi zituzten, BGPk Depfa Bank-ekin 1997tik 51.000.000 USDko kopuruan hitzartuta duen mailegu baten interes tasak eta aldaketa tasak aztertuz.

Horrez gain, finantza kontrolaren alorrean, finantza kontroleko urteko plana ere egiten da, baita ere urteko laburpen txostena kontrol jarduketen emaitza nagusiekin eta ondoren egindako kontu-hartzailetzako emaitzekin, Metro Bilbao SAko etengabeko auditoretza eta kontrol jarduketak (kontu auditoretza, finantzazkoa ez den informazioaren egoera egiaztatzeko txostena eta barneko kontroleko gomendioen memoranduma), detektatutako akatsen aurkako ekintza plana ondoren aztertzeko neurri zuzentzaileekin eta egikaritze balorazioa.

Pandemia garaian BGPk kontu guztiak onetsi eta eman ditu epe guztiak errespetatuz.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN INGURUKO OHARRAK

III.1.2 BILBO METROPOLIKO TRENBIDE AZPIEGITUREN TITULARTASUNA

- *BGP sortzeko abenduaren 30eko 44/1975 Legearen 4.3 artikuluan ezarrita dago onetsitako proiektu bakoitzari dagozkion Bilbo Metropoliko Trenbide sarearen azpiegiturako obrak bukatzen doazen heinean, BGPri entregatuko zaizkiola eta azken horrek bidea, material mugikorra, elektrifikazioa, osagarriak eta zerbitzua ustiatzeko gainerako elementuak eman beharko dituela eta, horretarako, dagozkion proiektuak idatziko dituela.*

BGPren estatutuen 46. artikuluan xedatuta dago azpiegitura obrak bukatzen diren heinean entregatzen joango direla. Jasotze aktak erakunde bietako funtzionario baimendunek sinatu behar dituzte.

Txostena igorri den egunean oraindik ez da eskualdatu Bilboko Metropoliko Trenbideari dagokion ondasunen titulartasun juridikoa, baina BGPren eskura jarri da eta haren ibilgetuaren parte da (ikus A.5).

ALEGAZIOA

Ohar hori HKEEk 2018an BGP ikuskatzean egin zuen txostenaren 92. orrialdean ageri da (2016ri buruzkoa). Berriz ere, HKEE Bizkaiko Garraio Partzuergoari leporatzen zaio. Erakunde horrek ez du eskumenik aipatzen duen akatsa konpontzeko, eta, beraz, hala badagokio, EAEko Administrazioari aurkeztu beharko litzaioke gabezia hori, berari dagokiolako titulartasuna aldatzea.

HKEEren 2016ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenari egindako alegazioetan, Partzuergoak honako hau adierazi zuen:

"Kontuan hartu behar da transmisio hori ez egitea ezin zaiola egotzi BGPri, Eusko Jaurlaritzak ahalik eta lasterren egiteko eskatu baitzuen epean. Kasu horretan ere, ezin zaio egotzi Partzuergo honi eskualdaketa hori ez egitea ".

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN INGURUKO OHARRAK

III.1.3 AURREKONTUA

Uneko aurrekontua eta egikaritzea

- *Inbertsio errealen kapituluaren egikaritzearen azken aurrekontua 32,9 milioi eurokoa da eta 12,4 milioi euro gehitu da; horrek esan nahi du kapitulu horren egikaritzea urria izan dela (% 37,6), azken urteen antzera (ikus A.5)..*

ALEGAZIOA

Partzuergo honen egikaritzea bat dator inguru hurbileko bestelako administrazioek egiten dutenarekin.

Lanak planifikatzea konplexua da eta jarduketak zorrotzak izan behar direnez, askotan aurreikusten dena ezin izaten da hasieran uste den moduan egikaritu. Gainera, jarduketa asko beste erakunde batzuen menpe daude (ADIF Urbinagako aldageltokian, Urdulizko Udala eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa Urdulizko lurperatzeko saneamenduan, eta abar.). Proiektuak egin behar dira, obrak adjudikatu behar dira, lanak egiaztatu behar dira eta bestelakoak egin behar dira zereginak guztiz egikaritu ahal izateko. HKEEk bere txostenean azaldu moduan, lan horietako batzuetan, BGPren jarduketa lanen finantzaketa egiteko zehazten da eta obra ziurtagiriak jaso, kontabilizatu eta ordaintzen direnera arte, orokorrean, 30 egun baino gutxiago igarotzen dira.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN INGURUKO OHARRAK

III.1.4 LANGILEAK

Izendapena

- *Diruzainaren lanpostuko titularrak eszedentzia hartu zuelako egindako behin-behineko lanpostuaren izendapenak ez du betetzen 128/2018 LEDren 52. artikuluan aurreikusitakoa, izendatutako funtzionarioa ez delako A1 azpitaldekoa. Gainera, behin-behinean EJKri prestakuntza egokia duen bere funtzionario baten izendapena egiteko eskatzeko aukera jasota dago, betiere, A1 azpitaldekoa bada. Gainera, 6. DAn BFAren lankidetza lanpostua izateko aukera edo lanpostua ezeztatzeko aukera jasota daude.*

ALEGAZIOA

Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako informazioen arabera, BGPko diruzaintzako lanpostuaren titularra aldi baterako hutsik dagoenez, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiak iragarki bat argitaratu zuen 2019ko uztailaren 19ko BAOn (134. zk.), gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioek lanpostu horretarako izendatuak izateko interesa adieraz dezaten.

Emandako epea igarota, gaikuntza nazionala duen funtzionario (GNF) batek ere ez zuen adierazi izendapen horretarako interesa zuenik.

Aldez aurretik, lanpostu hori hutsik egon ez dadin, Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatuaren uztailaren 9ko 7.729/2019 Foru Aginduaren bidez, L. M. S. A. jaunari behin-behineko diruzain izendapena eman zitzaion, 2019ko uztailaren 7tik lanpostua legez bete arte. Foru Agindu hori interesdunei jakinarazi zitzaien BGPri eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari.

Kontuan hartuta BGPren diruzaintzako lanpostua ez duela GNF batek ere bete, Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatuaren uztailaren 9ko 7.729/2019 Foru Aginduaren bidez egindako behin-behineko izendapenak indarrean jarraitzen du.

Bestalde, adierazi den bezala, GNF lanpostuetarako behin-behineko izendapenak egiteko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, eta, beraz, Foru Aldundiari dagokio izendapen horiei buruzko araudia eta betekizunak interpretatzea. Hala eta guztiz ere, A1 azpitaldeko kide izateko eskakizunari dagokionez, 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, gaikuntza nazionaleko toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 5.000 biztanletik gorako toki-korporazioetara mugatzen du. Eremu hori, jakina, ez dago Bizkaiko Garraio Partzuergoaren barruan, eta izendatutako pertsonak prestakuntza tekniko egokia eta unibertsitate-titulazioa izateko baldintzak betetzen ditu. Aipatutako artikulua. 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluak honela dio:

> *1. Lanpostua ezin bada bete Errege-dekretu honen aurreko artikuluetan aurreikusitako prozeduren bidez, toki-korporazioek autonomia-erkidegoei eskatu ahal izango diete, behin-behinean, prestakuntza tekniko egokia duen funtzionario bat izendatzeko, eta, ahal bada, A1 azpitaldekoa edo*

unibertsitate-tituluren bat duena. 5.000 biztanletik gorako toki-korporazioetan, nolanahi ere, A1 azpitaldeko karrerako funtzionario bat izango da.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN INGURUKO OHARRAK

III.1.4 LANGILEAK

Aurrekontu plantilla eta LPZ

- *2010etik aurrera funtzionarioen 28 lanpostuko plantilla jasotzen da aurrekontuan eta onetsitako lanpostuen zerrendari dagozkionak dira, baina, 2019ko abenduaren 31n bete gabe zeuden 5 lanpostu ere jaso dira. 2011n Bilbo Metropoliko Trenbidearen 2. linea martxan jartzeko lanak bukatu ziren eta 2004an ETS sortu zen Bilbo Metropoliko Trenbidearen 3. linea eraikitzeko. Gainera, Bizkaiko garraio publikoen kontakturik gabeko Barik txartelak ezarri ziren 2012an eta ondoren txartel modalitate berriak sortu ziren; horrekin guztiarekin aldaketa nabarmenak ezarri dira BGPren jardueran, eta gomendagarria da egungo eta epe ertaineko behar errealak aztertzea eta LPZ eta aurrekontu plantilla behar horietara egokitzea.*

ALEGAZIOA

Ohar hori HKEEk 2018an BGPren 2016ko ekitaldia fiskalizatzeko egindako txostenean dago jasota, baina, kasu honetan adierazten zen LPZn 2016ko abenduaren 31n bete gabe zeuden 7 lanpostu zeudela. 2019ko txostenean jasota dago LPZn bakarrik 5 lanpostu zeudela bete gabe 2019ko abenduaren 31n.

BGPk HKEEk 2016 ekitaldiko fiskalizazio-txostenean adierazitakoak gauzatu ditu. Enpresa espezialista batekin lanpostuen katalogo berri bat egin du, partzuergoa berritu da 2 zerbitzu berrantolatuz (zerbitzu orokorretakoak ez diren hiruetatik bi) eta aurretik aipatu den moduan, hiru lanpostu amortizatu dira eta lanpostu berri bat sortu da teknologiaren, komunikazioen eta IKTen behar berrietara egokituta. Jarduketa horiek 2019ko apirilaren 9ko Kontseilu Nagusiaren bileran onetsi ziren (12. puntuan) eta horren bitartez Ekonomia eta Finantza Planifikazio eta Azterketa Zerbitzua eta Tarifen Kudeaketa eta Koordinazio Zerbitzua berregituratu ziren, Finantza Planifikazio eta Tarifa Integrazioko Zerbitzuan biak batuz.

BGPren 2017ko uztailaren 13ko Kontseilu Nagusiaren bileran enplegu publikoko eskaintza onetsi zen baita ere. Deialdiaren oinarriak 2018ko urriaren 16ko Kontseilu Nagusiaren bileran onetsi ziren. 2019ko azaroaren 25ean epaimahai kalifikatzaileak hautaketa prozesua bukatu zuen eta izendapen proposamena egin zuen eta, horregatik, 2020ko otsailaren 28ko bileran Batzorde Betearazleak (4. puntuan) Kontu-hartzailetzako ekonomialariaren lanpostuaren izendapena egin zuen, A taldea, A2 azpitaldea eta administrazio bereziko eskala (LPZko 25. zk.) mailan. Horren ondorioz, 2020ko otsailaren 28ko Kontseilu Nagusiaren bilerako 16. puntuan **lanpostuaren amortizazioa** onetsi zen modu honetan: Ofizial administrari funtzionarioa K.N. Lanpostuen zerrendako zk.: 12.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN INGURUKO OHARRAK

III.1.4 LANGILEAK

Aurrekontu plantilla eta LPZ

- *BGPko funtzionario batek, orain dela 17 urte BGPn lanean hasi zenetik oker jasotzen du administrazio publikoko menpekoa den merkataritza sozietate batean aurretik emandako zerbitzuetan oinarritutako hirurtekoa, izan ere, sozietate horiek ez dira erakunde administrazioaren barnekoak Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera eta Administrazio publikoan aurretiaz emandako zerbitzuak onartzeko abenduaren 26ko 70/1978 Legearen 1.2 artikuluaren ondorioetarako.*

ALEGAZIOA

Ohar hori HKEEk 2018an BGPren 2016ko fiskalizazioari buruz egindako txostenaren 93. orrialdean jasota dago, kasu horretan, 2 funtzionarioen inguruan. Hirurtekoen aintzatespena bere garaian egin zen 70/1978 Legearen, abenduaren 16koaren, 1. artikuluari eta 1461/1982 Errege Dekretuari, ekainaren 25ekoari jarraikiz, Eusko Trenbideaki estatuak RENFEri aitortutako tratu bera esleituta. (Estatuko Zerbitzu Juridikoaren Zuzendaritza Nagusiaren irizpena, 1989ko irailaren 12koa).

IV. INBERTSIO PLANA, FINANTZA PLANA ETA FINANTZA EGOERA

- *2020tik aurrera ia ez dago egiteke dagoen inbertsiorik…Ez dago BGPrentzako inbertsio garrantzitsurik aurrekontuan hurrengo urteetan.*

ALEGAZIOA

2018an 2016ko ekitaldiari buruz egindako txostenean jasotzen zen baita ere 2017tik aurrera ia ez zegoela egiteko geratzen zen inbertsiorik eta hurrengo urteetarako ez zirela aurrekontuan jaso BGPrentzat garrantzizkoak izango liratekeen inbertsiorik.

HKEEren egungo txostenaren A2 apartatuan BGPren konpromiso kredituak daude jasota (2020tik 2023ra arte), guztira 17.171 mila eurokoak, eta A5 eranskinean 12.401 milioiko onartutako inbertsioak xehatzen dira. Inbertsio horiek ez egiteak esan nahiko luke nagusiki Bilboko Metropoli Trenbideak ezingo lukeela zerbitzua egungo kalitatearekin eta kategoriarekin eman.

Iritzi horrek zalantzan jartzen du martxan dagoen enpresaren iritzia -sektore publikoari egokitutako NIA-ES-SP 1570 R arauaren arabera ezarritakoa eta IGAEren 2019ko urriaren 25eko ebazpenaren bidez onetsitakoa.

Tokiko erakunde honek konpromiso iraunkorra du kontrolarekin eta gardentasunarekin, beti barneko kontrol finkoa ezartzea eta mantentzea bilatzen du eta HKEEren txostenak aztertzen ditu meresitako zorroztasunez kontuekin (bere eginkizunetan badaude), izan ere,

BGPk legarekin batera egiten du bere ibilbidea, hobetzeko asmoa dauka eta horrela erakusten ari dela.

BGPren nahiko du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak urtero fiskalizatzea denbora gehiagorekin eta behar diren ebidentziekin egiazta ditzan aurrekontu-likidazioan eta ondare-kontabilitatean egindako erregistroak, eta, horrela, segurtasunik ezak eragin ditzakeen iritzi okerrak saihesteko.

TXOSTENAREN ONDORIOEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

II. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZI BAT

METRO BILBAO, S.A. SOZIETATE PUBLIKOA

LANGILE GASTUAK

2. 2019an, MBSAk 10 langileren aldi baterako lan kontratuak mugagabe bihurtu ditu, MBSAren Hitzarmen Kolektiboan jasotako barne sustapeneko prozeduraren bidez, eta, beraz, ez ditu bete enplegu publikoa lortzeko bidea arautzen duten publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak.

ALEGAZIOA

HKEEk adierazi duenez, MBSAk 10 langileren aldi baterako lan kontratuak mugagabe bihurtu ditu, MBSAren Hitzarmen Kolektiboan jasotako barne sustapeneko prozeduraren bidez, eta, beraz, ez ditu bete enplegu publikoa lortzeko bidea arautzen duten publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak.

Baina ez gaude ados adierazpen horrekin. Aipaturiko 10 kontratazioetan hautaketa prozesu bana egin da, eta, horrez gain, hautaketa prozesua arututa eta dokumentatuta dago, eta sozietate honen kontratazio prozedura arruntaren arabera egin da.

Hautaketa prozesua egitean, lizitazio agirietan bertan ezinbesteko baldintza gisa ezartzen zaie langileak hautatzeko prozesuen kanpo kudeaketa esleitu zaien enpresei berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzea eta bermatzea. Ondorioz, printzipio horiek edozein hautaketa prozesuren hasieratik jasotzen dira.

Era berean, MBk enplegua lortzeko sistema bat prestatu du, aipatutako berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituena, deialdi publikoen, proba objektiboen eta banakako balorazioen bidez, eta, lanpostua lortzea ebaluazioaren emaitzarekin zuzenean lotzen duena.

MBn enplegu finkoa lortzeko, prozedura arrunt eta orokor bati jarraitzen zaio:

- Lehenik eta behin, aldi baterako enplegua lortzen da: horretarako, prozedura bat eta hautagai guzti-guztien banakako ebaluazio bat dago, eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direla bermatzen da:
    - MBk, lizitazio agirietan bertan ezinbesteko baldintza gisa ezartzen die langileak hautatzeko prozesuen kanpo kudeaketa esleitu zaien enpresei berdintasun,

merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzea eta bermatzea. Ondorioz, printzipio horiek edozein hautaketa prozesuren hasieratik jasotzen dira.

- Langileak kanpoko hautaketa prozesuen bidez kontratatzeko deialdia jendaurrean egiten da; hain zuzen, hautaketa prozesuaren iragarkiak argitaratzen dira hiru egunkaritan.
- Kanpoko enpresak prozesua egin ondoren, hainbat ebaluazio probaz osatua, lehen hautaketaren zerrenda helarazten dio MBri, eta MB mediku azterketak eta elkarrizketa pertsonalak egiten hasten da, MBko barne langileekin.
- Kanpo prozesuan jarritako proba guztiak gainditu dituzten hautagai baliodunen zerrendan, MBri entregatu zaionean, hainbat profil bereizi daude, MBren beharrak betetzeko arlo hauetan: bezeroak artatzea, gidatzea, mantentze lanak egitea eta laguntzaileak.
- Hautagai baliodun eta egokien zerrenda entregatu ondoren, MBk azterketa medikoak eta elkarrizketa pertsonalak planifikatzeko eta egiteko prozesua hasten du zerrenda horretako hautagaiekin, eta arlo guztietan dauden kontratazio beharren arabera deitzen zaie.
- Elkarrizketa pertsonalei dagokienez, Metro Bilbao-ren Pertsonen Garapeneko (Hautaketa) arduradunak, bere prestakuntza, esperientzia eta erantzukizunaren babespean, elkarrizketen egitura bat dauka definituta plantilla baten bidez, non eremu guztiak baloratzen diren banan-banan.
- Elkarrizketa pertsonala eta azterketa medikoa gainditu duten hautagai guztiei telefonoz deitzen zaie, eta guztiek aukera dute prozesuan jarraitu eta MBko enplegatuen taldean sartzeko, hasiera batean aldi baterako kontratuarekin, berariaz eta idatziz prozesuan ez jarraitzea eskatzen duten hautagaiak kenduta.

- Aldi baterako kontratua egin ondoren, prozedura objektibo eta berdintasunezko bat erabiltzen da enplegu mugagabea lortzeko. Prozedura hori, gainera, Hitzarmen Kolektiboan hitzartuta dago, eta sindikatuetako ordezkariek bere berri dute.

Jada azaldu da, zehatz-mehatz, aldi baterako enplegua lortzeko sistema. Jarraian, labur-labur deskribatuko dugu gaur egungo prozesua, HKEEk aipatutako 10 langileei aplikatu zaiena enplegu finkoa lortzeko.

Lanpostu huts finkoak betetzea araututa eta hitzartuta dago, eta, esan bezala, aldi baterako kontratua duten langileek betetzen dituzte postu horiek.**Barne Araudiak**, MBren Hitzarmen Kolektiboaren parte denak, honako hau xedatzen du:

Lanpostu hutsak betetzeko kanpo prozesua

Langile berrietatik egokienak hautatzeko, irizpide hauek hartzen dira kontuan, eta denak bete behar dira:

- Hautagaiaren curriculumaren profila lanpostura egokitzea: titulazioa, esperientzia MBSAn edo enpresan bertan, eta lanposturako behar den euskararen eta beste hizkuntza batzuen ezagutza maila.

- Jardunaren ebaluazio txostena, lanposturako gaitasunak, autonomia eta ezagutza teknikoak baloratuta, eta enpresan duen antzinatasunarekin alderatuta.
- Antzinatasuna enpresan, eta ibilbide profesional egokia MBSAn.

  Lehenengo irizpidea baztertzailea da, eta beste biak batera eta modu orekatuan tratatu behar dira. Oreka horretan, aldi baterako langileei kontratu mugagabea egiteko ordena ezartzeko, antzinatasun baliokideko sustapenetan taldekatzen dira, 4 hilabeteko tarteak hartuta. Antzinatasun baliokide beraren barruan, jardunaren ebaluazioaren arabera ordenatzen dira langileak. Behar bezala justifikatuta dagoenean, salbuespenak egin daitezke (adibidez, gaitasun medikoagatik).

  Bi urtetik gorako antzinatasunetik gora langile horiei kontratu mugagabea egiteko zerrenda ordenatua aurkeztu behar zaio Enpresa Batzordeari (behin-behineko langileen zerrenda berrikusgarria, atal honetako arauen arabera).

  Azterketa Epaimahaiari informazioa eman behar zaio aldi baterako langileen egoeraren azterketari buruz, ezarritako baldintzetan, eta hartu beharreko erabakiari buruz; erabakiaren oinarri den informazio guztia berrikusi ahal izango da.

  MBSAko sarrera mailan ibilbide profesionalen kudeaketa hobetzeko, euskararen ezagutza bi profiletan aurreikusten da: “Bezeroaren arreta” eta “Teknikaria”.

  Esparru teknikoko edo humanistako prestakuntza akademikoa duten pertsonak hautatuko dira, baina bi kasuetan bermatuko da bezeroari arreta emateko esparruan lan egiteko gaitasuna dutela, “hori baita enplegu finkoa lortzeko aukeraren nitxo naturala”. Horrela:
- Prestakuntza akademikoan, eremu teknikoko edo humanistikoko profila, geltokietako, gidatzeko eta mantentze lanetako beharretara egokituta.
- Gaitasunen profilari dagokionez, bezeroari arreta emateko eremuan ebidentziak edo portaerak egon behar dute, bezeroari arreta emateko lanpostura behar bezala egokitu ahal izateko.
- Bi profiletan (teknikoa eta bezeroaren arreta) euskara jakitea beharrezkoa da, geltokietako egungo parametroetan.
- Neurri horrek, MBSAn sartzean sexuagatiko diskriminaziorik ez egotea sustatzen du.

Hautagaiak aukeratzeko kanpo prozesua

Egiten diren kanpoko hautaketa prozesuetan, azterketaren zuzenketa berrikusteko aukera emango da.

Kanpo prozesuak gardenagoak izateko, fase bakoitzaren ondoriozko informazioa pertsonen Behatokian jakinaraziko da, hautagaien izenak zabaltzea saihestuz.

Kanpoko hautaketa prozesuetan, profil teknikoen eta humanistikoen arteko oreka bultzatuko da, geltokietako, gidatzeko eta mantentze lanetako eremuetarako azken hautagaietan.

Adierazitako guztia betetzeaz gain, Hitzarmen Kolektiboaren 66. artikuluan (Beste batzorde batzuk) ***lanpostuak betetzeari buruzko Jarraipen Batzordea*** dago zehaztuta; Hitzarmen Kolektiboa sinatu duten sindikatu ataletako kide bana du, eta, bere kontrol helburuen artean, honako hauek daude:

- Langile berriak sartzea.
- Aldi baterako langileen txandakatze poltsaren jarraipena egitea, aldi baterako langileen kontratazioaren banaketa orekatua izateko.
- Kanpo prozesuaren ondoriozko hautagai zerrendaren jarraipena egitea, bermatu ahal izateko zerrendan dauden pertsonak direla, hain zuzen ere, aldi baterako kontratua egingo zaienak.

  Batzordeak zainduko du kontratazio mugagabeari buruzko erabakiak hartzen parte hartzen duten ebaluazio tresnen aplikazioa modu egokian egiten dela.

Beraz, aldi baterako langileak ebaluatu egiten dira, eta, Hitzarmen Kolektiboan deskribatutakoaren arabera, kontratu mugagabea egiteko aukera duten langileen "rankingean" sartzen dira.

Aldi baterako langileen ebaluazioak irizpide objektibo, homogeneo eta aurrez ezarritakoen arabera egiten dituzte kasuan kasuko Buruzagitzek. Ateratzen den rankinga lanpostuak betetzeari buruzko Jarraipen Batzordeari aurkezten zaio, eta, horrek, kontratu mugagabeak egitean dagokion ordena zorrotz betetzen dela zaintzen du.

Laburbilduz, 2019an egindako 10 kontratu mugagabeak ez dira edozein prozeduratik kanpo egindako kontratazio espontaneo edo arbitrario baten ondorio; aitzitik, MBn plazak betetzeko ohiko sistema aplikatzearen ondorio zuzena dira. Sistema horrek bi fase ditu: lehenengoa, zeinean langileari aldi baterako kontratura egiten zaion, eta, bigarrena, zeinean, baldintza eta ebaluazio jakin batzuk betetzen direla egiaztatu ondoren, kontratu mugagabea egiten zaion. Beraz, guztiz okerra da esatea ez dela egin publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen dituen hautaketa prozesurik; are gehiago, hautaketa prozesua bikoitza izan da, edo hautagaien ebaluazio bikoitza egin da hautaketa prozesuan: lehenik eta behin, aldi baterako enplegua lortzeko, eta bigarrenik, enplegu finkoa lortzeko. Bi faseek beren prozedurak dituzte eta araututa daude.

Hau da, aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea ez da inguruabar isolatu gisa edo plazak betetzeko urrats independente gisa ikusi behar. Aldi baterako kontratazioarekin hasitako lanpostuak betetzeko prozesuaren amaiera arrakastatsua da. Une horretan, plazen deialdi publikoa egiten da, baldintzak betetzen dituen pertsona orori irekia; ordutik aurrera, lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuaren fase guzti-guztiak gauzatzen dira, eta amaieran, kontratazio finko efektiboa irits daiteke. Nolanahi ere, sarbide orokorraren printzipioa edozein hautaketa prozesutan bezala predikatu behar da, hasierako faseari dagokionez soilik, eta hurrengo faseetara aurrekoak gainditu dituztenek bakarrik aurkeztu behar dute; ez da beharrezkoa fase bakoitza gizartearen unibertso osoari berriro irekitzea, kasu horretan hautaketa prozesua bideraezina izango bailitzateke. Fasekako hautaketa

prozesu orok, baita Administrazioarenak ere, lehenengo faseak gainditu dituzten hautagaiei bakarrik uzten die parte hartzen hurrengo faseetan. MBren sistemak hautagaiei begira duen berezitasun bakarra da prozesuaren faseetako bat dela aldez aurretik aldi baterako langile gisa jardutea, baina berezitasun horrek ezin dio inola ere eragin berdintasun printzipioari, interesdun orok baitu aukera aldi baterako lanpostuen deialdian parte hartzeko.

Enpresan aldi baterako kontratua duten langileetatik abiatuta lanpostu finkoak betetzeko sistema horiek, kolektiboki hitzartutako xedapenak aplikatu ondoren, baliozkotu egin zituen **Auzitegi Gorenak 2016ko uztailaren 6ko Epaiaren bidez**. Horren arabera, zuzenbidearen araberakoa da aldi baterako langileetatik abiatuta lanpostu finkoak betetzeko sistema:

> *"Gogoratu dezagun Fiskaltzaren txostena, argigarria da eta: negoziazio kolektiboaren esparruan, enpresaren eta sindikatuen ordezkariek akordioa lortu dute lanpostu hutsak betetzeko, eta lehentasuna eman diete aldizkako langile finkoei eta duela denbora gutxi sei hilabetez lanean aritu zirenei; akordio horrek, berez, ez du inolako muga edo oztoporik jartzen lanpostu horiek eskuratzeko orduan.*
>
> *D) Kontuan hartuta enpresaren jarduera nagusia (larrialdietan arreta ematea, baso suteak prebenitzea eta itzaltzea, ingurumena zaintzea, etab.), komenigarritzat jo daiteke aipatutako zerbitzuak emateko prestakuntza egokia duten langileak hartzea, inolako eskakizun konstituzionalik urratu gabe.*

Izan ere, Auzitegi Gorenak berak adierazten du printzipio konstituzionalak betetzen direla, lanpostu finko bat eskuratzeko eskubidea ematen duen aldi baterako enplegurako deia publizitatearekin eta nahi duen orori egiten zaion neurrian:

> *"Bestalde, errekurtsoan nolabaiteko kontraesana dago: kolektibo "pribilegiatuek", egoera horretan egoteko, proba batzuk gainditu behar izan dituzte aldez aurretik, eta ez da horren inguruko hausnarketarik egiten.*
>
> *Edo proba haietan ez ziren eskakizun konstituzionalak errespetatu, eta beraz, ez luke zentzurik ondorio eratorri bat zalantzan jartzeak, arazo nagusia ahaztuta. Edo, bestela, berme horiek bete dira, eta ez du zentzurik berriro eskatzen hasteak".*

Kasu honetan, aipatutako epaian bezala, jende guztiari bermatu zaio sarbidea, edozein pertsonak aurkeztu ahal izan du prozesuan. Are gehiago, 2019ko aldi baterako langileen poltsarako deialdian bertan adierazi zen hasierako sarbidea aldi baterako kontratuaren bidez egiten bazen ere, gerora egiturazko plaza bat lor zitekeela.

Era berean, Auzitegi Gorenak aztertutako kasuan bezala, kontratatutako langileen jarduera berezia dela eta (geltokiaren ikuskapena, trakzio elektrikoko makinista, mantentze mekaniko-pneumatikoko teknikariak edo trenbidea mantentzeko teknikariak; guztiek trenbide segurtasunean parte hartzen dute), ezinbestekoa da prestakuntza maila oso espezifikoa izatea. Hala, lan merkatuan ezinezkoa da MBn horrelako jarduerak egiteko prestatutako langileak aurkitzea, eta, ondorioz, MBk langile berri ororekin aurretiazko gaikuntza lana egin behar izaten du. Prestakuntzaren espezifikotasun hori dela eta, gomendagarria da plaza finkoak aldi baterako langileetatik abiatuta betetzea, horiek baitira jada prestatuta eta gaituta dauden langile bakarrak, MBrentzat baliozkoak lanpostu hutsak betetzeko.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

III.2.1 LANGILEAK

- *Aldi baterako langileak kontratatzeko, oro har, lan poltsak erabiltzen dira, eta 2019an, aldi baterako 196 kontratazio (42 pertsona) egin dira era horretan: 188, 2016an bezeroaren orientaziorako eta arlo teknikoko lanpostuetarako deitutako aldi baterako lan poltsatik, eta beste 8ak, 2019an eremu teknikoko aldi baterako kontratazioetarako deitutako lan poltsatik, etorkizunean mugagabe bihurtzeko aukerarekin.*
- *Poltsa horiek egiteko, MBSAk enpresa espezializatu bati kontratatzen dio egin beharreko proben publizitatea eta garapena, eta hautagaien azken zerrenda jasotzen du. Ondoren, MBSAk beste proba batzuk egiten ditu, poltsa barematu bat eratu gabe, eta ez ditu dokumentu bidez jasotzen egindako haztapenak eta emandako puntuazioak, kanpoko enpresak emandako hautagaien artean azken aukeraketa egiteko erabiltzen direnak.*

ALEGAZIOA

HKEEk adierazi du hautaketa prozesuan ez dela poltsa barematurik eratzen eta ez direla dokumentu bidez jasota geratzen egindako haztapenak eta emandako puntuazioak, kanpoko enpresak emandako hautagaien artean azken aukeraketa egiteko erabiltzen direnak.

Iritzi horrekin ados ez gaudenez, MBk hautagaiak aukeratzeko egindako prozesua gogoraraziko dugu:

- MBk, lizitazio agirietan bertan ezinbesteko baldintza gisa ezartzen die langileak hautatzeko prozesuen kanpo kudeaketa esleitu zaien enpresei berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzea eta bermatzea. Ondorioz, printzipio horiek edozein hautaketa prozesuren hasieratik jasotzen dira.
- Langileak kanpoko hautaketa prozesuen bidez kontratatzeko deialdia jendaurrean egiten da; hain zuzen, hautaketa prozesuaren iragarkiak argitaratzen dira hiru egunkaritan.
- Kanpoko enpresak prozesua egin ondoren, hainbat ebaluazio probaz osatua, lehen hautaketaren zerrenda helarazten dio MBri, eta MB mediku azterketak eta elkarrizketa pertsonalak egiten hasten da, MBko barne langileekin.
- Kanpo prozesuan jarritako proba guztiak gainditu dituzten hautagai baliodunen zerrendan, MBri entregatu zaionean, hainbat profil bereizi daude, MBren beharrak betetzeko arlo hauetan: bezeroak artatzea, gidatzea, mantentze lanak egitea eta laguntzaileak.
- Hautagai baliodun eta egokien zerrenda entregatu ondoren, MBk azterketa medikoak eta elkarrizketa pertsonalak planifikatzeko eta egiteko prozesua hasten du zerrenda horretako hautagaiekin, eta arlo guztietan dauden kontratazio beharren arabera deitzen zaie.

- Elkarrizketa pertsonalei dagokienez, Metro Bilbao-ren Pertsonen Garapeneko (Hautaketa) arduradunak, bere prestakuntza, esperientzia eta erantzukizunaren babespean, elkarrizketen egitura bat dauka definituta plantilla baten bidez, non eremu guztiak baloratzen diren banan-banan.

Beraz, hautagai guzti-guztiak banaka baloratzen dira. Hautaketa egitean kontuan hartu behar dira erakundearen barruko hainbat profil, tailerreko eremu teknikotik bezeroen arretara. Horregatik, kontratazioaren xede den lanpostuaren profilaren eta betekizun espezifikoen (akademikoak, linguistikoak eta esperientziari dagozkionak) arabera antolatzen dira hautagaiak.

Elkarrizketa pertsonala eta azterketa medikoa gainditu duten hautagai guztiei telefonoz deitzen zaie, eta guztiek aukera dute prozesuan jarraitu eta MBko plantillan sartzeko, berariaz eta idatziz prozesuan ez jarraitzea eskatzen duten hautagaiak kenduta.

Alde batera utzita HKEEk bere txostenean adierazitakoa ez datorrela bat espedientean benetan jasota dagoenarekin, gogoratu behar da zein den MBk lanpostua eskuratzeko eta sustatzeko kudeaketan betetzen duen araubidea. MBk, jada adierazi den moduan, enplegua lortzeko sistema bat prestatu du, aipatutako berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituena, deialdi publikoen, proba objektiboen eta banakako balorazioen bidez, eta, lanpostua lortzea ebaluazioaren emaitzarekin zuzenean lotzen duena.

Hala ere, MB merkataritza sozietate publikoa den aldetik, aipatutako printzipio gidariak aintzat hartuta, ez dago Administrazio Publikoaren langileen kontratazioa arautzen duten prozeduren eta formalitateen mende. Badirudi HKEEk bere txostenean, bidegabeki, Administrazio batekin parekatu duela MB lanpostuak betetzeko prozeduren eta sistemen ondorioetarako, nahiz eta MB printzipio gidarien mende bakarrik dagoen, eta ez Administrazio Publikoaren langileei aplikatzeko araudiaren prozedura guztien mende. Hau da, MBk aipatutako printzipioak errespetatu behar ditu, baina merkataritza izaera duenez, horrek ez du esan nahi Administrazio Publikoaren funtzionarioei eta langile lan kontratudunei aplika dakiekeen araudiko prozesuen eta baldintzen mende egon behar duenik nahitaez, eta enplegu publikorako sarbide librea errespetatzen duten prozedura alternatiboak diseina daitezke, baina ez dute nahitaez bat etorri beharrik erakunde publikoetako araudi espezifikoarekin.

Bereziki argigarria da gure **Justizia Auzitegi Nagusiak 2017ko uztailaren 18ko Epaian** horri buruz ezarritako doktrina, honako hau baitio:

> *"errekurtsogileak Enplegu Deialdi Publikoari buruz arrazoitzen dituen legezkontrakotasun salaketak direla eta, hasita errekurtsogileak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren (EPOE) babespean eskatutakoa izan ezin den arau esparru aplikagarri baten eraketatik, izan ere, alderdi errekurritua enpresa erakunde publikoa da, sorrera araudia (maiatzaren 20ko 5/82 Legea) eta bertan sartzeko arauak zehazteko Hitzarmen Kolektiboa dituena, beharrezkoa da, lanpostuak betetzeko premisak aztertzeko betebeharrari dagokionez, sarbide sistema stricto sensu bat aztertzea, ez dena Funtzionarioen Estatutuko lan eskaintza publiko baten berezkoa eta zuzena, baizik eta Sozietate Publiko generikoen deialdiari berari lotzen zaiona, deialdiaren beraren eta haren eraketa arau indibidualen edo kolektiboen azterketa errealitate bat osatuta. Horrekin, berretsi egiten ditugu gure aurreko ebazpenak, Sozietate Publikoari aplikatu beharreko*

araudia ez baita Administrazio Publiko batena zentzu espezifikoan, EPOEren 1. Xedapen Gehigarriaz haratago, zeina, gainera, dagoeneko aplikatu baita Auzitegi Gorenaren epai horretan, eta inola ere ez du baieztatzen EPOE osorik aplikatzen denik (20. Azken Xedapenari buruzko eztabaida).”

Iritzi hori mantentzen du geroko adierazpenetan, hala nola **2017ko azaroaren 28ko epaian:**

“Hala ere, adieraziko dugu alderdi demandatua erakunde publikoa denez ez zaiola EPOE aplikatzen, eta, beraz, plazak lortzeko prozesuan bere araudi propioa bete behar dela”.

Ondorioz, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu behar dira, noski, baina helburu hori erregulazio kolektiboaren bidez lortu daiteke, eta ez nahitaez erakunde publikoetara sartzeko araudiari eutsiz. Hori dela eta, printzipio horiek bete direla jotzen da, sozietateari aplikagarri zaizkion sarrera sistemak eta araudi propioa errespetatzeagatik eta betetzeagatik.

MBren kasuan, sartzeko sistema bat hitzartu da kolektiboki, eta, azaldu den moduan, behar bezala araututa eta tasatuta dago. Halaber, organo paritarioek etengabe kontrolatzen eta ikuskatzen dute, eta erakunde publikoen araudia zorrotz aplikatuz lor daitekeen trazabilitate eta objektibotasun bera eskaintzen ditu.

- *2019ko abenduaren 31n, 5 zuzendari eta 22 buruzagi daude Hitzarmenetik kanpo, eta erdi mailako 31 arduradun lanpostu eta 52 teknikari lanpostu Hitzarmenean. Zuzendarien, buruzagien eta erdi mailako arduradunen lanpostuak izendapen askez hornitzen dira, eta teknikarien lanpostuak izendapen askez eta oposizio-lehiaketaz % 50ean, 6 urteko denbora horizontea erreferentziatzat hartuta.*

  Hitzarmenak hala aurreikusten badu ere, gomendagarria litzateke salbuespen izaerak ematen dizkien ezaugarriak eta erantzukizun bereziak berariaz definitzea, lanpostuak betetzeko sistema izendapen askekoa izan dadin, Hitzarmenean ezarritako lehiaketako sistema orokorraren ordez, eta lanpostua betetzeko hautatu den langileari buruzko justifikazio txostena egitea. 2019an hiru langile izendatu dira barne sustapenez, izendapen askez hornitzen diren mailetan.

ALEGAZIOA

Hitzarmen Kolektiboak, lanpostu hutsak betetzeko Barne Prozesuaren atalean, honako hau jasotzen du berariaz:

- G ordainsari mailako lanpostuetan hutsik dauden lanpostuak betetzeko, bai eta Zuzendaritzako Idazkaritzako lanpostua betetzeko ere, enpresaren Zuzendaritzak izendapen askea egingo du.
- F mailako lanpostu hutsak izendapen askearen eta oposizio-lehiaketaren bidez beteko dira, % 50ean (6 urteko denbora horizontea erreferentziatzat hartuta). Lanpostuak betetzeko edozein modalitatetan, F edo G mailan hautatutako langileek lanpostuaren profilaren baldintzak bete behar dituzte, edo, bestela, barne sustapenean jardunaren

balorazioaren aplikazio orokorreko irizpideen babespean egon behar dute (lehen, 13. ekintza zeritzona).

2019an gauzatutako prozesuak, gure ustez horiei buruzkoa baita HKEEren gomendioa, guztiak ere barne sustapenaren bidez eta Hitzarmen Kolektiboaren babesean egindakoak, honako hauek dira:

- Sistemen Buruzagitza (JU maila). Ondoriozko hautagaia: 649. langilea
- Langileen Administrazioko teknikariak (F maila). Ondoriozko hautagaia: 123. langilea
- Gerentziako Idazkaritzako arduraduna (G maila). Ondoriozko hautagaia: 47. langilea

Izendapen askeko sistemaren bidez lanpostuak betetzea, lanpostu hutsak betetzeko salbuespenezko sistema bada ere, gure ordenamendu juridikoan onartuta dago sektore publikoan. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea ez da aplikagarria MBn, baina arau erreferentzia gisa balio dezake ondorio horietarako, eta lanpostuak betetzeko sistema hori aurreikusten du, hori bai, postu jakin batzuetarako bakarrik: zuzendaritza postuak, erantzukizun berezikoak, goi kargudunen idazkariak, eta abar. Araudi hori ezin da mimetikoki aplikatu MBn, baina ikusten da izendapen askea lanpostu jakin batzuetarako gorde behar dela, erantzukizun, konfiantza edo hierarkiagatik ezaugarri espezifikoak dituzten lanpostuetarako.

MBren kasuan, HKEEk adierazten duen moduan, objektibizatu egin da inguruabar horiek betetzen direla, eta negoziazio kolektiboan a priori identifikatu dira salbuespenezko sistema horren bidez hornitu daitezkeen lanpostuak. Ondorioz, esan beharrik ere ez dago sistema hori erabiltzea justifikatuta dagoela, itundutako bideei egokitzen zaielako. Ildo horretan, gure **Justizia Auzitegi Nagusiaren** jarrera aipatu behar da, **2017ko azaroaren 21eko Epaian** argi eta garbi azalduta dagoena:

> *"Izendapen askeko prozedura bat dator Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoarekin; izan ere, Auzitegi Gorenaren 2015eko azaroaren 6ko Epaiaren arabera (320/2014 Errek.), izendapen askeko lanpostuak ezar daitezke, eta horrek ez du berdintasunaren printzipioa urratzen, ez eta merezimenduarena eta gaitasunarena ere, izendapen askea nahitaez egokitzen ez zaiona, eta hori guztia kalterik egin gabe kontrol judizialari, izendatutako pertsonak ez balitu beteko lanpostua lortzeko eskatzen diren baldintzak edo betekizunak"*

Hau da, negoziazio kolektiboaren bidez, izendapen askez bete daitezkeen lanpostuak erabakitzeko eta zehazteko aukera dago, eta MBk hori egin du.

Aurrekoa alde batera utzita, eta Hitzarmen Kolektiboa alde batera utziko bagenu ere, modu berezi horretan betetzen diren lanpostuak bat datoz Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 46.3 artikuluan baimendutakoekin:

> *"Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko goi kargudunen edo beste kargu publiko hautetsi edo izendapenezko batzuen idazkari postuak.": Gerentziako idazkarien postua*

"Salbuespen gisa eta erantzukizun berezia dela eta, lanpostuen zerrendan hala zehaztu den lanpostuak": Sistemen Buruzagitzako lanpostuak eta Langileen Administrazioko teknikarien lanpostuak.

Horietako bakoitzean egindako prozesua azalduko dugu jarraian.

Sistemen Buruzagitzako lanpostua lortzea, lanpostuan dagoen pertsonak erretiro partziala hartu eta dagokion errelebo kontratua egiteagatik.

Prozesua barne sustapenez egiten da, Antolakuntza eta Sistemen Zuzendaritzako zenbait hautagai aukeratuta. Prozesu hori lanpostu mailaren (Buruzagitza maila eta Hitzarmen Kolektibotik kanpo) eta haren erantzukizunen araberako hautaketa proba espezifikoak aplikatuz egin da.

Gauzatutako prozesua, hautagaiak eta azken hautagaiari buruzko erabakia zehazteko ondorioak agiri bidez behar bezala dokumentatuta daude. Prozesuan uneoro errespetatu dira Sistemen Buruzagitzako lanpostuaren ezaugarriak eta erantzukizun bereziak, Antolakuntza Eskuliburuan jasota eta dokumentatuta daudenak, eta berariaz argitaratuta Internet korporatiboan, kontsultatu ahal izateko.

Hala, Sistemen Buruzagitzan sartzeko, nahiz eta lanpostu hori Hitzarmen Kolektibotik kanpo egon eta izendapen askekoa izan, hautaketa prozesu mugatu bat egitea erabaki da, Sistemen Kudeaketan edo Antolakuntzan ibilbide sendoa eta esperientzia handia duten hautagaien artean. Horretarako, proba espezifiko objektiboak egin dira, hautagaiak kokatu eta ordenatu ahal izateko, eta prozesuaren amaieran guztiei elkarrizketa egin zaie.

Ezaugarrien eta erantzukizun berezien definizioa dokumentatuta dago, Antolakuntza Eskuliburuaren bidez, bai eta lanpostua betetzeko aukeratutako langilearen justifikazioa ere. Horregatik guztiagatik, uste dugu HKEEk emandako gomendioa bete dela.

Langileen Administrazioko teknikariaren lanpostua lortzea, lanpostu hori hutsik dagoelako.

Lanpostu hori F mailakoa da, eta Hitzarmen Kolektiboaren barruan dago, izendapen askearen eta oposizio-lehiaketaren bidez % 50ean bete daitezkeenen artean.

Hala ere, kasu honetan, lanpostua araubide orokorrean eskuratu da, barne sustapenaren eta oposizio-lehiaketaren bidez. Lanpostuaren argitalpena intranet korporatiboan erregistratu da, zirkular hauen bidez:

- 2019/01/22. 19-PE-CR-001. Langileen Administrazioko teknikariaren lanpostu hutsa betetzeko barne prozesuaren hasiera.
- 2019/03/06. 19-PE-CR-001 I. eranskina. Langileen Administrazioko teknikariaren lanpostu hutsa betetzeko onartutako eskabideak.
- 2019/03/22. 19-PE-CR-001 2. eranskina. Langileen Administrazioko teknikariaren lanpostu hutsa betetzeko onartutako eskabideak.
- 2019/04/05. 19-PE-CR-001 3. eranskina. Langileen Administrazioko teknikariaren lanpostu hutsa betetzeko prozesuko proba psikoteknikoen emaitzak.

- 2019/06/13. 19-PE-CR-001 4. eranskina. Langileen Administrazioko teknikariaren lanpostu hutsa betetzeko prozesuko ezagutza proben emaitzak.
- 2019/06/13. 19-PE-CR-001 5. eranskina. Langileen Administrazioko teknikariaren lanpostu hutsa betetzeko barne prozesuaren erabakia.

Era berean, urrats horietako bakoitza Azterketa Epaimahaiaren aktetan jasota geratu da. Beraz, uste dugu HKEEk adierazitakoa erabat ezarrita dagoela.

Gerentziako Idazkaritzako arduradunaren lanpostua lortzea, lanpostuan dagoen pertsonak erretiro partziala hartzeagatik.

Barne araudiaren arabera:

> *"MBko lanpostu hutsak betetzeko, barne sustapeneko prozedurak egingo dira enpresako langile finkoentzat, eta sarrera prozesuak enpresatik kanpoko langileentzat. Lanpostuak betetzeko orduan, barne sustapenak lehentasuna izango du beti, lanpostu berrien aurrean".*

Plaza hori barne sustapeneko prozesu baten bidez bete da.

Araudi beraren arabera:

> *"G ordainsari mailako lanpostuetan hutsik dauden lanpostuak betetzeko, bai eta Zuzendaritzako Idazkaritzako lanpostua betetzeko ere, enpresaren Zuzendaritzak izendapen askea egingo du".*

Lanpostu horren ezaugarri berezietako bat konfiantza maila denez, izendapen askearen bidez betetzea aukeratu da, Antolakuntza Eskuliburuan zehaztuta eta dokumentatuta dauden baldintzak zorrotz betez nolanahi ere.

Baldintza akademiko egiaztatuei dagokienez, hautagaiek unibertsitate ikasketak dituzte, Zuzendaritzako Idazkaritzan Diploma mailakoak, Antolakuntza Eskuliburuan adierazitakoa betez. Era berean, esperientzia egiaztatua izateko eskakizunari dagokionez (ahal dela 5 urte antzeko lanpostua batean), hautagaiak esperientzia gisa aurkezten du 1995etik 2004ra bitarte Zuzendaritzako idazkariaren lanpostuan aritu zela, Gerentziako Idazkaritzako arduraduna oporraldiagatik edo bajagatik egon ez denean Gerentziako Zuzendaritzan lagundu duela, barne funtzionamenduko eta ordezkaritza organoekiko harremanetarako protokoloetan esperientzia duela, Komunikazioko teknikari gisa jardun dela, eta zeregin horiek guztiak behar bezala egin dituela; horrez gain, ibilbide sendoa eta esperientzia handia dituela frogatu du. Era berean, hizkuntza mailako eskakizunak betetzen ditu, euskarari eta ingelesari dagokienez.

Ezaugarrien eta erantzukizun berezien definizioa dokumentatuta dago, Antolakuntza Eskuliburuaren bidez, bai eta lanpostua betetzeko aukeratutako langilearen justifikazioa ere. Horregatik guztiagatik, uste dugu HKEEk emandako gomendioa bete dela.

III.2.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

- *28,6 milioi euroren truke esleitutako 12 espedientetan (2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 15, 19, 20. eta 21. espedienteak), administrazio klausula partikularren agiriek ez dituzte*

banakatzen kostu zuzenak, zeharkakoak, bestelako gastu batzuk eta, hala badagokio, soldaten kostua; beraz, ez da justifikatzen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua merkatuko prezioen araberakoa denik.

ALEGAZIOA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua banakatzeko betebeharra soilik eska daiteke prezioa oro har prestazio kostu gisa ezartzen den kasuetan. Beraz, prezioa unitateko prezioen arabera ezartzen denean, aipatutako banakatzea ez da beharrezkotzat joko. Ildo horretatik jo zuen Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak 2019ko ekainaren 13ko ebazpenean:

> *"merkatuko prezioa 102.4 artikuluaren bidez zehazten bada, modu unitarioan kontratuaren xedea osatzen duten prestazioaren osagaiei edo prestazio partzialei edo ematen edo gauzatzen diren unitateei dagokienez, argi dago aurrekontua ematen edo gauzatzen diren merkatuko prezio unitateen arabera eratu eta banakatu daitekeela eta, are gehiago, hala egin behar dela, administrazio klausula partikularren agirian aurreikusitako gehienekora arte, eta ez da beharrezkoa edo derrigorrezkoa izango zerbitzuaren hornitzailearen edo emailearen kostu zuzenak eta zeharkakoak eta bestelako gastuak banakatzea, ez baitira beharrezkoak kontratazio organoak lizitazioan unitateko prezioan eskatzen baditu, eta ez prestazio kostuen arabera"*

- *20,6 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (15. eta 20. espedienteak), kalkulatutako balioa ez da zuzena, ez baititu kontuan hartzen agirietan jasotzen diren balizko aldaketak.*

ALEGAZIOA

Tren Unitateen Berrikuspen Handiko espedienteak dira, 500. seriekoak (18/18: bogieak, eta 18/22: trakzio ekipoak).

Bi espedienteetan, esleipenaren zenbatekoan, prebentzio lanak eta zuzenketa lanen aurreikuspenaren gehieneko bolumena jaso ziren.

Esleipenaren zenbatekoan ez ziren aurreikusi mantentze lan horietan aurreikusi gabeko beste gastu batzuk, lanen gehieneko zenbateko osoa % 10 handitzeko aukera jasotzen zutenak, ekipoen bizitza hurrengo Berrikuspen Handira arte bermatzeko beharrezkoak izan zitezkeen eragiketengatik.

Ez da oso probablea zenbatekoa handitu behar izatea, baina, nolanahi ere, aukera hori ez zen kontuan hartu esleipenaren zenbatekoan.

ERANSKINEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

A.15.4 LANGILE GASTUAK eranskinean, "MBSAren Hitzarmen Kolektiboa eta ordainsari aldaketa" epigrafean, xedatutakoaren aurrean.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

HKEEk adierazi du Zuzendaritzako langileen ordainsariak batez beste % 3,55 igo direla 2019an.

Sektore publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuak HKEEk identifikatutako beste igoera gehigarri batzuk ezartzen ditu, % 2,5eko oinarrizko igoera orokorraz gain, hala nola:

- % 0,3ko gehikuntza, produktibitatea hobetzeko planak edo proiektuak ezartzeko.
- Ordainsari gutxituak edo handitu gabeak berrezartzea aurrekontu araudiak aurreko urteetan baimendutako gehienekora arte, defizitaren, zorraren eta gastu arauaren helburuak betetzen dituzten erakundeetan.

Ondorioz, azpimarratu behar da MBko langileei eragin dien gehikuntza guztiaren jatorri bakarra 24/2018 Errege Lege Dekretuan araututako xedapen gaitzaileak zorrotz aplikatzea dela.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

BEI	Banco Europeo de Inversiones.
BOB	Boletín Oficial de Bizkaia.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CTB	Consorcio de Transportes de Bizkaia.
D.A.	Disposición Adicional.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
DEUC	Documento Europeo Único de Contratación.
ET-FV	Eusko Trenbideak /Ferrocarriles Vascos, S.A.
ETS	Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea.
FMB	Ferrocarril Metropolitano de Bilbao.
GOVA	Gobierno Vasco.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
LRJSP	Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
LS	Ley 31/2007, de 30 de octubre, sobre Procedimientos de Contratación en los sectores del agua, energía, transportes y servicios postales.
MBSA	Metro Bilbao, S.A.
RDL 24/2018	Real Decreto Ley 24/2018, de 21 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público.
RDL128/2018	Real Decreto Ley 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de administración local con habilitación de caracter nacional.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. INTRODUCCIÓN

El TVCP/HKEE de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el programa de trabajo, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Consorcio de Transportes de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2019.

La anterior fiscalización de la Cuenta General del CTB, realizada por el TVCP/HKEE, corresponde al ejercicio 2016.

La Cuenta General del CTB está integrada por las cuentas de la entidad local CTB, por las cuentas anuales de la sociedad anónima Metro Bilbao, S.A., aprobadas por la Junta General de la sociedad, cuyo único accionista es el CTB y por las cuentas anuales consolidadas.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestarias, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, compras y servicios y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta General se elabora de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación. Para la revisión de las áreas contables más significativas de las cuentas del CTB, una empresa de auditoría externa ha realizado un informe de procedimientos acordados y las cuentas anuales de la sociedad pública MBSA han sido objeto de una auditoría financiera.
- Análisis financiero de la situación al cierre del ejercicio 2019 y del Plan Financiero para dar cumplimiento a las futuras inversiones.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre el sistema de control interno y procedimientos de gestión”.

El CTB se crea por la Ley 44/1975, de 30 de diciembre, como ente local con personalidad jurídica propia e independiente de los entes consorciados. La participación de estos entes a 31 de diciembre de 2019 es: Gobierno Vasco (50%), Diputación Foral de Bizkaia (25%) y Ayuntamientos afectados que son: Barakaldo, Basauri, Bilbao, Erandio, Etxebarri, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao (25%).

Su objeto social es: “participar en la financiación de las obras de infraestructura del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao, recibiéndolas una vez ejecutadas y llevar a cabo los correspondientes proyectos y obras de superestructura y equipamiento general de aquél, conforme a lo establecido en la Ley 44/1975” y “gestionar el servicio público de transporte a prestar por dicho ferrocarril, por el sistema de gestión directa mediante constitución de sociedad privada con capital del Consorcio, Metro Bilbao, SA, según lo dispuesto en el artículo quinto de dicha Ley”.

Desde 1986 la financiación del CTB se realiza entre el GOVA y la DFB, al 50% cada uno, asumiendo ésta última la financiación de los ayuntamientos consorciados.

La sociedad MBSA, participada al 100% por el CTB, se constituyó el 18 de febrero de 1993 y su actividad principal es la gestión de la línea 1 del FMB (Basauri-Plentzia) inaugurada en 1995 y la línea 2 (Basauri-Kabiezes) inaugurada en 2002. La gestión de la línea 3 (Matiko-

Etxebarri) inaugurada el 8 de abril de 2017, la realiza la sociedad ET-FV. Las 3 líneas tienen un comportamiento de servicio único para los usuarios.

Aunque la competencia para la integración de cualquier título o uso adicional de la tarjeta Barik es exclusiva del CTB, para la regulación de los servicios de las 3 líneas y una adecuada coordinación tarifaria, se aprobó el Convenio Regulador entre CTB, MBSA y ET-FV, de fecha 26 de abril de 2016 y adendas de 20 de diciembre de 2016.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA

Gastos de Personal

1. El complemento específico aplicado en 2019 supera un 0,93% de media al que correspondería legalmente, por el indebido incremento de 1,9% de media, respecto del 1% aprobado por Ley 3/2017, de 27 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2017 (ver A.3).

SOCIEDAD PÚBLICA METRO BILBAO, S.A.

Gastos de Personal

2. En 2019, MBSA ha transformado los contratos laborales temporales de 10 trabajadores en indefinidos, mediante el procedimiento de promoción interna contemplado en el convenio colectivo de MBSA, incumpliendo por tanto los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad que rigen el acceso al empleo público.

Contratación de bienes y servicios

3. El expediente de asistencia técnica para el mantenimiento de equipos de señalización de ATP/ATO, adjudicado por 1,7 millones de euros (expediente 16), ha continuado su ejecución cuando el plazo del contrato había vencido el 31 de diciembre de 2018. El gasto registrado en el ejercicio 2019, hasta que entra en vigor el nuevo contrato, 1 de noviembre de 2019, asciende a 332.968 euros (ver A.15.5).

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos que se detallan en los párrafos 1 a 3, el Consorcio de Transportes de Bizkaia y la Sociedad Pública Metro Bilbao, S.A., han cumplido razonablemente la normativa legal que regula su actividad económico-financiera en el ejercicio 2019.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

1. La liquidación del presupuesto de CTB no incluye ingresos por las recargas de las tarjetas Barik correspondientes a las recargas del mes de diciembre, ni los gastos por las validaciones de dicho periodo, por importe de 11,1 y 9,7 millones de euros, respectivamente (A.4 y A.8). Además, 629.472 euros, de los ingresos citados, tampoco se han registrado en contabilidad patrimonial.

   Por otra parte, no se ha registrado la liquidación de títulos consorciados correspondiente a los ejercicios 2017 y 2018, aprobada el 29 de noviembre de 2019, a favor del resto de operadores de la tarjeta Barik, por importe de 1,6 millones de euros, ni en la liquidación del presupuesto, ni en contabilidad patrimonial (A.8).

El efecto conjunto de los dos párrafos anteriores supone disminuir el remanente de tesorería y el patrimonio neto a 31de diciembre de 2019, en 200.000 y 945.000 euros, respectivamente.

2. El remanente de tesorería a 31 de diciembre de 2019 del CTB incluye un importe de 19,4 millones de euros (20,7 millones de euros considerando los ajustes del párrafo anterior), que corresponden a los saldos acumulados de títulos consorciados pendientes de validación y a los beneficios del sistema Barik pendientes de liquidación y reparto entre los operadores a 31 de diciembre de 2019. Este importe está afecto a la prestación del servicio por lo que no es de libre disposición. El efecto en contabilidad patrimonial de este ajuste, supone minorar los fondos propios en dicho importe (ver A.7).

   Además, de acuerdo con lo recogido en la liquidación aprobada el 29 de noviembre de 2019, el importe de 4,1 millones de euros que corresponde a Metro Bilbao, S.A., se debe destinar a gastos e inversiones para futuros desarrollos del sistema Barik entre los ejercicios 2020 y 2023 (ver A.7). La memoria del CTB a 31de diciembre de 2019, no informa de este compromiso.

3. El CTB no dispone de un inventario físico individualizado y actualizado de los bienes del inmovilizado material a 31 de diciembre de 2019, por lo que no es posible constatar la veracidad y propiedad de los bienes utilizados en su actividad, ni por lo tanto el adecuado registro contable a dicha fecha.

4. La sociedad MBSA utiliza en el desarrollo de su actividad, determinados bienes que no son de su propiedad, pertenecientes al CTB o a otros organismos públicos, y que no figuran en el activo del balance de situación. El uso de los mismos no supone coste alguno para la sociedad.

   Asimismo, la sociedad no ha recibido cargo alguno relativo a la financiación de la construcción del FMB que, de acuerdo con sus estatutos sociales, debería correr a su cargo.

   A la fecha de este informe no es posible determinar el coste que, en su caso, pudiera ser repercutido a la sociedad por los conceptos antes mencionados, ni el efecto que en las cuentas anuales adjuntas pudiera tener la decisión que finalmente se adopte sobre la forma jurídica de la propiedad y el derecho de uso de los citados bienes.

En opinión de este Tribunal, excepto por las salvedades señaladas en los párrafos 1 a 4, las Cuentas anuales del CTB, de MBSA y los Estados Financieros Consolidados del CTB expresan, en todos los aspectos significativos, la actividad económica del ejercicio presupuestario de 2019, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera a 31 de diciembre de 2019, así como de los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

En este apartado se señalan tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

III.1 CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA

III.1.1 RÉGIMEN LEGAL Y REFORMA ESTATUTARIA

La Ley 44/1975, de 30 de diciembre de creación del CTB estableció su naturaleza de ente local y su remisión a la legalidad aplicable a este tipo de entes. La Ley 40/2015 de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, que refunde las modificaciones legales de las leyes 27/2013, de 27 de diciembre, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local y la 15/2014, de 16 de septiembre, de Racionalización del Sector Público y otras medidas de reforma administrativa, regula los Consorcios en los artículos 118 a 127.

Las modificaciones normativas antes citadas establecen que los estatutos de cada consorcio determinaran la administración pública a la que estarán adscritos, atendiendo a los criterios de prioridad establecidos en dicha normativa y que los consorcios estarán sujetos al régimen de presupuestación, contabilidad y control de la administración a la que se adscriban.

La Ley 40/2015 entró en vigor el 2 de octubre de 2016 y fija en su Disposición Final 17ª párrafo nº1 el plazo de un año para adecuar las normas estatales o autonómicas que sean incompatibles con la misma. No obstante, la citada Disposición Final establece en su párrafo nº 2 que los consorcios creados por ley singular anterior a la Ley 40/2015 se seguirán regulando por su legislación especial hasta que se produzca la citada adaptación normativa.

En materia de tutela financiera, estabilidad y morosidad en el pago a proveedores, el CTB se encuentra adscrito a la CAPV y así consta en el inventario de entes de la Intervención General de la Administración del Estado.

A la fecha de este informe se encuentra vencido el plazo desde el 2 de octubre de 2017 y no se ha producido la reforma de su ley de creación, ni la modificación de los estatutos, ni por lo tanto se ha determinado la administración de adscripción.

La nueva regulación del régimen de los consorcios tiene el carácter de normativa básica, de acuerdo con la Disposición Final 14ª de la Ley 40/2015 y en este marco deberá desenvolverse la nueva legislación de adaptación. En consecuencia, la reforma de la Ley del CTB y la adaptación de sus estatutos debe realizarse a la mayor brevedad posible.

Las modificaciones más significativas afectarían al régimen retributivo y de gestión de personal, que establecen limitaciones de tipo cuantitativo y cualitativo, que deberían ser tenidas en cuenta hasta la reforma legal y adaptación de estatutos antes citada. En este sentido, las retribuciones por el complemento específico de algunos puestos del CTB son

superiores a las correspondientes a puestos similares de las administraciones de las que dependen y/o financian su actividad.

